



Mendia: gozatzea  
amesgaizto  
bihur daiteke

Juanjo San  
Sebastian alpinistari  
elkarrizketa



Ingo Xonau!  
proiektuaren  
aurkezpena xaun!  
Badakin?

Hori don!  
11:30ttan  
Santa Anan!

Baxakiñat, bai.  
Abenduaren 14an  
don, ezton?

## NOKA BERBETA AZTERTU ETA JASO, EGITEN SEGITZEKO

Oñatiko Ingo Xonau! taldeak aztertu du herriko emakumeen noka hizkera, erabiliz eta erabiliz berriro berreskuratzeko / 34

INGO XONAU?

Aintzane Agirre eta  
Ane Ugarte, Ingo  
Xonau! taldeko kideak,  
Oñatiko Foruen plazan.

XABIER URZELAI


**Joseba Erostege eta gaixo larri dauden presoak askatzea eskatuko dute Antzuolan zapatuan / 2**



**Emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsi dute manifestazio eta elkarretaratzeetan herri guztietan / 4**

**Herriko pintxorik onena aukeratzeko lehiaketa egingo dute Eskoriatzan oraingo asteburuan / 18**

**Bergarako Unzeta etxeko miradorea aldatuko dute eta sortu zeneko itxura berekoa izango du / 30**



**Aitor Mendizabalek azken pilota partidua jokatuko du Aspe enpresarekin zapatuan Eibarren / 39**



**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA / 21**

**SINADURAK**

	MIKEL ARROIABE / 17
	OSKAR ELIZBURU / 6
	AINHOA NEGERUELA / 35
	AINHOA LULLIBARRARANA / 15
	MIKEL IRIZAR / 48

Eneko Azurmendi ANTZUOLA

*Larriki gaixo dauden presoak etxera! Eltzikorta etxera!* lelopean egingo dute biharko Antzuolako manifestazioa. "21 euskal preso politiko gaixo larri daude espetxean; bailaran garatzen ari garen dinamikarekin, preso hauek jasaten duten salbuespen legedia eta kartzelaldi ankerra salatzea nahi dugu. Urgentziazkoa da preso hauek kaleratzea eta haien gaixotasunak modu egokian, kalean, artatzea. Indarrean dagoen salbuespen espetxe politika errotik aldatzea eskatzen dugu", azaldu dute Debagoieneko Sareko kideek.

Haien esanetan, lehenbailehen eman behar zaio amaiera gaixo dauden presoek jasaten duten egoerari. "Larritasun horren berri eman nahi diogu bailarako jendarteari, eta egoera hau iraultzeko denon bultzada derrigorrezkoa dela esatera gatoz", nabarmendu dute.

#### Kale antzerkia, "sorpresa"

Manifestaldia hasi aurretik, performance edo kale antzerki txiki bat egingo dute eskolako patioan. Hala ere, ez dute aurreraterik gura izan zer eskainiko duen antzerki horrek. "Sorpresa izango da". Gero, patiotik abiatuko dute manifestazioa, 18:30ean, eta Antzuolako kaleak zeharkatu ostean, leku berean amaituko.

Patioan bertan egingo duten ekitaldian, *Eltzikorta*-ren senitartekoei lore eskaintza egingo diete lehenik. Horrez gain, Aitzol Iturbe bertsolari antzuolarrak pare bat bertso kantatuko ditu eta neska gazte talde batek, berriz, pare bat abesti. Ostean, Inaxio Oiartzabal Sareko eleduak eta Antzuolako Ez Dut Moz-tuko Bizarra taldeko kide batek hartuko dute berba.

#### Domekan, ipuin kontaketa

Debagoieneko Sare garatzen ari den dinamika honen baitan, beste hainbat ekintza ere egin dituzte. "Hitzaldiak oso harrera ona izan zuen, eta erakusketa ikustera ere jende ugari gerturatu da". Preso eta preso ohien lanen erakusketa azaroaren 23an zabaldu zuten, Olanaren, eta domekara arte egingo da zabalik. Bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 18:30era egingo da ikusgai eta, manifestazioaren ostean, berriro irekiko dute, 20:30era arte. Domekan, berriz,



Azaroan egin dituzten ekitaldien berri emateko egin zuten prentsaurrekoa. GOIENA

# Gaixo daudenak kaleratzeko deia

Debagoieneko Sarek manifestazioa deitu du biharko, zapatua; Joseba Erostegei 'Eltzikorta' antzuolarra eta gaixo dauden beste 20 euskal presoak "kartzelaldi ankerra pairatzen ari direla" salatuko dute; Antzuolako eskolako patiotik abiatuko da, 18:30ean

## Gaur egun, zortzi debagoiendar daude kartzelan

	Herria	Kartzela	Kondena	Urteak kartzelan	Adina
Joseba Erostegei 'Eltzikorta'	Antzuola	Herrera de la Mancha (Ciudad Real)	30 urte	22	66 urte
Garikoitz Garcia	Aretxabaleta	Picassent (Valentzia)	20 urte	10	41 urte
Josu Arkauz	Arrasate	Murtzia	115 urte	28	62 urte
Unai Parot	Arrasate	Puerto de Santa Maria (Cadiz)	4.797 urte	29	61 urte
Marixol Iparragirre	Eskoriatza	Soto del Real (Madril)	20 urte	16	58 urte
Joseba Arregi	Oñati	Villena (Alacant)	36 urte	27	73 urte
Xabin Usandizaga	Oñati	Kordoba	30 urte	22	60 urte
Angel Telleria	Oñati	Estremera (Madril)	30 urte	2	63 urte

ITURRIA: SARE

12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egingo da zabalik.

Domekan, Joxemari Carrerek ipuinen kontaketa egingo du, Olanaren, 18:00etan. *Eltzikorta*-k iaz idatzitako *Txori mezulariak* liburuarena eta Sara Majarenas preso ohiak idatzitako *Maritxipi eta amatxo*-rena. Gero, txokolate beroa egingo da.

#### Anbulantzia, gaur Arrasaten

Bestalde, Euskal Herriko hainbat ospitale bisitatzen ari den Sareren ambulanzia Arrasatera iritsiko da gaur, egubakoitza. "Gaixo larriek bizi duten errealitatearen berri eman eta egoeraren larritasuna irudikatzea da helburua. 13:00etan batuko gara ospitale aurrean. Eskurriak banatzeaz gain, elkarretaratze bat egingo dugu eta sindikatuetakoa ordezkariekin hitz aspertu bat izango dugu".

#### 'Eltzikorta', "oso indartsu"

Joseba Erostegei *Eltzikorta* 1997ko uztailaren 1ean atxilotu zuten eta hogeita hamar urteko espetxe-zigorra ezarri zioten, "Ortega Lararen bahiketan parte hartzeagatik", besteak beste. Herrera de la Manchako kartzelan dago preso, eta 2014az geroztik, gaixo dago. "50 polipotik gora aurkitu zizkieten kolonean, eta kolon guztia kendu zioten. Bederatzi egun egon zen ingresatuta. Gero, 2015eko apirilean, fistulako ebakuntza bat egin zioten, eta ondoren berriro ere polipo gehiagorekin hasi zen. Urte bereko urrian tumore txar bat kendu zioten, eta konplikatzeko hasi zen guztia. Egun, polipo horiek heste mehean hazten hasi zaizkio; polipoak kentzen dizkiote noizean behin, eta analizatzera eraman", dio Lorea Erostegei, *Eltzikorta*-ren ilobak.

Halere, aldarte onean dagoela dio. "Beti egon izan da oso indartsu. Irteteko momentua ere gerturatzen dabil, eta are indar gehiagorekin dago orain. 2020an gurekin egotea espero dugu".

#### 'Amonaren ipuin magikoak'

Iaz *Txori mezularia* liburuaren kaleratu zuten *Eltzikorta*-k eta Lorea Erostegei eta orain, berriz, *Amonaren ipuin magikoak* izenekoak. "Mirentxin gidariei eskainitako liburu da. Txikitatik lagundu izan didate eta bidaia horiek niretzat magikoak izatea lortu izan dute". Durangoko Azokan egingo dira bi liburuak.

# "Hemen ikasi gura dut, baina interpretearekin"

Monika Morales Oñatin bizi da, eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan goi mailako gradu bat hasi du irailean; gorra da, eta ez dauka keinu hizkuntzako interpreterik; Eusko Jaurlaritzari eskaera egin ostean, zentro publiko batera joateko erantzun dio

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Programazioari eta mekanizatuari buruzko goi mailako gradu bat egiten hasi da Morales ikasturte honetan. Hala ere, keinu hizkuntzako interpreterik ez duela eta komunikabideen bitartez bere egoeraren berri ematea erabaki du. Izan ere, nahi dituen ikasketak nahi dituen zentroan egiteko eskubidea mugatzen diotela salatu du.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zentro publiko batera joateko esan dio. "Hasiera batean, ez zidaten inolako erantzunik eman. Mezu ezberdinak bidali ostean, ofizialki urriko lehen astean jaso nuen erantzuna. Diotenez, irailaren 3an bidali zuten, nik urrira arte ez jaso arren. Testu horrek dio zentro kontzertatu bat denez ez daukaldala interpretea eskatzeko eskubiderik eta zentro publiko batera joan behar dudala. Alde horretatik, diskriminatuta sentitzen naiz, ezin dudalako zentroa aukeratu, eta, ikasle gor bezala, publikora joatera behartuta sentitzen naiz", azpimarratu du.

Garbi utzi nahi du Eusko Jaurlaritzaren erantzuna ez dela ezezkkoa izan, baina aukeratzera behartu duela. "Uste dut aukera izan behar dudala beste ikasle baten egoera berean egoteko. Gainera, Gipuzkoan beste ikasle gor batzuk badaude zentro kontzertatu batzuetan ikasten, interpretearekin. Nik neuk ere garai batean zentro kontzertatu batean egin nituen ikasketak, Gasteizen, eta interpretea izan nuen Hezkuntza Siletik. Beraz, ez dut etsiko eta, borroka beste maila batera eraman behar badut, hala egingo dut".

Arartekoarengana ere jo du, baina, azaldu duenez, erantzunaren zain dago oraindik. "Duela bizpahiru aste hitz egin nuen berarekin. Suposatzen dut Hezkuntza Sailarekin egon beharko duela. Erantzunaren zain nago".



Monika Morales, Arrasaten, interprete bat behar duela eskatzen. E.A.

## "DISKRIMINATUTA SENTITZEN NAIZ, ZENTRO PUBLIKO BATERA JOATERA BEHARTZEN NAUTE"

**Benetako beharra daukaldio**

Interprete baten benetako beharra daukaldio. "Gelan ematen den informazioaren %90 galtzen dut; izan ere, irakasleak mugitu egiten dira eta ezpainak irakurtzeko arazoak izaten ditut. Galdutako informazioa berreskuratzeko bizpahiru aste behar izaten ditut, eta lan bikoitza egin behar dut eskolako erritmoa jarraitzeko. Irakasleen laguntzari esker, eta ikaskideek ematen dizkidaten apunteei esker, aurrera egiten dut ikasketekin".

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak ordenagailuko programa berezi bat jarri zion ikasturte hasi eta aste batzuetara. Haren bitartez, irakasleak mikrofono bat jartzen du eta berak esandakoa idatziz agertzen zaio. "Hala ere, esaten duen guztia ez zait agertzen eta oso azkar hitz egiten badu ez du ondo

funtzionatzen. Ezer baino hobea da, baina ez da nahikoa. Informazio guztia nire hizkuntzan jaso gurako nuke".

**Erakundearen "diskriminazioa"**

Iker Carrasco Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikaslea da, eta Monika Moralesen laguna. Hark uste du, Hezkuntza Sailaren erantzun horrekin erakundea bera dela diskriminatzen dena. "Jaurlaritzak ez dio esan interpreterik eskainiko ez dionik, baizik eta interpretea edukitze zentro publiko batera joan behar duela. Beraz, uste dut gure erakundea dagoela baztertuta, gure erakundea delako ez duena lortzen ikasle gor bat bertan modu egokian edukitzea".

**Gatazkaren erdian**

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Carlos Garciak dio egoera "zaila" dela. "Zentroa gatazkaren erdian dago, eta guretzat ere ez da batere erraza. Oso ondo ulertzen dugu bere jarrera, eta horretarako eskubidea dauka, baina gure bidea ez da salaketarena, elkarriketaren bidez saiatu beharko luke honi irtenbidea aurkitzen".



Azaroko egun euritsu bat, Oñatin. Zoruan, orbela. ITZIAR LARRAÑAGA

## Azaroaren 1etik 27ra arte, 25 egunetan egin du euria bailaran

Hilabeteko egunik euritsuena 8a izan da Debagoiengan; egun horretan Elgetan egin zuen euri gehien: 88,4 litro

**E.A. ARRASATE**

Oraindik bukatu ez bada ere, azken urteetako azarorik euritsuena izateko bidean da aurten Euskal Herrian, eta Debagoiengan ere kopuru esanguratsuak uzten ari da –asteazkenara arteko datuak jasota–.

Meteo Bergarako Aitor Amutxastegik emandako datuen arabera, azpimarratzekoa da, adibidez, 27 egunetatik 25etan euria egun duela azaroan. Gainera, 19 egunetan jarraian egin du euria, azaroaren 1tik 19ra.

Bestalde, azaroaren 1etik 27ra, metro karratuko 1.727,7 litro jaso dira Debagoieneko bost estazioetan: Arrasaten, 346 litro batu dira; Bergaran, 349,3 litro; Oñatin, 339 litro; Aretxabaletan, 328,8 litro eta Elgetan, 364,6 litro –azaroaren 5etik–.

Azaroko egunik euritsuena, berriz, hilaren 8a izan zen –egubakoitza–. Bost estazio horietan

gutzira 325,5 litro pilatu ziren egun horretan: Arrasaten, 57,9 litro; Bergaran, 61,6 litro; Oñatin, 62,4 litro; Aretxabaletan; 55,2 litro eta Elgetan, azkenik, euri gehien egin zuen: 88,4 litro.

Horren ondorioz, urtegiak beteta daude. Urkuluren betetzemaila %87,88koa –urriaren 31n %67,40koa–. Albinaren betetzemaila, berriz, %80koa da –iazko azaroan %60koa zen–.

**Hilabete hotza**

Bestetik, azaro hotza izaten ari da. Bailarako batez besteko tenperatura 9,2 gradukoa da –Elgetako datua kontuan hartu gabe–. Arrasaten, 8,4 gradu; Bergaran, 9,7 gradu; Oñatin, 9,6 gradu; eta Aretxabaletan, 9,3 gradu.

Hileko tenperatura altuena Oñatin eta Bergaran jaso zen, azaroaren 1ean: 23,4 gradu. Tenperatura baxuena, berriz, Elgetan, hilaren 16an: -0,4 gradu.

## Beste bost komertzio izendatu dituzte Singular Denda

Gipuzkoako Merkatarien Federazioak 23 Singular Denda berri izendatu ditu asteon Donostian egindako ekitaldian, eta horietatik bost debagoiendarrak dira: Arrasateko Amaia Albes, Lirain eta Zubiaga eta Oñatiko Andrea Azkoaga eta Candeluka.

Singular Dendak egitasmoak tokian tokiko komertzioa bultzatzea du helburu. Izendapen

horren atzean herrietako kaleei bizia ematen dieten denda "originalak eta benetakoak" daudela diote bultzatzaileek.

Izendapen berri hauekin, ia 175 Singular Denda daude Gipuzkoan. Debagoiengan aurretik zeudenak honako hauek dira: Arrasaten, Belun, Olgeta Resusta, Karrikiri, Sikol lantzeria, Josle, Lasagabaster, Boutique Elena, Oskar Vitoria bitxitegia eta Tipi-Tapa. Oñatin, Arkauz optika, Maibi dekorazioa, Chic, eta Amalur.



Arrasaten egindako manifestazioa. ENEKO AZURMENDI



Eskoriatzan egindako elkarretaratzea. IMANOL BELOKI



Aramaion egindako kalejira. IBAI ZABALA



Oñatin egindako elkarretaratzea. AITZIBER ARANBURUZABALA



Elgetan egindako elkarretaratzea. LARRAITZ ZEBERIO

# Emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsi dute Debagoieneko herrietan

Azaroaren 25aren baitan, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko ekintza ugari eraman dituzte aurrera bailarako herri ia guztietan. Elkarretaratzeak egin dituzte gehienetan; Arrasaten, manifestazioa, eta Aramaion eta Bergaran, bestelako ekintzak

**Maialen Santos** DEBAGOIENA

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, azaroaren 25ean, emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko eta horren biktima diren emakumeei babesa emateko orotariko ekintzak eraman zituzten aurrera, Debagoieneko herri gehienetan. Hain zuzen, Leintz Gatzagan izan ezik, gainontzeko herri guztietan antolatuta zituzten ekintzak udalek eta feministen elkarrekin. Jendetza batu zen hitzorduetara; aldarrikapen ugari egin zituzten egunean zehar, eta noizbait indarkeria pairatu duten emakume guztiak gogoratu zituzten; horien artean, indarkeria matxistak eraildakoak.

Bailarako herri gehienetan elkarretaratzeak egin zituzten astelehen goizean eta arratsaldean. Elgetan, esaterako, 19:00etan

egin zuten hitzordua herriko plazan, hamabost minutuko elkarretaratze isila egiteko. Sua piztu zuten, kandela moreak piztu zituzten eta horrekin batera indarkeria matxistaren adierazgarri nagusiak ekarri zituzten gogora. 50 bat herritar elkartu ziren *Indarkeria matxista gehiagorik ez!* irakur zitekeen pankartaren bueltan.

Aretxabaletako herriko plazan ordu berean elkartu ziren herritarrek, Udalak eta Atxabalako Mugimendu Feministak deituta. *Zuen biolentziari guk autodefentsa feminista* zioen bertan erakutsi zuten pankartak, eta, azkenik, borroka feministaren aldeko oihu artean eman zioten amaiera ekintzari.

Eskoriatzarrak ordubete lehenago, 18:00etan, bildu ziren plazan, eta, hasteko, gizartea kon-

tzientziazte aldera zenbait datu berri eman zituzten antolatzaileek –emakumeen plazako Txoko Feministan jarri dituzte datu horiek–. Behin elkarretaratzea amaituta, Las Guerreras Talde Feministako hiru kideren *Lo que no se ve de la violencia de género* izeneko hitzaldia izan zen kultura etxean, eta aretoa bete egin zen. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, gainera, emakumeen autodefentsarako aholku-tailerra egin zuten eguazten arratsaldean.

Oñatin, bestalde, elkarretaratzearekin batera indarkeria kasuak identifikatzeko eta bistaratzeko ekintza kolektiboa eraman zuten aurrera Foruen plazan, Sare Feministak deituta. Hain zuzen, iceberg bana irudikatzen zuten hiru panel jarri

zituzten, eta bertan, indarkeria egoera ezberdinak zeintzuk diren idatzi zuten hainbatek. Horretarako, icebergaren goialdean idatzi zituzten indarkeria bistakoenak eta behealdean, aldiz, ezkutuan daudenak edota antzemateko zailagoak izan daitezkeen indarkeria motak.

Azkenik, Antzuolan goizean eta arratsaldean, birritan, egin zituzten elkarretaratzeak. Hain zuzen, herriko pentsionista eta erretiratuaren aldarrikapenekin bat egin zuten herritarrek goizko hitzorduan. Arratsaldean, aldiz, indarkeria matxistaren askotariko aurpegiak islatu zituzten ispiluen bitartez.

**Kalean zehar ekintzak**

Elkarretaratze isila egin ordez kalejira zaratatsua egiteko hautua egin zuten aramaioarrek astelehenan. Hala, zartaginak eta bestelakoak erabilia zarata eginez ibilbide bat egin zuten herrian zehar, *Erasuen aurrien autodefentsa feminista* irakur zitekeen pankartaren atzetik. Herritar ugari batu zen kalejirara, aldarrikapenak egitera.

Bergaran, bestalde, eguerdian egin zuten elkarretaratzea *Ema-*

**EKINTZA GUZTIETARA BILDU ZEN JENDETZA: ALDARRIKAPENAK EGIN ETA BIKTIMAK OROITU ZITUZTEN**

*kume helduetan indarkeriarik ez* lelopean, Duintasuna taldearen eskutik. Arratsaldean, aldiz, Martxanterak talde feministak antolatuta, *Endreduan* izeneko kale ekintza eraman zuten aurrera. Indarkeria matxista elkar gurutzatzen den bestelako indarkeriak irudikatzen, soka erraldoi bat egin zuten guztien artean, eta gero, bertan korapilatuta ziren bertaratu ziren. Asko izan ziren ekintzara gerturatu zirenak; bertan parte hartzera zein ikustera.

**Manifestazioan, jendetza**

Debagoieneko herri bakarrean, Arrasaten, egin zuten mobilizazioa astelehenan. 19:30ean abiatu zen jendetza Seber Altube plazatik, eta ondoren, ekitaldi berezia egin zuten Herriko Plazan, Arrasateko Mugimendu Feministak antolatuta. "Icebergaren puntan agertzen den indarkeria bakarrik ez, indarkeria mota guztiak salatzen irten gara kalera. Gaur, aldarrikatzea tokatzen zen, eta hala egin dugu, baina egunero dago lana egiteko", adierazi zuen Arrasateko Mugimendu Feministako Itsaso Gallastegik. Gaineratu zuenez, nork bere egunerokoan egin behar du "lan", indarkeria "suntitzea" helburu.

**Instituzioen babesa**

Azaroaren 25aren harira, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzen



Aretxabaletan egindako elkarretaratzea. MIRARI ALTUBE



Antzuolan egindako elkarretaratzea. IIBAI ZABALA



Bergaran egindako Endredua. JOKIN BEREZIARTUA

"konpromisoa" agertu du Eudelek, Euskadiko Udalen Elkartek. "Berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzioa, haute-matea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia", adierazi du. Horretaz gain, biktimei eta bizirik atera diren pertsonen "erreparazioa" ematean arreta jartzea bereziki garrantzitsua dela uste dute. "Biktimei erreparazioarako, eskubide-urra eta bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak martxan jarri behar

**BIKTIMA GUZTIEN ERREPARAZIOARAKO TOKIKO ERAKUNDEEN BEHARRA DAGOELA AZALDU DU EUDELEK**

dira". Horretarako, diote biktimen bizi-baldintzak "funtsean" hobetu behar direla, urrututako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Hain zuzen, erreparazioarako, tokiko erakundeetan jarri nahi du azpimarra Eudelek, horien esku-hartzea beharrezkoa dela iritzita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, sexismoaren adierazpide guztiak gaitzetsi behar direla azaldu du: "Tinkotasun osoz arbuia nahi ditugu indarkeria sexistara mota guztiak -fisikoa, psikologikoa, sexuala eta sinbolikoa-". Horrez gain, gaineratu dute "irmo" jarraituko dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politikak bultzatzen; are gehiago, herritarrak zein eragileak gonbidatu dituzte indarkeria salatzerako.

# Ane Irazabal: "Pertsonak izan behar dira fokua"

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek ezohiko batzarra egin du asteon, elkartearen estatutuak aldatzeko. Batzarraren ostean, Ane Irazabal kazetari arrasatearra hartu zuen hitza; gatazka politikoen arloan pertsonak izan behar diren garrantzia izan zuen hizpide

**M.S. ARRASATE**

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko eguaztenean egindako ezohiko batzarra aprobetxatu zuten, ostean, Ane Irazabali hitza emateko. Elkarteko idazkari Mikel Lezamiz azaldu bezala, pertsonen duen "konpromisoagatik" gonbidatu zuten kazetaria hitzaldia ematera. "Elkartearen filosofiaren baitan pertsonak daude, eta horiek gizartearen integrazteko egiten dugu lan. Irazabalek ere humanitate hobe baten alde egiten du lan", azaldu zuen.

Hain zuzen, pertsonen buruz hizketan jardun zuen kazetariak, fenomeno bat kontatzeko, horrek pertsonengan duen "eragina" kontatzea garrantzitsua dela iritzita. Hala, azken egunetan kubritzea tokatu zaion gertakari bati erreferentzia egin ez abiatu zuen hizketaldia. Aita Mari ontziak egindako azken erreskateari buruz zera esan zuen: "Bidegabekia da ontzia ehunka pertsonarekin itsasoan egon behar izatea; adostasunik ez dagoenez, Europaren erantzun baten zain".

Gatazka politikoen inguruan lanean jardun du azken urteetan, eta pertsonalki ezagutu dituen lau pertsonaren kasuak kontatu zituen, beraiei "ahotsa" eman nahian. "Errefuxiatuek edota gatazka politikoen ari garenean, garrantzitsua da protagonisten hitza ematea", argitu zuen. Gaineratu zuenez, kasu erreala ezagutzeak beraienganako "enpatia" eta "gertutasuna" sortzeko balio du, hala ezean, arazoak urrun ikusten direla uste baitu. "Fenomenoak kontatzeko pertsonak izan behar dira jomuga".

**Dokumentala, estreinatuta**

Azken urteetan kazetari freelance gisara lanean dabil arrasatearra, baina besteak beste, azken urtea dokumental berri bat filmatzen pasa du. *Awlad* izena daraman lanak -arabieraz,



Ane Irazabal kazetari arrasatearra, eguaztenean emandako hitzaldian. M.S.

**"GATAZKA POLITIKOEN ARI GARENEAN, PROTAGONISTEI EMAN BEHAR ZAIE AHOTSA"**

ANE IRAZABAL

**"PERTSONAK DITUGU OINARRI; GIZARTEAN INTEGRATZEKO LAN EGITEN DUGU"**

MIKEL LEZAMIZ

haurrak- atzo ikusi zuen argia Bilboko Zinexit giza eskubideen jaialdian, eta gaur, oster, Gasteizen estreinatuko dute. Dokumentalaren funtsari dagokionez, lau haur errefuxiatu nork bere herrialdean egunerokoan daraman bizitza azaltzen du. "Eskolaratzeak haurtzarora duen eragina aztertu dugu; baita etorkizunean nolako eragina izango duen ere". Gaineratu duenez, toki batean edo bestean bizitzea ez da berdina. "Haurren garapen pertsonalean eta heldutasunerako bidean berebiziko

garrantzia du norberaren bizilekua zein den jakiteak".

**Estatutuak, eguneratuta**

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko kideek hainbat gai jorratu zituzten batzarrean, baina batik bat, elkartearen Estatutu Sozialak aldatzeko baliatu zuten hitzordua. Mikel Lezamiz azaldu duenez: "Euskadiko Elkartearen Erregistroak aldaketa bat egin zuen bere garaian, eta, beraz, gure elkartearen Estatutuak horretara egokitu behar izan ditugu". Elkarteko 40 kide bildu ziren, guztira, batzar horretan, baina bertaratu ezin izan ziren beste askoren babesa ere jaso zuten: "Elkarteko beste 70 kideren babesa jaso dugu idatziz, errepresentazioa eman digute; nork bere sinadurarekin".

Horretaz gain, elkarteak daraman izena ere izan zuten hizpide. Hain zuzen, aste honetara arte Arizmendiarrietaren Obraren Lagunak Elkartearen izen ofiziala, baina izen hori "inoiz" erabili ez dutela argudiatuta, Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea moduan izendatu berri dute; hitz bat kendu diote, alegia.



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

## Gu prest?

Ene, ze bizkor doan denbora, atzo zelakoan eta urtebete joan da azken Euskara Egunezik. Berezia izan zen, duda barik, azken hori; izan ere, Euskaraldiaren bukaerarekin bat etorri zen, eta plazan, jai giroan eta jendetsu, ekitaldi borobila egin genuen lortutakoa ospatzeko.

Euskaraldikoa ez zen euli kaka izan. Hamaika egunez, 4.000 pertsona inguruk ariketa linguistikoa gure hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz funtzionatzeko bideak irekitzeko konpromisoa hartu genuen.

Eta zein da, bada, hortik atera den ondorioa? Hain garrantzitsua izan al da, ba? Ba, bai! Ondoriorik garrantzitsuena lortu ahal dugula ikustea izan da, eta denon egitekoa dela.

Erabilera asko igo zen, 4.000 lagun horiek txapa izateak identifikazioa lantzeko balio izan zuelako; argi azaldu genuen euskaldunak ginela eta euskara erabili nahi genuela. Horiei guztiei 16 urtetik beherako

guztiak gehituz gero, zenbateko aukera dugu euskaraz funtzionatzeko? Argi dago!

Gero, Korrikaren Klikarekin indartu genuen eta entitate eta erakunde askok hartu

## BANAKA ETA TALDEKA EGINGO DUGU ETA ARIGUNEAK ANTOLATUKO DITUGU LANTOKIAN...

zituzten konpromisoak egiteko eta eragiteko.

Korrika bukaeran Maialenek jarri zigun, baina, hirugarren eginbeharra: eginaraztea, erabakiak hartzea euskara benetan normalizatzeko.

Eta badator Euskararen Eguna berriro eta plazan bilduko gara konpromisoa adierazteko. Hurrengo Euskaraldia indar handiagoz burutzeko, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin aritzeko.

Oraingoan, banaka eta taldeka egingo dugu, ariguneak antolatuko ditugu gure lantokian, edo elkartean, edo...; talde batean denok gutxienez euskara ulertzen dugunean, euskaraz funtzionatzeko erabakia hartuko dugu, ohitura aldatzeko ariketa modu kolektiboagoan.

Nola egingo dugun ikasteko urtebete dugun arren, Biteri plazan elkartuko gara, abenduaren 3an, arratsaldeko 7etan, eta prest gaudela esango dugu.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Bakarrik

#### ANE LABAKA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Begi kolpe bakarrean irakurri nuen lerroburua: "NASAKO bi astronauta emakumezko bakarrik bidaiatuko dute espaziora". Hitz zehatz horiekin laburbildu nahi izan zuten albiste deigarria zenbait hedabidek. Mugarri historikotzat markatu zuten horrela lehen aldiz ehuneko ehuneko femenioa izango zen misioa.

Niri beste espazio bat etorri zitzaidan gogora segundo gutxiren buruan. Duela lau urteko abuztua zen: hegazkin bidaiak bateko eskala luze eta beroa Caracasko aireportuan.

Bertako gune batean jaso genituen maletak eta berriro beste gune batera sartzeko garaian segurtasun kontroletik igaro behar izan genuen.

Ilaran itxaron eta gure gorputzak nahiz eskuko ekipajea miatu ostean, gizonetako polizia batek ea bakarrik nora gindoazen galdetu zigun. Orduko hartan, kuadrillako bost neska gindoazen Kubara bidaiari. Sekula ez dugu horrenbestek elkarrekin bidaiatu. Bost ginen, baina aduanazainarentzat bakarrik gindoazen.

Geroztik, behin baino gehiagotan oroitu dugu aireportuko pasarte hura.

Izan ere, ez dago geografikoki eta denboran

zehir hain urrun joan beharrik.

Ziur inguruko emakumeei galdezka hasiz gero bat baino gehiago izango direla lagun baten konpainian joanagatik ere, inoiz antzerako iruzkinen bat entzun behar izan dutenak. Galdeketa hau egiteak argi utziko luke askoren begitara "gizonezko gabe" eta "bakarrik" sinonimoak direla.

Galdeketa hau egiteak berretsiko luke oraindik espazio ugari dauzkagula okupatzeko.

Ezinezkoak diruditen misio asko eta asko dauzkagula burutzeko.

Post gehiago 8. orrialdean.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendaria komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Bereizbar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Herritarren erantzukizuna sustatu nahi du Diputazioak"

EIDER MENDOZA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BOZERAMAILEA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu berri duen kudeaketa plan estrategikoaren eta datorren urtera begirako aurrekontu proiektuaren gainean dihardu Eider Mendozak. Baita Indarkeria Matxistaren Kontrako egunaz ere. **Indarkeria matxistari aurre egiteko zer egiten da Diputaziotik?**

Hezkuntza da inportanteena. Baina ez da nahikoa. Baliabideak ere jarri behar dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak iaz 162 emakume eta hauen mendekoak artatu zituen, une baten etxetik atera behar izan zirelako senarren haienganako biolentziagatik. Horiei laguntzeko protokoloa ezarrita daukagu eta baliabideak eskaintzen dira. **Gazteek egiten dituzte emakumeen kontrako erasoen %30. Kezkagarria da.** Bai. Alarma gorri guztiak pitzarazi digu horrek. Ohiko patrioiak errepikatzeaz harago



Foru Aldundiko bozeramailea Harira saioan izan da asteon. GOIENA

doa, arazo kulturala da, hezkuntzarekin, baliabideak jarrita eta guztion inplikazioarekin konpondu beharrekoa. **Foru Aldundiak maila goreneko saria emango dio Aspegi**

**Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkarteari. Berdintasunari keinu?** Berdintasunaren aldeko borrokan Aspegik egiten duen lana aitortu eta ikusarazi nahi dugu sari honekin.

**Desberdintasunen aurkako borroka izango da Gipuzkoako Kudeaketa Plan Estrategikoaren helburu nagusia. Zein zentzutan?** Herritarren arteko harremanetan, gizarte mailan, generoan... Erronka da Gipuzkoa izatea desberdinkeria gutxien duen Europako lurraldea. Egun, esaterako, diru iturrien araberako desberdinkeria neurtzen duen Gini indizean oso aurrean gaude, Europako herri aurreratuenen mailan. Gehien eta gutxien daukanaren arteko ezberdintasuna txikiagoa da Gipuzkoan beste leku batzuetan baino. **Kooperatibek badute horretan zerikusirik, aberastasuna modu orekatuan banatzen dutelako?** Bai, jakina. Gipuzkoa aurrerakoia eta aurreratua bada, besteak beste, kooperatibengatik dira. Desberdinkeria txikiagoa da erakunde horietan. **Eskualdeen eta herritarren arteko desorekak nolakoak dira Gipuzkoan?** Lurralde orekatua da Gipuzkoa. Ez da hiriburua bakarrik. Dena den, Foru Aldunditik ahalegin berezia egiten da herri txikienei ere baliabideak eta azpiegiturak banatzeko, desorekak leuntze aldera.

**Plan Estrategikoak 55 helburu estrategiko jasotzen ditu. Ze nabarmenduko zenuke?** Lehiakortasuna eta enplegu hobea; elkartasuna eta gizarte kohesioa; etorkizuna eta proiektu estrategikoak, eta elkarlana, erakundeen eta gizarteko agenteen artekoa. Gure erakundea herritarrengana hurbildu behar dugu eta, horretarako, elkar ezagutza landu, komunikazioan areagotu, proiektuetan eta politiketan parte hartzea sustatu... Herritarren erantzukizuna sustatu nahi dugu. Mezu hau da inportantea guretako: "Zuk erabakitzen ez duzuna beste batek erabakiko du zure orde". Eta ez gabiltza botoa emateaz bakarrik. **Datorren urteko aurrekontua, 915 milioi eurokoa, aurrekontu "sozial eta inbertitzailea" izango dela diozue. Zergatik soziala?** Aurrekontuaren ia erdia gizarte politiketara bideratu delako. Horretaz gain, proiektu estrategikoetara bideratzen dira inbertsio nagusiak. Eguneroko arazoei konponbideak emateaz gain, herri honi etorkizun hobea lortzeko proiektuetan parte hartzeko aukera eskaini behar diogu eta hori Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bidez egiten ari gara.

## ITURRI ONETIK

## Aretxabaletako Gabonetako bideoa gertu dago


Astelehenean aurkeztuko dute Aretxabaletako Udalak eta Aretxartek Gabonetako kanpaina. Bideo ikusgarriak emango du zer esana. Ibai Zangitu eta Kepa Errasti dira aurten ere bideoaren zuzendaria eta protagonista, eta hainbat herritar ezagun agertzen dira -Aretxarteko hamar bat komertzio eta ostalaritza zerbitzukoak-, eta herriko txokoak. Oraingoan, telebistako telesail ospetsu bat du oinarri, bereziki gazteen artean arrakastatsua. Plataforma ospetsuenean izan du garapena telesail horrek.

## ALBISTE IZAN ZEN

2009-11-29

## Xabier Leteren emanaldia Espaloian

Xabier Letek azken emanaldietako bat eskaini zuen Elgetako Espaloia kafe antzokian. Poesia errezitaldi hunkigarria, barru-barrukoa, Joxean Goikoetxea musikariaren laguntzarekin. Biharamuneko *Asteleheneko Goienkaria*-ren kronikan irakur zitekeenez, "ikaragarriko indarra" erakutsi zuen "testuak interpretatzen". Xabier Lete handik urtebetera zendu zen, 2010eko abenduaren 4an, hain justu ere.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

## 'Aita Mari' ontzia, 'trending topic'

Traol erabiliaren artean izan da aste honetan #AitaMari: *@patxitx*: "Gaur goizean lanera nindoala entzun du Ane Irazabal *@radioeuskadi*-n. Eta #AitaMari-ko batek esan du 45 pertsona utzi zituztela jaso gabe? Gaixoak... Ze pena!". *@Antifaxismoa*: "Hilabeteak portuan lotuta egon ostean, bat-batean zerbait aldatu egin zen. Aita Mari ontziaren agintea dutenek aurrerapausoa eman, eta aste honetan, Mediterraneotik 78 migratzaile erreskatatu dituzte. Sizilian porturatuko dira".

## GUTUNAK

**Oñatiko Udalari esker onez****AITOR BIAIN UMEREZ**

OÑATI

Oñatiko Udalari eskerrak eman nahi dizkiot, Natrako oinezkoen pasabidean egingo dituen lanengatik.

20 urteren ostean, lanak egingo ditu Udalak.

Aurrekontuak itxaropenarekin hartzen ditugu Berezaio auzoko auzotarrek. Eskerrik asko alkateari, Aspaceri erantzun egokia eman diolako.

Jose Luis Madrazo eta biok joan ginen, besteak beste, Santi Umerez eta Lierni Altubi arkitektoarekin batera Zahor ingurura, beharrezkoak diren lanak nola egin ikusteko.

Bilera baikorra izan zen.

Hortik aparte, Natrak bide segurtasun teknikariaren

eskaerei kasu egiteko hartu duen erabakia txalogarria da. Eskerrik asko denei!

**Koktel efektua, oraindik aztertu gabe****JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

2004an, Europako ministro batzuei odol analitika egin zieten, ehun substantzia kimikotatik zenbat zituzten jakiteko. Espainiako erreinutik Cristina Narbona ministroari egin zioten, eta ia substantzia kutsakorren erdiak zituen; beste ministro batzuekin konparatuta, gutxienetakoa. Pozik egoteko emaitzak?

Lasaitzeko, denak maila txikian zeudela gaineratu zuten, baina Cristinak, bere kezka gorde ezinik, ministro

bati entzun diodan galderarik zentzudunena egin zuen:

"Eta ia 50 substantzia txikik ez dute egiten substantzia kutsakor handi bat?".

Autoritateek aztertu eta baimendu egiten dituzte elikagaietan, sendagaietan eta ingurunean dauden substantzia arrotz guztiak. Azterketa horretatik zenbaki berezi bat ateratzen dute, non substantzia konkretu horrek maila horretatik behera ez duen kalterik egiten. Oraindik ez dute aztertu gorputzean egon daitezkeen beste substantzia arrotzekin izan dezaketen eragina. Ez da aztertzen koktel efektua. Batzuen esanetan, azken 70 urteetan, 500 substantzia arrotz inguru sartu ditugu gorputzean, eta zenbaki hori gorantz doa, gaixotasun arraroen kasuek bezalaxe.

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Osatu****ANDONI EGAÑA**

HTTPS://LABUR.EUS/JI2R0  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Etxetik urrun, ondoeza min da, eta mina jasangaitz.

Orduan sentitzen da benetako babesik eza.

Demagun Vienen zabiltzala egun batzuk pasatzera joanda.

Demagun harantzakoan lokartua zeneukan zauri bat zornatu egin zaizula eta ziztadek ez dizutela azken bi gauetan begirik biltzen utzi.

Demagun desastre hutsa zarella paper, dokumentu eta horrelakoekin.

Baina badakizu, etsi-etsian mina gailentzeko premia izanez gero, batean ez bada bestean hartu eta artatuko zaituztela.

Lasaitasun handia emango dizu horrek.

Immigrazioaren Euskal Behatokiaren azken ikerketak erakutsi digu Erkidegoko biztanleen

immigrazioari buruzko iritzia tolerantziarantz doala. Migrazioa beharrezkotzat jotzen dugu ekonomiak hobeto funtzionatzea ahalbidetzen duelako eta bertakook nahi ez ditugun lanak haiek betetzen dituztelako.

Baina... Datu batek eman dit atentzioa.

Erregularizatu gabeko etorkinei osasun arreta eskaintzearen alde hamarretik sei baino ez da ageri.

Gainerako laurak ez diete paperik gabeei osasun arretarik opa.

Eta horiek jarriko nituzke nik urrun, etxetik oso urrun, minez eta babesgabeturik.

Zauri zornaturen bat badaramate.

Kaskezurrean ziztada batzuk baino ez lituzkete behar... aurreiritziak birrintzen laguntzeko.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus


# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna




ZKO



# Etorkizuna orain



Gipuzkoa  
etorkizuna da.  
Iritsi den  
etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN

# 'Black friday' eguna dela eta, jarrera kontrajarriak

Ibai-arte 'black friday'-aren aurka posizionatu da, eta 'fair saturday' eguna egingo du zapatuan. Hala ere, elkarteko 23 denda 'black friday'-a egitearen alde daude, eta dendarien elkarteak komertzio bakoitzaren autonomia errespetatzea erabaki du

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Aste honetan Ibai-arte igorritako bi oharrek nahasmen pixka bat sortu dute. Lehenean, *fair saturday* ekimenarekin bat egiten zutela jakinarazi zuten ohar bidez, besteak beste, *black friday*-aren "kontsumismoaren" eta "jasangarritasunik ezaren" aurrean bestelako merkataritza bat proposatzen. Baina handik bi egunera, Ibai-arteren *ostiral baltza* kanpainaren berri eman zuten beste ohar batean, herriko 23 komertzio egongo duten *black friday* egunaren berri emateko. Kanpotik ikusita kontraesankorra izan zitekeenez Ibai-arterekin harremanetan jarri zen GOIENA.

"Ibai-arte, erakunde bezala, ez dago *black friday*-aren alde, baina bertako partaideen autonomia errespetatzen du. Hala, *ostiral baltza* kanpaina egin nahi zuten dendek berri eman genuen, eta denek irudi antzerakoarekin egitea adostu genuen: Ibai-arteren irudiarekin, dendetako atean globo beltzak jarrita..." azaldu du Jon Apraiz presidentea.

## Aldeko eta kontrako iritziak

Mabel dendak *black friday*-aren alde egin du eta hauek dira euren argudioak: "Salmentak areagotzeko beharagatik egingo dugu; dakizun bezala, Arrasateko komertzioen egoera delikatu da gaur egun. *Black friday*-a globala da eta herrietara heldu da; beraz, egingo ote dugun galdetzen digute bezeroek alde aurretik. Orokorrean, herritarrek ez daude kontzientziatuta herrian erostearekin, eta deskontuak dira gurera erakartzeko dugun tresna bat". Alboan dagoen Markiegi dendakoek, aldiz, ez dute egingo: "Arrasaten duela urte batzuk egiten da, nahiz eta guk ez dugun inoiz egin. Baina hasieran probatu zuten denda askok jada ez dute egiten. Enpre-



Herritar bat, *black friday*-a egingo ez duen eta egingo duen bi dendaren artean. X.G.

sa handiek euren zilborrentzako egingo duen estrategia bat da, eta komertzio txikiak are gehiago txikitzen ditu. Horrez gain, bezeroak engainatzen dituen zerbaite da, asko edaten baitu publizitate engainagarritik".

'Fair saturday' eguna bihar Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeek ekimenarekin bat egin dute, eta 12:30etik 14:00ak arte dantzak egingo dituzte Biterin, Seber Altuben eta plazan. Batutako dirua Mondraveren taldeari emango diote.

## 'Fair saturday' eguna bihar

Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeek ekimenarekin bat egin dute, eta 12:30etik 14:00ak arte dantzak egingo dituzte Biterin, Seber Altuben eta plazan. Batutako dirua Mondraveren taldeari emango diote.

## Martitzeneko Euskaren Egunean, keinua Euskaraldiari

Euskararen Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 3an, eta, urriaren 30ean iragarri bezala, keinutxo egingo zaio 2020ko Euskaraldiari. "Atzekoz aurrerako kontaketa hasi da. Batu, antolatu eta trinkotu gaitez, erronkari heltzeko. Asteartean, Arrasateko euskaltzaleak Biterin plazan batuko gara, gure hizkuntzan bizi ahal izateko garaia dela aldarrikatzeko. Izan ere, Beñat Etxeparek duela ia 500 urte idatziz utzi zigun leloak indar bete du oraindik: *Euskara, jalgi hadi plazara*", azaldu du Geike elkarteak. 19:00etan izango da, eta, herri ekitaldiaren ostean, TROS dantza taldeak emanaldia egingo du.

## Ezkontza eta hileta zibilekin kezkatuta azaldu da EH Bildu

Hileta zibilei dagokienez, adierazi dute 1.800 sinadura batu zituztela modu "intimo eta goxoan hileta zibilak" egiteko, baina "Gobernuak egoskorkeriaz" ukatu diela egitasmoa. "Azkenean, enpresa pribatu batek hartu du iniziatiba Udalak bermatu nahi ez duen zerbitzua herritarrei emateko". Ezkontzen kasuan, Udalak ezarri duen egutegi berria kritikatu dute. "Soilik larunbat goizetan" ezkontzak egitea eta uztailaren 18tik irailaren 12ra "oporregatik ixtea" salatu dute. "Ezkontzei dagokienez, gu prest gaude Udala Gobernuak ospatu gura ez dituenak gure gain hartzeko. Herritarren zerbitzura egoteko obligazioa dugu".

## Izotz pistaren ordez bost metroko izotz txirrista jarriko dute

Udal Gobernuak, herriko dendariekin batera, Gabonetako ekintzen berri eman zuten martitzenean, eta hori izan zen berrietasunetako bat. Bost metroko altuera eta zabalera edukiko ditu, eta hamabost metroko luzera. Biterin plazan jarriko dute abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra arte, eta euro baten truke lau aldiz bota ahalgo dira txartela erosten dutenak. Txartelak herriko komertzioetan egongo dira, eta baita Biterin jarriko duten etxolan ere. Gabon argiak abenduaren 5ean piztuko dituzte, Goikobaluk eta Arrasate Atletiko taldeek. Horrez gain, erakusleho lehiaketa martxan da berriz ere.

## Euskaraldirako eta Txikilandiarako lan eskaintzak

2020ko Euskaraldirako dinamizatzaile bat kontratatu nahi du Geikek, funtzio hauek betetzeko: Euskaraldiaren lantaldeak dinamizatzea, ekimenen jende berria erakartzea, komunikazio lanak egitea eta Euskaraldiaren inguruan antolatzen diren ekintzak gidatzea eta herriari begirako egitasmoak antolatzea. Lan eskaintzekin jarraituz, Txatxilipurdi elkarte urtarrilaren 2an, 3an eta 4an egingo den Txikilandiarako begirale bila dabil.

Bi kasu horietarako, bete beharreko baldintzei eta aukeraketa prozedurei buruzko informazio gehiago [Goiena.eus](http://Goiena.eus) webgunean dago.

## Gabonetan, lehen 'pop-up merkatua'

Ibai-arte antolatuta, abenduaren 14an, zapatua, egingo dute azoka, Seber Altube plazan. Herriko hamabost komertzio hartuko dute parte, eta denarik erosteko aukera izango da bertan plazan jarriko duten karpn. Horrez gainera, Arrasate txartelarekin erosketak egiten dituzten artean sariak banatzeko ere baliatuko dute ekimen hori.



Martitzeneko agerraldian eman zuten azokaren berri. MAIALEN SANTOS

## OHARRAK

### Sabino Cuadraren 'No os importe matar'

1978ko sanferminetan geratutakoari buruz liburua idatzi du, eta abenduaren 4an aurkeztuko du; 19:00etan, Kulturaten.

### Apustuen aurkako batzarra, bihar

Gaiarekin kezkatutako herritar batzuek plataforma sortu nahi dute eta lehen batzarra egingo dute bihar, 10:00etan, gaztetxean.

### Txatxilipurdiren 'Jostailu truke' ekimena

Azoka abenduaren 14an egingo dute, eta lehen bilketa egunak hauek dira: azaroaren 27an eta 29an Santa Marinako ludotekan, 28an San Antolinen, abenduaren 2an Arimazubini eta 3an Usaetzeko ludotekan. Orduetgia: 17:00etatik 18:30era.

# Bibote solidarioen egun handia, ekintzaz josita

Osagai ugari izango ditu bibotea moztu aurretik bihar egingo duten Mondravember egunak: mendi irteera, haurrentzako puzgarriak eta zuzeneko musika, besteak beste. "Herriarrek Mondravember zer den jakitea lortu dugu aurten", diote taldeko kideek

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Azaroa amaierara heltzen dabil, baina, bibotea 2020ko azarora arte ebaki aurretik, festa handia egingo dute bihar Mondravemberreko lagunak.

Festak osagai ugari izango ditu lapiko barruan. Eguna osasuntsu hasteko, eta bazkarirako gose pixka bat egiteko, mendi irteera egingo dute Kurtzetxikira; 08:30ean abiatuko dira, Zaldibartik. 12:00etan, ordea, bertso-triki poteoa hasiko dute, bazkarirako motorrak berotzen joateko. 13:00etan, ohiko familia argazkia aterako dute Herriko Plazan, eta 14:30ean, bazkaria egingo dute Montxon elkartean. "Iaz, 25 lagun batu ginen bazkaltzeko, eta aurten, aldiz, 52 lagunek eman dute izena dagoeneko. Hazkundera handia da, eta 2020an gehiago izateko esperantza dugu, aurten kide batzuk ezin izan baitira bazkarira etorri".

16:30an, haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte Seber Al-

tuben, eta leku berean La Ultima Bala eta Los Corcones taldeen kontzertua hasiko da, arratsaldeko zazpitan.

## 2019koa, "emankorrena"

Aurtengo ekitaldia "inoiz baino emankorragoa" izaten ari dela diote, eta egindako ekintza kopurua da horren erakusle garbiena. "Lehen, azaro amaierako festa egitera mugatzen ginen, baina aurten, ekintzak egin ditugu azaroko asteburu gehienetan. Mondraren partidura joan ginen, baita MUren eta eskubalo taldeen partiduetara ere, ekintza bateratua egin genuen Bergarakoekin Elorregin... Oso pozik gaude, uste baitugu jende ia gehienak dakiela orain Mondravember zer den eta zein helburu duen", azaldu du Iban Arroiabek. Behin zapatua pasata, aurten batutako diruaren berri emango dute, eta gogoratu dute "taldeko ateak zabalik dituztela nahi dutenentzat".



2018ko Mondravember egunean ateratako familia argazkia. MONDRAVEMBER



X.G.

## Nagusien Kontseiluaren lehena

Bi urteko isilpeko sukalde-lanaren ostean, martitzenean irten zen plazara Arrasateko Nagusien Kontseilua. Arrasateko erretiratuen lau elkarteak, Goienagusi, Caritas, Sasoibide, Duintasuna, Iturbide egoitza eta Udaleko Ongizate Zerbitzua daude barne. Menpekotasunari buruzko hitzaldia antolatu zuten, eta Kulturateko areto nagusia goraino betetzea lortu.

## Gabônetako 50 otarreren zozketa

Egin zure erosketak Arrasaten abenduaren 14ra bitartean eta lortu saski hauetako bat!



Arrasateko kultura gida eta promozio gehiago  
[www.ibalarte.eus](http://www.ibalarte.eus)

...edo [ibalarte.eus](http://ibalarte.eus) webgunera sartu eta parte hartu zozketan.



# Lau eta erdia, arrasatear jatorriko modalitatea

Esteban Muruamendiarrak pilotazaleak bikainki dokumentatu du 'kaiolak' eta Arrasatek duten lotura. 1945ean, Eugenio Bolinaga pilotari mondragoetarrek erronka bota zion Atano III.ari, eta Bolinagak proposatu bezala jokatzeko da 1989az geroztik

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Badago eskupilota modalitate bat, frontoia txikitzen duena eta koadro alaietan jokatzeko dena. Nola ez, lau eta erdia da, baina nondik dator joko mota bizi hori? Duela gutxi, horri buruzko artikulua bikaina argitaratu du Esteban Muruamendiarrak pilotazale arrasatearrak; hain justu, Arrasateri buruzko kontu historiko ugari pilatzen dituen Jose Mari Velez de Mendizabalena *Hots begi danbolinak* blogean.

## 1945eko desafio bat oinarrian

Urte hartan, hainbat oilar zeuden pilotarien artean, baina nabarmenetako bat, zalantzarik gabe, Atano III.a azkoitiarra zen. Hala, Eugenio Bolinaga pilotari arrasatearren gertuko lagun batzuek desafio bat proposatu zioten azkoitiarrari, Donostian delegazioa zuten *La Voz de España* egunkariaren argitaratutako artikulua baten bidez. Hauek ziren baldintzak: jokoan pilota ezin zen lau eta erdiko koadrotik pasa eta sarea laugarren koadrotik egin behar zen: hirugarren koadroa baino lehenago punpa eginez gero, falta; eta bosgarren koadroa gaindituz gero, pasa.

Baina Atano III. ak aldaketa batzuk proposatu zituen: sarea hiru eta erditik egitea eta pasa bost eta erdian jartzea. "Lehen aldia zen kaiola estiloan partidu bat jokatzeko zela. Atanok proposatutako aldaketek zentzua zuten. Orduan, buruz buruzkoetan, sarea librea egiten zuten, eta sakatzailak nahi zuten koadrotik sakatzeko; orokorrean, lehen koadrotatik sakatzeko zuten. Sakatzeko artean Atano fenomeno hutsa zen, eta zenbat eta aurrerenera egitea komeni zitzaion", azaldu du Muruamendiarrak. Azkenean, akordioa egin zuten, bakoitzak koadro erdi amore emanaz; sarea hiru eta erdian egitea adostu zuten, baina pasa, aldiz, bosgarren koadroan jarri zuten.



Eugenio Bolinaga pilotari arrasatearren erretratu. ESTEBAN MURUAMENDIARRAZ

## 1989AN BERRARTU ZEN LAU ETA ERDIA, BOLINAGAK ATANO III. ARI PROPOSATUTAKO BALDINTZEKIN

Sasoi hartan, pilota profesionalizatzen hasita zegoen, eta pilotari profesionalak ezin zeketen desafiorik jokatu. Horrela, Empresas Unidas enpresak bere gain hartu zuen partiduaren antolaketa. Partidu hura 1945eko martxoaren 24an jokatu zen, Bergarako Udal Pilotalekuan, eta 22-21 irabazi zuten Atanok.

Izandako arrakasta ikusita, handik astebetara, enpresak era bereko beste partidu bat antolatu zuen Eibarko Astelenan. 2019ko urtarrilean zendu den Migel Gallastegi txapelketa eta Bolinaga aritu ziren nor baino nor gehiago, baina Gallastegik aise irabazi zuen (22-10). Azkenik, bi partidu haietako irabazlearen arteko hirugarren partidu bat antolatu zuten, handik hiru astera. Tolosako Beotibarren neurtu zituzten indarrak, eta,

orduan ere, Gallastegi eibartarra izan zen irabazle.

## Bi etenaldi

Zazpi urtez ez zen modalitate horretako partidu gehiago jokatu, 1953an *Aurrerailien Lehiaketa* antolatu zuten arte. Lau aurrelari onenak hautatu zituzten, eta Bolinaga eta Akarregi heldu ziren finalera. Hurrengo urtean atzelariak ere hartu zuten parte eta lehen aldiz lau eta erdi ize-narekin jokatu zen txapelketa. 1957ra arte jokatu zen, eta ez zen berrartu 1989ra arte. "Profesionaletan ez zen lau eta erdiko txapelketarik izan 32 urtez, baina bai, ordea, afizionatu mailan. Urretxun jokatzeko zen, eta Tapia I.ak hainbat txapel eskuratu zituen".

## Bolinagaren erara

Modalitate honek jatorri arrasatearra duela esateko argudio bakarra ez da Bolinagaren lagunek proposatutako zerbait zela. Badago beste bat: 1989an, Lau eta erdia berrartu zenean, sarea laugarren koadroa aldatu zuten, eta pasa bosgarrenera; hain zuzen, Bolinagak Atanori proposatu zion bezala.



Donostiako Gros frontoian, Bolinaga bizkarrez eta Akarregi hari begira. E.M.

## Akarregiren aurkako final latza

Akarregi eta Bolinagak jokatu zuten 1953ko finala, lehia bizia eta polemika izan zituena. Bolinagak lau tantoko aldearekin egin zuen azken sarea (21-17) eta lau eta erdi inguruan punpa egin zuen pilotakada batekin azken tantoa lortu zuen. Akarregi zorientzera joan zen, baina epaileek pasa izan zela erabaki zuten, eta, Retegik Titini irabazitako final handian legez, Akarregik 21-17koa 21-22 bihurtu zuen. Aipatu behar da 21-21 berdinduta zeudenean partidu gelditu zutela, bero-bero zeuden ikusleetako bat ondoezik sentitu zelako eta bertan hil zelako. Hain izan zen gogoangarria final hura, 62 urte geroago gogoratu egin zuten. 2015ean, Urrutikoetxeak 10-20ko emaitza irauli eta 22-20 irabazi zion Irujori. Biharamunean, zera zioten Bilboko prentsako egunkari batean: *la-ia Akarregi eta Bolinagak jokatuako finala bezain gogorra izan zen*".



Nire ibilbide profesionalen ondoan izan ditudan pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, euren konfiantza, leialtasun eta maitasunagatik. Arrazoi pertsonalengatik ezin izango dut lanean jarraitu.

**Eskerrik asko guztiagatik!  
Nire bihotzean izango zarete.**

Erdiko kale 52 • Arrasate



Manu, makinekin egindako pilates eskola bat gidatzen. BELUN UNE AHAZTEZINAK

# "Pilatesa egiteak onura asko ditu osasunarentzat"

## MERTXE ETA MANU M&M PILATES ESTUDIOKO JABEAK

Kirolaren munduan urte askoz murgilduta egon ondoren, pilatesean espezializatutako estudio bat zabaldu berri dute, tratu pertsonalizatuagoa eskaintzeko asmoz

Irailaren 27an zabaldu zituen ateak M&M pilates estudioak, eta Mertxe eta Manu daude honen atzean. Hain zuzen ere, ibilbide luzea dute kirol arloko askotariko espezialitateetako eskolak ematen.

**M&M izeneko pilates estudioa zabaldu duzue. Nondik dator izena?** Proiektu honek duen kutsu bereziagatik eta garrantziagatik, gure izenen inzialekin izendatu nahi izan genuen. Urte asko

daramatzagu kirolaren munduan lanean, elkarrekin; horregatik, guztiok talde gisa –biok batera– ezagutzen gaituzte.

### Zergatik erabaki zenuten pilatesean espezializatzea?

Pilates estudioa zabaltzearen arrazoiak ugariak dira, baina horien artean bereziki bi nabarmenduko genituzke: batetik, taldeak lau pertsonaz osatuta egongo zirela. Horiek murriztak izanik, tratua pertsonalizatuagoa,

pertsonalagoa eta gertukoagoa izango litzateke. Bestetik, gaur egungo gizartean, pertsona gehienek dituzten gaitzak horrekin lotuta daudelako. Izan ere, gizartea geroz eta sedentarioagoa izanik, gaitz gehienak bizkarrekin lotuta daude.

### Zeintzuk dira pilatesa egitearen onurak?

Landutako ariketen xede nagusia malgutasuna handitzea eta indarraren kontrola eskuratzea

da; hori dela eta, pilatesak eskaintzen dituen onurak izugarriak dira. Besteak beste, bizkarrezurraren deskonpresioa, biriketako ahalmenaren handiagotzea, artikulazioen eragin falta, arazo bertebralean prebentzioa, estresa murrizten du, antsietatea, loezina, urduritasuna... bereizi daitezke.

### Zein desberdintasun aurki ditza-kegu pilates tradizionalaren eta makinekin egindako pilatesaren artean?

Lurrazalean egindako pilatesaren eta makinekin egindako pilatesaren arteko ezberdintasuna oso argia da. Lehenengo kasu horretan, egoera konplexuagoa da; izan ere, nork bere gorputzarekin lan egiten du, inongo kanpo laguntzarik gabe. Makinekin, aldiz, egoera zeharo ezberdina da, makinek mugimendua errazago bideratzen dizute, sentsazio desberdinekin laguntzen zaituzte, erresistentzia sortzen edo mugimenduan lagunduz.

### Nori zuzenduta dago?

Jende guztiari bideratuta dago, honen bitartez bortitza izan daitezkeen beste kirol batzuk indargabetu edota orekatu daitezkeelako. Ohikoena zera da, pilatesa lunbar edota zerbikal patologia duten pertsonen baka-rrik gomendatzea; izan ere, bizkarrezurraren mugimendua lantzen da eta hori oso lagungarria da osasunarentzat, indartzeko. Baina edozein pertsonari zuzenduta dago.

### Egokia da beste kirol edo ariketa batzuekin konbinatzea?

Noski, oso aberatsa da. Beste ariketa mota batzuk elkarren osagarri izan daitezke bizitza osasuntsua eramateko. Pilatesarekin, malgutasuna eta indarra lantzen da, eta oso onuragarria izango litzateke erresisten-

tzia kardiobaskularra lantzen duten beste ariketa edo kirol batzuekin tartekatzea.

### Talde murriztuak dira.

Bai. Taldeak, gehienez, lau pertsonakoak dira. Horrela, errazagoa da gabeziak identifikatzea eta hauek indartzea. Gainera, tratu pertsonalizatua eta gertuko eskaini nahi dugu, talde handietan zailagoa baita pertsona bakoitzaren beharretara egokitzea.

### Sare sozialetan aktiboak zarete.

Bai. Facebooken orrialde bat dugu eta bertan, gure estudioaren argazkiak eta informazioa partekatzeaz gain, pilatesaren inguruko informazioa zabaltzen dugu: zer den, ze onura dituen... Sare sozialetan gain, Uarkapen dagoen Irudi Sport gimnasia hurbildu daiteke gure estudioan interesatuta dagoen edonor informazio gehiago eskuratzeko.

### Nola egiten diozue aurre proiektu berri honi?

Ilusio eta gogo handiarekin hartu dugu. Urte asko daramagu biok gimnasio batean lanean, baina estudio berri honek zerbitzu berri eta espezializatuagoa eskaintzen du, eta hori erronka handia da guretzat.

**"GAUR EGUNGO GIZARTEAN, GURE GAITZ GEHIENAK BIZKARRAREKIN LOTUTA DAUDE"**

**"GURE ESTUDIOAN TRATU PERTSONALIZATUA ETA GERTUKOA ESKAINTZEN DUGU"**



*Zure bizkarrak definitu egiten zaitu  
Bizkarrezur malgua edukita,  
gazte sentituko zara  
Pilateseko talde txikiak Makinekin  
Profesionalen eskuetan jar zaituz!*

Uarkape 2 behea • ARRASATE • 688 60 46 38

# Zuzeneko marrazketa saioa martitzenean

'Dzirt-dzart' izeneko zuzeneko marrazketa saioa Arrasatera helduko da abenduaren 3an. Arratsaldeko zazpitan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, Alazne Zubizarreta eta Julen Ribas artista arrasatearrak zuzenean marrazten ikusteko aukera egongo da

## Amaia Aranegi ARRASATE

Komikiguneak antolatu duen udazken honetako bigarren *Dzirt-dzart* saioa Arrasaten izango da, Arrasateko Bibliotekaren lankidetzarekin. Bertan, Alazne Zubizarreta eta Julen Ribas artista arrasatearrak parte hartuko dute, eta Iraitz Agirre aurkezle lanetan arituko da.

Irailen Usurbilen egin zen marrazketa saio hori eta udazkenean Arrasaten egiteko proposatu zioten Bibliotekari; honela dio Arrasateko Bibliotekako langile Asun Agirianok. "Komikiguneko kideek saio hau Arrasateko Bibliotekan egiteko proposatu ziguten. Guk geuk komikiaren inguruko saioak egin izan ditugu eta gurekin kontaktuan jarri ziren ekintza hau antolatzeko. Ideia ona iruditu zitzaigun eta Arrasateko artistak bilatzen hasi ginen".

Hain zuzen ere, Alazne Zubizarreta erakusketetan parte

hartu izan du eta Julen Ribas komikigile sendoa da, komiki ugari argitaratu izan ditu. Horregatik, bi artista horiek batzea erabaki zuten, Iraitz Agirrerren esanetara marrazten aritzeko.

## Saioaren dinamika

Saio berritzaile honen dinamika bertso saio baten antzerakoa izango da: Iraitz Agirrek gai desberdinak jarriko ditu eta Zubizarretak eta Ribas batabatean marrazten arituko dira. Ariketa bitxiak burutzen jarriko dituzte komikigileak: minututan neurtutako ariketak, bata bestearen atzetik komikia osatuz *segidilla* baten gisan, eta abar. Izan ere, saioa ohiko formatuan egingo den arren, saio bakoitzak izatez dakarren freskura nagusi izango da honako honetan ere. Hainbat ariketa egin beharko dituzte eta gerturatuko den publiko gazte eta helduaren parte hartzea sustatuko dute.



Dzirt-dzart saioan komikigileek egindakoa. KOMIKIGUNEA

## Zarzuclaren 20. urteurrena ixteko, azken bi emanaldiak

Aurreko astean estreinatutako 'El dúo de La Africana' obra ikusteko aukera izango da gaur eta bihar

## A.A. ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak hogeigarren zarzuela estreinatutako zuen aurreko astean, arrakasta handiz. Duela hamabi urte egin bezala, *El dúo de La Africana* obra eraman zuten taula gainera, baina oraingoan, berrikuntza ugariarekin datoz. Inoiz zarzuela bat ikusi ez duen pertsona bantentzako, lehen esperientzia polita dela adierazten du protagonista papera egiten duen Mikel Irizarrek: "Oso dinamikoa da, oso alaia, eszenan momentu asko daude eta argiak eta jantziak oso

aberatsak dira. Osotasunean ikuskizun polita da eta jendeari asko gustatu zaio".

Gaur 20:00etan emango dute emanaldia eta bihar 19:30ean izango da. Irizarrek penarekin egingo die aurre azken bi saioei: "Pena ematen dute azkenengo momentuek, baina, egindako lan guztiaren ondoren jendea gustura gelditzen bada, hori da guretako garrantzitsua".

Sarrerak [www. arrasate.eus](http://www. arrasate.eus) atarian eta Amaia antzokiko leihatilan egongo dira eskuragarri.

Nik aukeratzen dut

# BLACK FRIDAY

AZAROAREN 28tik ABENDUAREN 1era arte

# BEZA\*

OPARITZEN DIZUGU

Elektronikan eta Etxetresnetan \*\*

\*\* Hautatutako etxetresnak eta elektronikako produktuak, Black Friday-ko prezio eskusiboak badituzte, promoziotik kanpo geratzen dira.

Eta -% 30\* arteko deskontua beste sekzio askotan  
Informazio gehiago: [eroski.es/eus](http://eroski.es/eus)

Hipermerkatuak

**EROSKI**  
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30  
[supermercado.eroski.es/eus](http://supermercado.eroski.es/eus)

\* Kalkulatu gure prezioak 2019ko azaroaren 28tik abenduaren 1era bitarteko denbora tartean. Gure prezioak 2019ko azaroaren 28tik abenduaren 1era bitarteko denbora tartean. Gure prezioak 2019ko azaroaren 28tik abenduaren 1era bitarteko denbora tartean. Gure prezioak 2019ko azaroaren 28tik abenduaren 1era bitarteko denbora tartean.



Garratze baserriko lurretan basurdeek eragindako kalteetako batzuk. RUBEN GARTZIA

# Basurdeek eragindako kalteagatik kezkatuta

Gogor ari dira jotzen zenbait auzotan, eta lur jabe batzuek erakundeetara jo dute kexu. Gantzagako Ruben Gartziak, adibidez, kalte-ordainak eta basurde populazioa kontrolatzeko neurriak eskatzen ditu; erraz ez dagoela diote Udalak eta ehiztariak

**Julen Iriondo** ARAMAIO

"Zelai guztiak zeharo txikituta ditugu, ez dut behorak nora eramane". Gantzagako Garratze baserriko Ruben Gartziaren berbak dira, haserre eta inpotentzia berbak. Urteak dira basurdeekin arazoak dituztela; 2011n hasi ziren "fuerte", baina dio aurten eta aurreko urtean "jasanezina" bihurtu dela egoera. Basurdeek beldurrik ere ez dutela dagoeneko: "Egunez ere ikusi ditut nik, sei metrora eduki nuen bat neure ondoan".

Gartziak dio 2.000 eurotik gorako "aberia" duela bere lurretan: "Ez digute ezer ordaintzen kalteengatik. Traktorea hartu behar dugu, konpondu, belar hazia erosi -eta benetan da garestia!... Eta, gainera, ematen diguten irtenbidea da korrontedun hesiak jartzea; nik esan nien: 'Nik ezin ditut hiru hektarea korrontedun hesiarekin itxi neure poltsikotik, eta gainetik kalteak ordaindu'".

Aldundikoekin lauzpabost aldiz egon da: "Diputaziokoei ere

esan nien: 'Gero nahi duzue gazteak anima daitezen lehen sektorean jarraitzea. Bada, horrela, gauden apurrik aldendu gaituzue'. Behorak kendu eta popatik hartzera dena!".

Kalte-ordainak eskatzen ditu Gartziak, eta basurde populazioa txikitzeko neurriak ere bai; dio esan diotela animaliak Parke Naturaletik datozela, eta horrek dakar, besteak beste, baimen bereziak behar direla uxaldiak -batidak- egiteko, ez dela bestela bezain erraza halakorik egitea. Berak, ordea, dio asko bai, baina basurde guztiak ez direla parketik etortzen, eta ehiztariak eskatzen die uxaldiak egin ditzaten basurdeak kalteak sortzen ari diren lekuetan -hain-

**BASURDEAK PARKE NATURALETIK SARTZEAK ZAILDU EGITEN DU UXALDIK EGIN AHAL IZATEA**

bat auzotan ari dira basurdeak-. Berak eta beste zenbait lur jabe Udalean ere sartu dute idatzia, egoeragatik kexu.

**Udala eta ehiztariak**

Mendietako zinegotzi Santi Balantzagatik dio ulertzen duela baserriaren haserre; kalteak ikustera joatekoa zela asteon, Aldundiarekin eta Parke Naturaleko ordezkariarekin, batetik, eta baserriarekin eta ehiztariarekin, bestetik, bilera egin nahi lukeela, baina arazoak ez duela irtenbide errazik: "Basurdea da animalia bat jaberik ez duena, eta libre dabilena". Baina, nolabait, baserriarrak "babestu" nahi lituzketela dio.

Oilogor elkartearen presidente Koldo Jauregik, berriz, dio ehiztariak "ahalegin guztiak" egiten dituztela basurdeen aurka, Parke Naturalagatik dituzten mugak gogoraraziz, eta eguraldiak ere ez duela lagundu dio. Borondatez eta laguntzeko asmoz dihardutela dakar gogora.

## Mendiko federatu txartelak, abenduko azken aste aurretik

Aurten ere gerturatzeko ari da federatu txartelak egiteko edo berritzeko epea. "Zuen lizentzietan aldaketaren bat egin nahi izanez gero edo lizentzia berria ateratzea nahi baduzue, jarri gurekin harremanetan abenduko azken astea baino lehen", adierazi dute Orixol elkartetik. Euren Facebook orrian aurki daitezke ordaindu beharrekoak.

## Martin Abarrategi bigarren, Bertxoko sariketaren finalean

Azaroaren 21ean amaitu zen Bertxoko sariketa. Finalerdiak atzean utzita, lau bertsolari aritu ziren finalean, Gasteizeko Hala Bedi tabernan. Tabernak itzelezko betekada hartu zuen. Bertsoaldi ederrak utzi zituzten Markel Yollerrek, Maddi Agirrek, Martin Abarrategik eta Aroa Arrizubietak. Azken hau nagusitu zen buruz burukoan.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## 'Perretxiko' mota berria Tellamendin



Herritar batek helarazitako argazkian, norbaitek mendi ingurunean botatakoak ageri dira. Tellamendi inguruko argazkia dela dio bidali duenak. "Lotsagarria!", gehitzen du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



NIRE USTEZ

AINHOA ULLIBARRIARANA

## Trikitixa Eguna 2020

Hasierako pausoak ematen hasi zenez geroztik, elkarlana izan da Aramaixoko Trikitixa Eskolaren funtzionamenduaren oinarri. Ikasle, guraso, irakasle zein herriko beste hainbat boluntario eta elkarteren inplikaziorik gabe, ezinezkoa litzateke urteetan zehar gauzatu diren ekintzak aurrera eramatea.

Aurtengoan ere elkarlanean ekin dugu ikasturtea, urteroko zita diren Jubilatuen Eguna zein eskolako jaiaren antolaketan, eta era berean erantzungo diogu esku artean dugun erronkari, 2020ko Debagoieneko Trikitixa Eguna antolatzeko lekukoa gurean baita.

Egun polita eta parada bikaina, trikitixak batzen gaituen bailarako bizilagunak ezagutzeko. Ilusioz eta gogotsu gaude desafiari aurre egiteko, baina orainoan ere herriko talde zein norbanakoen elkarlana beharrezkoa izango dugu, elkarlana baita talde txikiek bultzatutako ekimenen ardatza.

Bide batez, mila esker orain arteko Trikitixa Eskolako ekintza, proiektu zein erakustaldietan gurekin batera elkarlanean aritu zareten denoi!



Kurtzebarri eskolan 1979an sartu ziren ikasleak. MARI KARMEN GUTIERREZ

# Kurtzebarri eskola: 40 urte herriko umeak euskaraz hezten

Erakundeek eta gurasoek bat egin zuten 1979an Colegio Kurtzebarri zen hartan euskaraz ikasiko zuen 25 umeko talde bat egokitzeko. Horretarako lan egin zuten gurasoei aitortza egingo diete abenduaren 4an, pilotalekuan egingo duten jaialdian

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Ikasketa guztiak euskaraz egin zituen lehen taldea orain dela 40 urte sartu zen Kurtzebarri eskolan. Lan handia egin zuten gurasoek eta irakasleek orduan, eta haiek izango dituzte gogoan abenduaren 4an. Eskolara gonbidatu dituzte gaur egungoa ezagut dezaten; gero, bazkaltzera joango dira hainbat; eta iluntzean pilotalekuan egingo duten *Udazkenari agur* jaialdian egingo diete aitortza.

## Boluntario eskaera

1979. urte hartan umeak Almen ikastetxean matrikulatu zituzten gurasoek bilera baterako deia

jaso zuten maiatz inguruan. Hezkuntza zinegotzi zen Karmelo Azkoitiarekin, Almeneko presidente zen Felix Ormaetxearekin eta Colegio Kurtzebarriko guraso elkartearen kide Manolo Zubillagarekin elkartu ziren. "Esan zuten ez zegoela tokirik guztiendako eta beste proposamen bat aurkeztu ziguten; gure artean 25 laguneko talde bat sortu behar

**ELKAR EZAGUTZEN EZ  
ZUTEN GURASOEK  
EGIN ZUTEN BAT  
PROIEKTU HURA  
BULTZATZEKO**

zela Colegio Kurtzebarri joateko", azaldu du Mari Karmen Gutierrezek, haietako guraso batek. Euskara Legea jarri zen abian urte hartan eta une egokia zela euskara sartzeko eskola nazionalan adierazi zieten. "Boluntarioak eskatu zituzten eta une hartan bertan pare bat agertu ginen", gaineratu du.

Txaro Urrutia izan zen pausoa eman zuen beste gurasoetako bat: "Eskola nazionalan ez zegoen euskararik orduan, eta, horregatik, euskara bermatze aldera, euskara zekiten gurasoak gura zituzten; eta bestela, euskararekiko nolabaiteko konpromisoa hartuko zutenak".

Azkoitia zinegotziak argi utzi zien irakasle ona izango zutela umeek. "Ez zigun esan zein izango zen, baina derrigorrezkoa zela proiektu hark aurrera egin zezan irakasle ona. Ekainerako esan ziguten Resu Abasolo izango zela".

## Irakasle Eskolatik zuzenean

Eskoriatzako Irakasle Eskolako lehen promozioa 1979an irten zen, eta haien artean zegoen Resu Abasolo. Irakasle Eskolara joan zitzaizkien Karmelo Azkoitia eta Jose Mari Idigoras zinegotziak Aretxabaleako eskola nazionalerako zituzten asmoen berri ematera: "Euskararekiko konpromisorik ez zuen eskola bat geratzeko arriskua zegoela esan ziguten", azaldu du Abasolok. Irakasle eskaera handia zegoen orduan, eta lehen promozioko haiek ez zuten lana topatzeko arazorik: "Nik, baina, Kurtzebarri etortzea erabaki nuen, zinegotzi haien berbak barruraino sartu zitzaizkidalako".

Ez zuen inolako esperientziarik Abasolok. "Alecopen, Fagorren eta Coprecin lanean jardunda nengoen eta ondoren Almenen A ereduak euskaraz erakusten izan nintzen bi urtez. Inozentzia horretatik hartu nuen erabakia". Hala ere, oso lasai joan zela erabat ezezaguna zuen eskola hartara gaineratu du: "Hasiera-hasieratik izan nuelako erakundeak eta gurasoen babesa".

Inondik inora elkar ezagutzen ez zuten gurasoek egin zuten

bat, eta zelan, gainera, Urrutiaren esanetan: "Ezezagunak eta ezberdinak ginen guraso guztiok, baina elkartasunak lotu gintuen. Batetik, euskaldundu egin behar genuen eskola, erronka zaila eta luzea. Bestetik, eskola duina eta kalitatezkoa nahi genuen, eta horrek ekarri zuen gabeziak zeuden lekuan indarrak jartzea".

## Euskalduntzeko bidea

Colegio Kurtzebarri "bere historia" zuen eta han murgildu zen talde berria. "Gu ez ginen sartu eskolak deituta, alderantziz baizik. Baina ez zen izan inolako liskarrik; gurasoak, esaterako, hasieratik sartu ziren eskolako batzordean", dio Abasolok.

Sasoi hartan, irakasle asko kanpokoak ziren, apopilo zeudenak herrian: "Horietako bi, Antonio eta Mari, oso aurrerakoiak izan ziren eta lan handia egin zuten, ulertu zutelako eskolari buelta eman behar zitzaiola. Horiek erretiratzen jakin zuten". Eta hala, poliki-poliki aldaketari bidea zabaldu zitzaion. "Euskalduntze proiektua aurkeztu zen eta horrek lagundu zuen irakasle euskaldunak sartzeko joatea", dio Abasolok.

Colegio Kurtzebarri izatetik Kurtzebarri eskolarako pausoa hiru bidetan egin zen. Batetik, zegoen 1979an D ereduaren hiru talde hura; bestetik, Haur Hezkuntzan B ereduaren abian jarritzea; eta hirugarrenik, A ereduaren euskara asinatura moduan sartzeko legeak lagunduta. "Hiru



Umeen abesbatza, eguaztenean egindako entseguan. KURTZEBARRI ESKOLA

## Gurasoei aitortza kantuan

Kurtzebarri eskolako neska-mutikoek abestia gertatu dute hasierako talde hartako gurasoei aitortza egiteko. *40 urte Kurtzebarri euskaraz* kantua ikasten jardun dute azken egunotan, eta abenduaren 4an Iturrigorri pilotalekuan eskainiko diete.



bat urtean lortu zen hori. Eta horren ondoren, beste mila proiektu etorri ziren, DBH lortzea, esaterako", azaldu du sasoi hartako lehen irakasleak.

### Bizipen asko

Abasolok ondo gogoan du zela-konpromisoa eta inplikazioa zuten orduko gurasoek: "Amak zein aitak egon ziren konprometituak: batzuk eskola kontseiluan, beste batzuk eskulanak irakasten edo ortuko kontuak erakusten".

Hamaika pasadizo eta bizipen dituzte gordeta barru-barruan: "Neguan hotz handia, eta berogailua ez zebilen. Deitu eskolako gurasoei, eta etxetik ekarri zituzten. Baina guztiak piztuta mantentzeko argindarririk ez zegoen eta instalazio berria egin zen aste bukaeran bertan, kanpotik, kable berriak sartuta", dio Gutierrezek.

Urrutiak, ostera, eskulanak egitera joaten ziren amak ditu gogoan: "Bakoitzak zekiena aporteratzen zuen. Pentsa, ama batzuk sekula buztinarekin ibili barik zeuden, baina segituan jartzen zituzten umeak lanean".



Hainbat guraso mahaiaren bueltan bazkaltzen. M.K.G



Txaro Urrutia, Resu Abasolo eta Mari Karmen Gutierrez. MIRARI ALTUBE

Irteerak egiten zituztenean jasotzen zuen laguntzarekin ere akordatzen da Abasolo: "Kozinatzeraz etortzen ziren, eta asko, ume gazteagoak aldean hartuta", eta Gutierrezek eta Urrutiak gaineratu dute: "Irteera horiei bukaera ematen genien guraso guztiek elkarrekin bazkalduta, eta hori oso polita zen, bizipen asko konpartitzen ziren orduan".

Bi amak eskolan irakasle ere izan ziren. 1979an bertan hasi

zen Urrutia A eredu euskaraz irakasten eta 1993an Gutierrez; orain dela hamar urte erretiratu ziren biak.

Sasoi hartako bizipenak gogora ekartzeaz bat aurrera begiratu gura izan dute eta adi egoteko deia egin: "Kurtzebarri oso sustraituta egon arren egun, herriaren laguntza behar du. Edozein proiektu joan daiteke pikutara erakundeen eta herritarren konpromisoa ez badaude atzean".

## "Gurasoak oso inplikaturak zeuden eta haien indarra sekulakoa zen"

RESU ABASOLO LEHENENGO IRAKASLEA

Irakasle Eskolako lehen promozioko irakaslea hilabete inguru da erretiratu dela.

### Zergatik hautatu zenuen Kurtzebarri?

Nire herriko ikastetxea zelako. Erreparoa handia ematen zidaten gurasoek, eta arduratzen ninduen eskolan bertan topatuko nuenak. Baina, batetik, erakundeek halako apustua egiteak eta, bestetik, gurasoek erakutsitako konfiantza izugarriak bultzatu ninduten erabakia hartzeraz.

### Zelakoak izan ziren lehen urteak?

Lana egin genuen sendo. Gurasoak guztiz inplikaturak ikusi nituen eta haien indarra zen sekulakoa! Guraso guztiak ziren ezberdinak, baina bat egiten zuten proiektuarekin. Ikaragarria izan zen! Orduko indarrak ekarri nau gaur arte, erretiratu naizen arte.



M.A.

### Beste garai batzuk ziren?

Garai gogorak izan ziren; espazio aldetik, esaterako, beti ibili gara justu. Bazkaltzen, Taberna Berrin hasi ginen baserrietako umeekin. Jatetxeko ugazaba Ferminekin hitzarmena egin genuen horretarako. Era berean, gurasoen konpromisoa handia izan zen eta elkarrekin lan egiteak indar handia sortu zuen, geraezina. Sekreturik ez dago. Zenbat eta elkartuago lan egin, orduan eta emaitza hobek; lehen eta orain.

## Jaialdia

Udazkenari aio, neguari kaixo, euskaraz ez bada... ixoo! jaialdia Iturrigorri pilotalekuan, abenduaren 4an, 17:30ean.

### Egitaraua:

- **Adarrarekin deia** jaiari hasiera emateko.
- **Abesbatzaren emanaldia**, 40 urte Kurtzebarri euskaraz.
- **Lekaixo** saioa.
- **Kantua**, Lau teilatu abestia EITB maratoirako.
- **Dantza saioak**, Aho bizi eta Kurtzebarri eskolako dantzak.
- **Talo tailerra** seigarren mailakoek amandreen laguntzarekin.
- **Jatekoa**: mahaien inguruan gaztainak, buzkantzak, sagardoak...

Oharra: Gazta porrako dirua haurren minbiziaz kontrako egitasmora bideratuko da.

## NIRE USTEZ



MIKEL ARROIA

## Sinbolo baten bila

Aspaldixen Whatsappeko perfiletan senyerak eta wiphalak ikusten ditut. Beste kultura zapaldu batzui elkartasuna adierazteko modu polita da.

Geure sinbolua zein ote dan hausnarrien hasi naz eta ez dakit zein aukeratu: lauburua, ikurriña, maindiria...

Abenduan 3a dator eta "euskeria ei da euskaldun egiten gaittuna", baña nola marrazten da hizkuntza bat?

Txantxangorri batekin? Animalixak sarritan erabili izen die naziño baten baloriak adierazteko. Frantsesek oilar harro bat dauke, españolek zezen indartsu bat. Guk... guk ardi latxa.

Eta atxabaltarroi zerk errepresentetan gaittu? Haretx hostua sarritan erabili izen dou, herrixen haretx askoik ez badaukou be... Zalantza barik, berba batzuk badaz geuregeuriak dienak eta hor daukou Urkulu, eta Kurtzebarri, eta UDA...

Ez dakit, ba, esango nauke ez dala samurra sinbolo on bat aukeratzia.

## Abenduaren 3an, auzoetatik plazara euskara ahoan

Goiena komunitatea

Euskaraldia / ARETXABALETA

Euskararen Nazioarteko Eguna begira Aretxabaleto Euskaraldiak herri mailako ekintza antolatu du. Auzoei protagonismoa emango zaie aurtengoan, hortaz, animatu eta batu zaitez zure auzoko blokean parte hartzeraz! Martitzenean, 18:30ean abiatuko dira horiek Santa Kurtzeko plazatxotik eta Loramendi kaletik eta Herriko Plazan egingo dute bat ekitaldi nagusia hasteko, 19:00etan. Sorpresa ugari izango ditugu. Eguraldi txarra eginez gero, osterara, 18:30ean, pilotalekuan elkartuko gara. Jalgi hadi gehiago, gehiagorekin, gehiagotan!

## OHARRAK

### Zinema

*El silencio de la ciudad blanca* filma izango dute helduek gaur (22:00), bihar eta etzi (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, osterara, *El rey león* bihar eta etzi (17:00).

### Erakusketa

Auzokok antolatuta, *Atxabalta anitza* erakusketa izango da abenduaren 4tik Arkupen.

## Jostailu erakusketa gaur komentuan, Algarak antolatuta

Algara ludotekak jostailuen erakusketa jarri du mojen komentuan eta gaur, azaroak 29, izango da azken eguna (17:00).

Horren helburua da jolasen eta jostailuen aukeraketan gurasoei zein hurrei laguntzea, eta erakutsiko dituzte, besteak beste, trebetasun jolasak eta jostailuak, jolas kooperatiboak eta hizkuntza lantzekoak. Gabonen atarian urtero antolatzen duen erakusketa da, eta oraingoan, jostailu berriak erakutsiko dituzte.

Beste urte batzuetan legez, jolas egiteko eta jostailuak frogatzeko txokoa ere egongo da komentuan bertan, eta aholkuak emango dituzte orduan.

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Pintxo onena aukeratzeko lehiaketa asteburuan

Eskoriatzako IV. Pintxo Lehiaketa gaur, egubakoitza, hasiko da, eta, domekara arte, herriko bost tabernatako pintxoak probatzeko aukera izango da. Naira, Toki-Alai, Urrestilla, Akeita eta Compostela tabernak dira lehiaketan parte hartuko dutenak

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako IV. Pintxo Lehiaketa asteburu honetan izango da. Gaur hasi, eta domekan jakingo da zein den edizio honetan aurkeztu diren bost tabernetako pintxorik gustukoena. Aurten, baina, ez dira pintxoak egiten izango domekan Fernando Eskoriatza plazan. Izan ere, personal aldetik ez dela bideragarria argudiatu dute taberneek. Hala, aurtengo irabazleari saria tabernan bertan emango diote, 15:00 aldera, sari-banaketa ekitaldi barik.

Sei taberna ziren parte hartzeakoak, baina, antolatzaileek adierazi dutenez, Mirentxu tabernak ez du parte hartuko. Beraz, Naira, Toki Alai, Urrestilla, Akeita eta Compostela tabernak izango dira parte hartuko dutenak. Parte-hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu dezake, eta ordutegi hauek probatu ahal izango dituzte herritarrek egunotarako egindako pintxo bereziak: 12:00etatik 14:30era eta 18:30etik 21:00etara, hain zuzen –gaur, soilik arratsaldean–.

Eneritz Zubiak, Eskoriatzako Udaleko Garapen Ekonomiko eta Turismo teknikariak, herritarrek animatu gura izan ditu Pintxo Lehiaketan parte hartze- ra: "Edizio honetan zenbait aldatuta egin ditugu, eta ea onerako diren. Aurreko urteetan plazan egin izan dugun ekitaldiak xarma zuen, baina formatu berri honek ere funtzionatuko duelakoan gaude. Hala, ea arrakasta izaten dugun, parte hartzea handia izaten den eta urterotero egiten jarraitzen dugun...".

## Pintxo landu eta bereziak

Akeita tabernak *Bakailpop gure koloretan* izeneko pintxoak egingo du, eta honako osagai hauek izango ditu: bakailoa, oliba-olioa, pikillo piperrak, arrautza, tipulina eta tramezzini ogia.



lax, Fernando Eskoriatza plazan pintxoak prestatzen izan ziren. IMANOL BELOKI

## AURTENGO LEHIAKETAN EZ DITUZTE PINTXOAK EGINGO FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN

Compostela tabernak, berriz, *Udazkeneko zapoak* izeneko pintxoak egingo du. Osagaiak honako hauek izango ditu: txerri-azpizuna, ahate-foie freskoa, ondoak, boilur zuria, Coca-Cola, ardoa, gatz ezkatat, albaka, ezkaia eta basafruituak. Naira tabernak *Txipicake* izeneko pintxoak egingo du, hostorea, txipiroiak, tipula, porrua, piper berdea eta aliolia erabilita. Toki-Alai tabernak, aldiz, *Mendia eta ehiza* izeneko pintxoak egingo du, honako osagai hauek erabilita: eperra, foiea, ondoak, koka-ogia eta tipula. Eta Urrestilla tabernak *Boonba* pintxoak egingo du, honako osagai hauekin: arroz-odolkia, etxeko tomate frijitu, Errioxako *alegriak*, irina, arrautzak eta ogi birrindua.

Eskoriatzako produktuak erabili beharko dituzte pintxo hauek egiteko. Herrian bertan erosi-

tako hiru produktu, gutxienez, erabilitea derrigorrezkoa izango da, eta, gainera, produktuen jatorria publiko egingo da. Pintxo bakoitzak 1,80 euroko prezioa izango du.

## Pintxo onena aukeratzeko

50 euroko bi sari zozketatuko dira bozketan parte hartzen duten guztien artean. Sari bat, parte hartu duten tabernetan gastatzeko; eta bestea, Eskoriatzako edozein dendatan gastatzeko izango dena. Zozketa honetan parte hartzeko ez da derrigorrezkoa izango pintxo guztiak probatzea. Hala ere, pintxo onenaren lehiaketarako botoa puntuagarria izateko, berriz, pintxo guztiak dastatu beharko dira.

## Aurten, bi sari nagusi

Tabernentzako bi sari izango dira aurten: alde batetik, epaimahaiaren saria, 200 euro eta trofeo; eta, bestetik, herritarren saria, 100 euro.

Botoak emateko, tabernetan triptikoak izango dira, pintxo bakoitzaren izen eta osagaiekin, eta abenduaren 1ean 14:30ean amaituko da bozkatzeko aukera.

## Euskarazko jostailuen erakusketa datorren astean izango da

Abenduaren 3an, 4an eta 5ean, euskarazko jostailuen erakusketa izango da kultura etxeko hitzaldien gelan. Hiru egun horietan, 17:00etatik 19:30era bitartean izango da zabalik, eta bertaratzen direnek aukera izango dute euskarazko jostailuak ezagutu eta probatzeko.

2 urte dituzten haurretatik hasi eta adin guztietara arte zuzendutako mahai jolas eta jostailuak bildu dituzte bertan, batez ere, baina izango dira bestelako hizkuntzetan jolastu daitezkeenak eta kooperatiboak direnak, herritarrek ikusi eta probatzeko. Zalantzak argitzeko, Tortolis ludotekako begiraleak izango dira.

## Bakardadeari aurre egiteko kanpaina martxan jarriko dute

Eskoriatza Lagunkoia Taldeak, Udalaren eta Maitia Fundazioaren elkarlanean, bakardadearen aurkako Gabonetarako kanpaina jarriko du abian, *Nire lagun bakardadearentzat postalak* izenpean.

Egitasmoarekin bat egin nahi duten herritarrei zabaldua, lau postontzi irekiko dituzte herriko zenbait lekutan: Laguntza

## OHARRAK

### Proiektzioa, atzeratuta

*Gaurko energia trantsizioak, piztu aldatuta!* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia atzeratu egin dute –urtarrilean izango da–.

### Izotz-pista frontoian

Bihar, zapatua irekiko dute izotz-pista Joseba Iñurrategi pilotalekuan eta abenduaren 15era bitartean egongo da irekita.

### Gabonetako argiak

Abenduaren 5ean, Gabonetako argien piztuera ekitaldia izango da, 19:00 bueltan. Horren aurretik, baina, 16:45ean hasita, zenbait ekintza izango dira plazan.

Zentroan, Erretiratuen Elkartean, udaletxean eta kultura etxean. Bertan postalak jarriko dituzte, eta Gabonetan bakardadea sufritzen dutenei zuzendutako mezu zuzenak edo gai honen gaineko hausnarketak idatzi ahal izango dira.

Kanpainak abenduaren 8tik urtarrilaren 6ra bitartean irautuko du, eta datorren urtearen hasieran gai hau ardatz hartuta tailer bat prestatuko dutela jakinarazi dute Eskoriatza Lagunkoia Taldekoek.

## GORA ETA BEHERA



## Iturriari espraia bota diote

Txakurrek ura edateko prestatuta dagoen San Pedro auzoko goiko parkeko iturria espraiaekin margotuta agertu da aste honetan. Herritar batek GOIENari jakinarazi dionez, margoa fresko zegoen astelehenean; horrenbestez, pintaketa egin berri zegoela adierazi du.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



# Mendiaz gain, balio askotariko irteerak

'Makila eskuan eta ibili basuan' egitasmoak hiru urte bete ditu. Hilean behin mendi irteera bat antolatzen dute; orain arte izan duten erantzun ona oinarri, egitasmoarekin jarraitu gura dute antolatzaileek, eskoriatzarren artean ezagutzera eramateko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako *Makila eskuen eta ibili basuen* taldeak hiru urte daramatza hileroko mendi irteerak antolatzen. Hiru lagun mendizaletasunetik sortutako egitasmoa errotu egin da, eta, erantzun ona izanda, herritar taldetxoak batu eta Eskoriatzako zein bailarako mendi, txoko eta bide berriak ezagutzeko aprobetxatzen dute.

Aisialdira begira sortutako egitasmoa talde irekia da, eta maila askotariko irteerak egiten dituzte. Irteera egiten duten goiz horretan nora joan erabakita aurrez dute arren, moldatu egiten dute, zer-nolako jendea eta gogo dagoen kontuan hartuta. Hala, gogorragoa izan daiteke edo ez.

**Lekuez gain, ohiturak ezagutzuz**

Egiten dituzten irteerak ez dira soilik ibilbide bat egitea. Parte hartzaileekin konpartitzea, lekuekin batera, alde kulturala eta ohiturak ezagutzera ere bada egitasmoaren helburuetako bat adierazi du Lore Diaz de Gereñu egitasmoaren kideetako batek: "Intxortako Jon Etxezarragarekin pare bat irteera egin ditugu, Albertiara eta Jarindora, eta historia ezagutzeko aukera eman digu horrek".



Mairulegorretara egindako irteeran batutakoak. 'MAKILA ESKUEN ETA IBILI BASUEN' TALDEA

## MENDI IBILALDIAK EGITEAZ BATERA, SOZIALIZATZEKO ETA IKASTEKO HELBURUA DU EGITASMOAK

**Makilaren sinbologia**

Egitasmoaren izena bitxia bada ere, horren atzean badago istorio bat. "Intxaur-makila handi bat eramaten dugu irteera guztietara, eta testigu moduan pasatzen diogu hurrengo irteera

antolatzeke interesa duenari. Horrekin batera, koaderno bat ere eramaten dugu hausnarketak idazteko, ibilbideak marrazteko, edo pasarteren bat edo beste idatzita geratu dadin, eguneroko gisa".

**Irteeren berri izateko**

Haurrak eta helduak asko doazen arren, gazteak animatzea ere gustatuko litzaieke taldeko kideei. Hori horrela, interesa dutenek Eskoriatzako Udalaren agendan eta GOIENAREN agendetan izango dute irteeren berri.



Kaxa elektrikoa erreta. JUANITO BENGOA

## Tximista batek zenbait kalte eragin ditu Gaztainuzketan

Pagoederren dagoen antenatik gertu tximista batek lur azpitik doan kablea jo ostean gertatu dira kalteak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Duela bi aste izandako trumoi ostean, zenbait kalte eragin ditu tximista batek Gaztainuzketako mendi-etxeetan. Gatzagako antena Pagoederren dago, eta tximistak 100 metro beherago jo zuen. Bi zuhaitzi jo ostean, lur azpitik doan argindar kableari jota. Hala, kalteak baloratzen ari dira egunotan.

"Tximistak lurrean jota gorantza eta beheantza eragin ditu kalteak. Izan ere, kaxa-elektrikoa hondatuta dago, erreta, eta, horrez gain, Gaztainuzketako mendi-etxeetan gertatu dira kalte

handienak. Zenbait etxetan ere argia joan zitzaigun, beste barik. Termoa eta kableatu guztia konpondu dugu dagoeneko, eta ontzi-garbigailua eta aire girotua geratzen dira konpontzeko...", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako jarduneko alkateak.

**Seguruaren kargu**

"Elkoroko elektrikariak izan ziren kalteak aztertzen, eta, zenbait kalte konpondu ditugun arren, dena baloratzen ari gara, eta, egunotan, Udalak duen seguruari pasako diogu partea", adierazi du Bengoak.



AINHOA BARANDIARAN

## Madrilen asteburu-pasa

Asteburu-pasa izan dira Madrilen Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko bederatzikide. Bertan, *El médico* musikala ikusi, gidari batek lagunduta hiriburua ezagutu... egin zituzten. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu duten ekintzetako bat izanda, hurrengo abenduan izango dute: autodefentsa tailerra.



**ELI SANCHEZ**  
PARTE-HARTZAILEA

"Nire inguruko jendearekin sozializatzeko asmoz hasi nintzen irteeretara joaten. Baita euskararengatik, eta gure inguruak ezagutzeko".



**JONE ETXANIZ**  
PARTE-HARTZAILEA

"Tipi-tapa igotzen gara hilean behin mendira eskoriatzarrok. Berdin da ze eguraldi egiten duen, ez gara etxean aspertuta gelditzen".



**LORE DIAZ DE GEREÑU**  
PARTE-HARTZAILEA

"*Makila eskuen eta ibili basuen* egitasmoan gure inguruak ezagutzen eta errespetatzen ikasten dugu naturarekin bat eginez".

# Errekalde auzo barruko errepide zatia itxita dago

Errekalde auzoko erreka ertzeko errepideko espaloi zatia erortzeko arriskua dagoela eta Udalak bidea ixteko erabakia hartu du. Ezohiko osoko bilkuran, gerakinetik 45.000 euroko diru-partida lanak egiteko bideratzea onartu dute

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Errekalde auzoan, erreka albo-ko horma baten egoera txarragatik auzoko errepide zati bat itxi egin du Antzuolako Udalak. "Erortzeko arriskua dela eta itxi egin dugu. Bertatik autoak igarotzen dira eta horien pisuagatik erori egin daiteke. Bertako espaloia airean geratu da. Izan ere, alboan erreka dator eta uraren higadurak eraginda horma zatia gastatu egin du urak. Azken asteetako euriek ibaiaren ekarria hazi egin dute eta bali-teke horrek ere eragina izatea", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Hala, arazoari irtenbidea eman guran, ezohiko osoko bilkura deitu zuen aurreko asterako Udal Gobernuak; eta udalbatzak aho batez adostu zuen gerakinetik dirua atera eta konponketa lanekin lehenbailehen hastea. "45.000 euroko diru kopurua aterako dugu gerakinetik eta kopuru horrek ahalbidetzen du lanak inolako deialdi librerik egin gabe egin ahal izatea. Helburua da obra azkar egitea, eta, deialdia eginez gero, luze joko luke", argitu du Kortabarriak.

Dena ondo bidean, eta lanak berehala hasita, Gabonen atarirako errepide zatia konpontzea espero du Udalak.



Errekalde auzo barruko errepide zatia itxita dago. MAIDER ARREGI

## UDAL GOBERNUAK ERREKALDEKO ESPALOI ZATIA GABONEN ATARIRAKO KONPONDU GURA DU

**Dirulaguntzak eta adierazpena**

Asteon egin du udalbatzak azaroko ohiko osoko bilkura. Aho batez onartu dituzte hainbat dirulaguntza. Kultura taldeei 7.500 euroko laguntza bideratu-ko zaie. Hala, txistulari taldeak

eta Mairuaren Alardea kultura elkarteak, bakoitzak, 2.050 euro jasoko ditu. Oinarinek, berriz, 3.400 euro. Bestalde, Pausokari 1.400 euro banatuko zaizkio.

A25aren harira, adierazpen instituzionala ere aho batez onartu zuen udalbatzak. Alderdi sozialistak EH Bilduren testuari eginiko ekarpenarekin onartu zuten. Izan ere, Gipuzkoa eta Berdinbidean ekimena lotzen dituen ekarpena egin zuen zinegotzi sozialistak. Alkateak adierazpena "jantzi eta osatu egiten duela" argudiatu zuen.

## Biboteen mugimendua

Movember taldeak antolatutako hitzaldian, prostatako eta barriletako minbiziaz jardun du Juan Pablo Sanzek, Donostiako Ospitaleko Urologia Zerbitzuko zuzendariak. Bihar, Zurrategin, 13:00etan bibotea moztu eta poteoa egingo dute. Helburua da gaitzaren gaineko kontzientzia zabaltzea eta bizitza osasuntsuagoa aldarrikatzea.



MAIDER ARREGI

## Antzuolako arbasoen historia gertutik ezagutzeko aukera

Antzuola eta Soraluze arteko irteera antolatu du Arrola taldeak hilaren 30erako. Ibilbidean dauden monumentu megalitikoak ere izango dituzte ikusgai eta aztergai. 08:30ean abiatuko dira, Olarandik.

"Antzuola, Gorla, Elosumendi, Hirukurutzeta, Karakate eta Soraluze; ibilbide horri lotuta dauden monumentu megaliti-

koekin gozatzeko aukera izango dugu. Bertan ikusiko ditugu trikuharriak, iruinarriak, hilkutzak, tumuluak... Eta baita ere garai hartan antzinako euskaldunak nola bizi ziren. Antzuolaren jatorriarekin bat egiteko aukera izango dugu. Ibilbide lasaia da, entretenigarria bezain ikusgarria. Soraluzetik Bergarara joateko autobus zerbitzu publikoa erabiliko dugu eta Bergaratik Antzuolara, berriz, bidegorria", argitu dute Arrola-ko antolatzaileek.

## Bisita gidatua egingo dute

Antzuolako ezkutuko altxorrek ezagutzeko eta ikusteko aukera izango da zapatuan, abenduaren 7an. Bisita gidatuan parte hartzeko, baina, izena eman behar da aldeztetik 943 796 463 telefonoan edo [turismoa@debagoiena.eus](mailto:turismoa@debagoiena.eus) helbidera mezua bidalita. 12:00etan Antiguako ermitan hasi eta Errukizko amaren parrokian amaituko da bisita.



MAIDER ARREGI

## 2020ko aurrekontu proposamena

Udal Gobernuak 2020ko aurrekontu proposamena aurkeztu die osoko bilkuraren ostean EAJko eta alderdi sozialistako zinegotziei. Beñardo Kortabarriak azaldu du ardatz nagusiak ez direla aldatu eta ildo berean jarraituko dutela lanean. "Lehen sektorea, euskara eta kultura bultzatzen jarraituko dugu eta aberastasunaren gaineko

lanketa ere egingo dugu". Azpimarratzeko proiektuen artean, Plan Orokorra eta Olaran etxeko obra daude. Inbertsio horiek, nolabait, 2020a eta 2021a lotzen dituzte. Horrez gain, Eztalako aldagelaren obra potoloa ere jasoa dago aurrekontuan. Baina diruz horren handiak ez diren inbertsio bi azpimarratu ditu alkateak: "Adreilutik eta

asfaltotik urrunduta, garrantzia eman diogu beste inbertsio batzuei ere. Bi parte hartze prozesu egingo ditugu: batetik, herriko jolasguneen egoera zein den eta nolakoak izan behar duten aztertuko da. Gurasoekin, haurrekin, eskolarekin...batuko gara. Bestetik, Errekalde, Beheko eta Antigua auzoetan zer egin daitekeen horiek biziberritzeko adosten saiaturako gara bertako auzotarrekin".

## Xabier Amurizak bakarrizketa saioa eskainiko du

Euskararen Egunaren harira, abenduaren 3an, Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak bakarrizketa saioa eskainiko du. *Neska bat leku imposiblean* izeneko saioa izango da eta Olaranen eskainiko du arratsaldeko sei eta erdietan. Herritar guztiei gonbidapena egin gura diete Udal Liburutegiak eta Euskara batzordeak.

## Mandalak egiteko lehiaketa abian da, gaztetxoendako

Mandalak egitea modan dago. Hala, herriko gaztetxoek Xinkonak abian jarri duen lehiaketan parte hartu dezakete. Mandalak egiteko platera bertan jaso behar dute, eta gura duten moduan margotu. Egindako lanak abendua baino lehen eramane behar dira Xinkonara. Bertan zintzilikatuko dituzte eta sariak banatuko dituzte.

# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## Bigarren ariketarako gertu

2020an egingo da bigarren Euskaraldia, baina dagoeneko aurkeztu da eta herrietako batzordeak osatzen hasi dira

# *ekidegroup*

## *Euskara gure konpromisoa*

[www.ekide.es](http://www.ekide.es)

Ingeniaritza + fabrikazioa



Kontrol tresnak



Ikusmen artifiziala



# Euskaraldia: bigarren aldia berrikuntzekin dator

2020ko azaroaren 20an hasiko da Euskaraldiaren bigarren edizioa, *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* lelopean. Aurrekoaren ildotik, 'ahobizi' eta 'belarriprest' herritarren ariketaz gain, entitateen parte-hartzea bultzatuko da hamabost egunez

## Amaia Aranegi ARRASATE

Aurreko urtean, euskararen aktibazioaren alde inoiz egin den ekimena ospatu zen Euskal Herrian. Azaroaren 23tik abenduaren 4ra arte, 225.000 lagunek ariketa sozial eta eraldatzaile batean parte hartzeko izena eman zuten eta hamaika egunez hizkuntza ohiturak aldatzeko erronkari heldu zioten.

Lehen edizioak emaitza onak eman zituen; hala adierazi zuten Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, irailean Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren emaitzak aurkezterakoan: "Hasieratik

esan genuen Euskaraldia ez zela joko bat, ez zela jai edo festa bat eta ez zela komunikazio kanpaina bat, hori baino gehiago zela. Hizkuntza ohituretan eragin nahi zuen ekimen berritzaile bat zen. Helburua eragitea izan zen eta horrela izaten jarraituko du hurrengo edizioan". Eragin hori handitzeko asmoz, urrats berriak egingo dituzte edizio honetan.

## Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Aurreko eguaztenean, azaroaren 20an, aurkeztu zuten Euskaraldiaren bigarren edizioa. 2020an ospatuko den Euskaraldiak egun gehiago izango ditu: hamabost

egun izango ditu ariketa sozialak. 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte, Euskal Herrian berriz ere hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimena ospatuko da.

Aurreko edizioan norbanakotan fokua jarri bazuten ere, oraingoan banakako harremanetatik haratago joan, eta taldekako ariketak ere egingo dira. 2020ko udazkenean, entitateek aukera izango dute Euskaraldian parte hartzeko: lantokietan, enpresetan, administrazio publikoan, herrietako batzordeetan, kultur zein kirol taldeetan... eremu horietan ere *ahobizi* eta *belarriprest*-ek hizkuntza ohiturak barneratzeko aukera izango



Euskaraldiaren bigarren edizioaren aurkezpena. EUSKARALDIA

## Elementu berria: ariguneak

Bigarren edizioan garrantzi berezia hartuko duen kontzeptu berri bat sortu da: ariguneak. Euskaraz lasai –trabarik gabe– aritzeko gune, espazio eta taldeei egiten diete erreferentzia. Gune horiek euskara erabili nahi dutenak lasai aritu ahal izatea bermatu eta laguntzen dute, taldeko kideek euskara ulertu egiten dutelako.

Berrikuntza honekin aurrerapauso indartsuago eta sakonagoa emango dela dio Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari Kike Amonarrizek: "Entitateetara goaz. Entitate esaten dugunean, edozein talde egituratu da. Izan liteke enpresa handi bat, txaranga bat, ikastetxe bat edo yoga talde bat. Entitate horietan pertsonak daude, eta orduan, bilatzen dena da euskaraz aritzen diren ariguneak identifikatzea".



**SUV Citroën C5 Aircross**

- HIRI-IBILGAILU ISILA
- 50 KILOMETROKO AUTONOMIA %100 MODU ELEKTRIKOAN IZANDA
- BIRKARGA AZKARTUA 2 ORDU BAINO GUTXIAGOAN
- BIRKARGA DIFERITUA
- BATERIAREN GARANTIA: 8 URTE EDO 160.000 KILOMETRO



EUSKARALDIA, 11 EGUNEZ EUSKARAZ



HAMAIKA EGUNEZ, EUSKARA AHOAN!

dute. Horretarako, entitateetan pentsatuta, arigune kontzeptua sortu dute. Hala ere, bi mota bereizi dituzte: alde batetik, barne ariguneak daude, leku eta talde itxietakoak. Hauek osatzeko bi baldintza bete behar dira: denek euskara ulertzea eta taldeko kideen %80 gutxienez ados egotea.

Barne arigune bat enpresa bateko departamentu bat izan daiteke. Bestetik, kanpo ariguneak izango dira. Herritarrekin harreman espazioetan dauden entitateei eragiten diete eta herritarrek euskaraz artatuak izango direla bermatzen dute leku hauek. Implikazioa, beraz, handiagoa izango dela adierazten du Kike Amonarrizek: "Guk ahal dugun guztietara heltzeko borondatea dugu. Baina horrek ere eskatzen du gizarte eragilean eta erakundeen arteko funtzioak

## 2020. URTEKO EUSKARALDIA: GEHIAGO, GEHIAGOREKIN ETA GEHIAGOTAN

ondo zehaztea, era guztietako entitateez hitz egiten ari gare-lako. Horrek esan nahi du pauso bat aurrera indartsuago eta sakonago emango dugula. Eta hori lortzen badugu aurrekoan lortu genuenaren antzeko tamainan, nik uste dut bide oso indartsua zabalitzen dela euskalgintzarentzat. Eta horrek energia kolektibo ikaragarri handia sor dezake".

### 'Ahobizi' eta 'belarriprest'

Edizio berrian, herritarrek Euskaraldiaren protagonistak izaten jarraituko dute. *Ahobizi* eta *belarriprest* rolak eta hitzunen arteko harremana izango dira ariketaren erdigune berriro ere. Baina dinamika zabaldu eta sakontzea du helburu oraingoan; hau da, ekimenera *ahobizi* eta *belarriprest* gehiago bildu eta rolak ongi lantzea.

Horretarako, *belarriprest* eta *ahobizi*-ak prestatzen jarraitu eta figura hauek zer diren azalduko dute. Identifikazioari dagokionez, aurreko urteko esperientzia positiboa kontuan hartuta, aurten ere txapak erabiliko dira bakoitzaren rola zein den



Euskaraldiaren lehen herri batzarra, Arrasaten. GOIENA

jakiteko, aspektu honetan ez da aldaketarik izango.

Antolaketa ereduari dagokionez, herriz herri sortutako batzordeek –aurreko edizioan 405 udalerritan izan ziren batzordeak– Euskaraldia bultzatzeko oso garrantzitsuak izaten jarraituko dute. Horregatik, bigarren edizioako antolaketa oinarrian egongo dira berriro ere batzordeak. "Lehen Euskaraldiak zabaldu zuen komunitate zentzua hurrengoan sendotu egin nahi dugu, eta herriz herri sortutako indar hori egonkortzen saiatuko

gara", adierazi zuen Kike Amonarrizek Euskaraldiaren bigarren edizioaren aurkezpenean. Irailan irekin zen herrietako batzordeetan izena emateko epea eta Debagoienera jada ari dira lanean.

### Arnasa Gara ekimena

Bestalde, *Arnasguneak euskarari hauspoa ematen* lelopean, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundiek eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) Arnasa Gara ekimena abiatu dute.

Helburua da euskararen arnasguneetako biztanleen ahalduntzea, aitortza eta kontzientziario indartzea. Arnasguneak euskaldun portzentaje handia duten herriak dira, euskaraz bizi direnak.

Belaunaldiz belaunaldi hizkuntza jaso dute eta hurrengo transmititzen diete era naturalean, eta horregatik dira garrantzitsuak euskara indarberritzeko prozesuetan. Orotara, 22 udalerritan zabalduko dute ekimena; Debagoienera, hain zuzen, bitan.

## Arnasguneak Debagoienera

Euskararen Egunaren egitarauaren baitan, Aramaion gaur, 18:00etan, kultur etxean, egingo dute Arnasguneak euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko ekimenaren aurkezpena. Leintz Gatzagan atzo izan zen aurkezpena.

**60** urte

**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

Gure aktiborik garrantzitsuena pertsonak dira. Ingurune sozialarekin konpromisoa eta gure jatorriak mantentzea dira gure baloreak. Garapen profesional eta sozialak dira Goizperko proiektu guztien helburu nagusiak.

**EUSKARALDIA**

www.goizper.com Tel. 943 786 000



Debagoieneko mintzalagun taldea osatzen duten kideak aurtengo ikasturteko kanpainaren aurkezpenean. IMANOL BELOKI



Ekainean, Auzoko egitasmoaren VI. jaiaren zuten Aretxabaletan. IMANOL SORIANO

# Euskara zabaltzen jarraitzeko gertu

Euskaltzaleen Topaguneak euskararen erabileraren sustapena du ardatz, eta, mintzalagunek herriz herri egiten duten lanari esker, euskal hiztunak ugaritzen joan dira; harreman berriak sortu, eta bailarako herriak euskalduntzeko lanean dihardute

**Imanol Beloki** DEBAGOIENA

*Mintzalagun, berbalagun, mintzakide, solaskide...* Debagoieneko herrien eta euskalkien arabera izen ezberdinak hartzen dituzte mintzapraktika programetan parte hartzen duten kideek. Hala, euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituzten egitasmoak bizirik

dirau bailarako herrietan. Tokian tokiko jarraipena izan duen egitasmoa da mintzapraktika, eta ekimen aberatsa bihurtu da, euskaraz bizitzeko aukera ematen duena.

Aisialdiko jarduera hau, hasiera batean, bospasei laguneko taldeetan kafetegi batean, parke batean, edonon, ordubetetz ohiko gaiez euskaraz hitz egitetik hasi

bazen ere, haratago joan da. Izan ere, euskal hiztunak ugaritzen joan dira, harreman berriak sortu, euskaraz aritzeko gune berriak irabazi, eta herriak euskaldundu. Hala, euskaraz hitz egiteko aukerak hazi egin dira. Hain zuzen, horren erreferente da Debagoienean 200dik gora lagun direla mintzalagun taldeetako kide.

## Hitz egitea baino gehiago

"Ekimen arrakastatsua eta esperientzia izugarria dela adierazten dute partaideek, eta Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan nabarmendu beharreko egitasmoa da, duda barik", adierazi du Eskoriatzako Berbalagunak egitasmoko Iratxe Arrese koordinatzaileak. Izan ere, euskara praktikatzeko baliabide garrantzitsua den arren, elkar ezagutzeko bestelako modu bat bilatu dute mintzapraktika taldeetako kideek. "Azken urteotan, talde berriak ere sortu dira zenbait herritan; *ahobizi* eta *belarriprest* taldea eta *Gurasolagunak* taldea bezalakoak Eskoriatzaren kasuan".

## Auzoko, egitasmo aberatsa

Euskara, aniztasuna eta herri-tarrak, hiru gako horiek barnebiltzen dituen egitasmoa bada

mintzapraktika, Auzoko egitasmoak ere bide bera jarraitzen du, eta elkarrena ezagutzuz, jatorri ezberdinetako herritarren artean, komunikazio hizkuntza euskara izatea erronka izan arren, kulturak eta ohiturek indar handia hartzen dute talde hauetan. Asteroko lanketez gain, herrira zabaltzen dituzten ekin-tzak arrakastatsua izaten dira. Askotan, munduko zenbait janari ezberdin probatzeko eta horiek egiten ikasteko aukera izaten da. Hala, auzotarrak eta auzokideak batzeko bide emanez; betiere, euskara ardatz.

**EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA EMATETIK HARATAGO DOA MINTZALAGUNETAN EGITEN DENA**

**@cenarro**  
cold forming specialists

*Euskaraldiarekin bat!*



# Euskararen Eguna 2019



% 84

ulermen  
maila

% 79

elebitasun  
tasa

230

ikasle euskara  
eskoletan

EUSKARALDIA

Euskaraldiaren  
sustatzaile

## Lanerako aukera berriak sortzen

**FAGOR**   
FAGOR ARRASATE

**FAGOR**   
FAGOR AUTOMATION

**FAGOR**   
Fagor Electrónica

**FAGOR**   
FAGOR INDUSTRIAL

 **COPRECI**

fagoredenlantaldea

 **MONDRAGON  
ASSEMBLY**

 **galbaian**  
intellectual property



Fagor Arrasateko langile bi fabrian. FAGOR ARRASATE

# Lan arloko harremanak euskalduntzea helburu

"Aurrerapausoak" eman diren arren, euskaraz jarduteko "zailtasunak" daude eremu askotan; are gehiago, arlo profesionalean. Lan mundu euskalduna eraikitze aldera, belaunaldi berriak, administrazioa eta herritarren eragite gaitasuna dira "gakoa"

**Jone Olabarria** ARRASATE

Gero eta gehiago dira euskaraz lan egin nahi duten enpresa eta profesionalak, eta lan horretan zeresan handia dute Bai Euskarari Elkartek eta Emun aholkularitza zerbitzuak. Biek ala biek "lan munduaren euskalduntzean eragiteko" lana dute.

Proiektu ugari garatu dituzte lan horretan; *Enpresarean* proiektua edota *Euskaragileak* enpresa batzordea, esaterako. Azken hauek, *euskaragile* direnek, Bai Euskarari Elkartearen eskutik enpresa munduan euskara sustatu eta eredu izan nahi dute. Egun bailarako hainbat enpresak osatzen dute batzorde hori ere: Danobatgroup, Elay, Fagor, Goizper Group, Mondragon Korporazioa eta Mondragon Unibertsitatea.

*Euskaragile* horietako batzuekin lan egiten du Emun aholkularitza zerbitzuak, baita administrazioarekin ere. Lan mundua euskalduntzeko kooperatiba moduan sortu zen eta bereziki euskara planekin lan egiten dute; hau da, langileak euskaraz lan egiteko prestatu eta motibatzea helburu duten

prozesu planifikatuak, erakunde euskararen erabilera indartu eta normalizatzeko asmoz, ahoz zein idatziz, barne eta kanpo harremanetan.

**Zailtasunei aurre eginez**

Aitortu dutenez, azken urteetan "lan izugarria" egin dute enpresa batzuek euskarari dagokionez, baina "beste alde batera begira" jardun dute askok. Diotenez, inguru hurbilean, enpresa gehienek badute euskara plana, baina Euskal Herriari erreparatuta enpresen %1 baino ez da euskara plana daukana.

Azken urteetan "asko" egin bada ere, "lan handia" dago oraindik ere egiteko, Bai Euskarari-ren ustez, baita "espazio ugari irabazteko. Datuek erakusten dute ahoz zein idatziz euskaraz jarduteko zailtasunak daudela, eremu eta maila guz-

**"INGURUKO ENPRESA GEHIENEK EUSKARA PLANA DUTE, BAINA EUSKAL HERRIAN %1EK SOILIK"**



tietan, mota guztietako zerbitzu eta jardueretan, baita lan esparruan eta kontsumo harremanetan ere".

#### Enpresa "iraunkorrek"

Euskarari balioa ematen enpresaren profila galdetuta, Emunetik konpromisoa jarri dute oinarrian: "Orokorrean, tokiko gizartearen eta pertsonen garapenari garrantzia ematen dioten enpresak dira. Normalean, euskara plana daukan enpresak badauka ingurugiroarekiko konpromiso bat ere, edo genero berdintasun gaitan ibilbide bat, bertako pertsonen garapenarekiko inplikazio berezi bat. *Enpresa iraunkorrek* deitzen diegu, aurrera begira dauden enpresa motak dira".

#### Aldaketa garaia

Denak bat etorri dira, "gero eta enpresa gehiago" ari dira euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen: "Aldaketak ari dira gertatzen, eta, pixkanaka, euskara sustatzeak eta erabiltzeak ekar ditzakeen onurez ari

dira jabetzen enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak".

Testuinguru honetan, "administrazioaren esku-hartzea eta herritarren eragite gaitasuna" azpimarratu dituzte Bai Euskarari Elkarterik gako modura: "Denok erabiltzen eta kudeatzen ditugu hizkuntzak gure egunerokoan, eta hori modu batera edo bestera egiteak guztiok bihurtzen gaitu norabide bateko edo besteko eragile".

Emunetik azaldu dutenez, "izugarritzko papera" jokatu dezakete erakunde publikoek, baina ezer baino lehen "eredu" izan beharko lirakeke, eta gizarteak arlo honetan egindako lana nabarmendu nahi izan dute: "Euskal gizarteak erakutsi du herri aktibazioaren gaitasuna zenbatekoa den. Herri mugimenduen ardura da herria aktibo mantentzea, baina gobernu ba-

**"EUSKARAZ MINTZO  
DIREN BELAUNALDI  
BERRIEK EUSKARAZ  
LAN EGITEA POSIBLE  
EGIN BEHAR DUGU"**

tek bere herritarren eskubideak bermatzeko ardura ere badu".

#### Etorkizuneko erronkak

"Ekintzen garaia" datorrela azaldu dute, "neurriak hartzeko eta urratsak egiteko". Era berean, belaunaldi berrien erantzukizuna azpimarratu du Bai Euskarari Elkarterik: "Lan-munduan pausoak ematea da euskarak orain duen erronka nagusia, euskara ezagutzen eta erabiltzen duten belaunaldi berriek ere lan-jarduera euskaraz garatzea ahalbidetu behar da, eta, horretarako, adostasun sozio-politikoak behar da".

Emunetik ere bat datoz, eta argi dute egun dagoena lortzeko lan handia egin dela: "Akatsa litzateke pentsatzea gizartearen euskararen ezagutza areagotu ahala arlo sozioekonomikoa euskaldunduko dela. Ezagutzak berak ez dakar automatikoki erabilera, hizkuntza minorizatuen kasuan are gutxiago. Euskaraz lan egin nahi duenak inoizko aukerarik onenak ditu, baina oraindik asko planifikatu eta kudeatu behar da. Lan handia dago egiteko".



Fagor Arrasateko langileak, 20 urte euskaraz leloarekin. FAGOR ARRASATE

## Fagor Arrasaten 20 urteko lanketa

Euskararen normalizazio plana abian jarri zuten orain dela 20 urte eta "enpresako beste helburuak bezala" kudeatzen dute Fagor Arrasaten, euskaraz lan egiteko aukera bermatzeko asmoz. Erika Mendibil Euskara Koordinatzaileak azaldu duenez, Euskara Batzordetik ezagutza eta erabilera areagotzeko "etengabeko" lana egiten da, "euskara eskoletatik hasi eta gaur egungo kontratazioetako euskara eskakizunetara iritsi arte". Erabilerari dagokionez, martxan jarri izan ditugun ekimenei esker ahozko erabilerak gora egin du: "Azken sei urteetan %36tik %49ra pasa da euskararen erabilera gurean".

"Euskarak familian, eskolan, unibertsitatean... duen erabilerak segida bat izan behar du lan munduan ere. Fagor Arrasatera datorren langile batek euskaraz egin dezake bere lana osorik".

# EUSKARAZ GARA

*Xabier Amurizaren bakarrizketa*

'Neska bat leku inposiblean'

Abenduaren 3an, 18:30ean, Olanen



EUSKARA SENDOTZEKO  
BESTE URRATS BAT

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

# EUSKARALDIA

Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan

**Eskerrik asko  
herritar eta entitate  
sustatzaile guztioi!**



# EGITARRAUA

## AZAROAK 29

### ESKORIATZA

**19:00** KARPAREN irekiera Fernando Eskoriatza plazan.

**19:30** Kontzertu AKUSTIKOA Fernando Eskoriatza plazan.

### ELGETA

**19:30** JON BASAGURENen kontzertua Ozkarbi elkartean. Sarrerak, lau euro.

## AZAROAK 30

### ESKORIATZA

**13:00** KANTU kalejira, herriko kaleetan.

**14:00** Herri BAZKARIA.

**18:00** EUSKAL DANTZA herrikoiak, Fernando Eskoriatza plazan.

**19:00** ERTZAK taldearekin, musika, dantza eta pintura ikuskizuna.

**22:00** KONTZERTUAK, Fernando Eskoriatza plazan.

### BERGARA

**21:00** KANTU AFARIA Arnorekin, Osintxuko Txuringo jatetxean, *Osintxu gaztainatan* egitasmoan.

## ABENDUAK 1

### ARAMAIO

**12:00** Herri LASTERKETA, Bizente Goikoetxea plazan. Adinaren arabera, distantzia ezberdina.

### BERGARA

**12:30** EUSKARALDIAREN aurkezpen ekitaldia, Imanol Ituiño magoarekin, Seminarixoan.



Jon Basagurenek emanaldia egingo du Elgetan. IZAKI GARDENAK

## ABENDUAK 3

### ARAMAIO

**11:15** KANTUZ BIZI ekimena, Alaia erretiratuen elkartekoekin eta eskolako umeeekin, kalejiran.

**14:00** Umeendako IPUIN KONTAKETA, liburutegian.

### OÑATI

**12:00** Batxilergoko ikasleendako *Kaffka* ANTZEZLANA, Santa Anan. Ostean, aktoreekin solasaldia.

**17:45** TXOKOLATE-JANA debalde, Foruen plazan.

**18:00** EUSKAL KANTUAK abestuko dituzte, kontzejupean.

**19:00** *Euskaraldiaren biribilean dantzan* delako PERFORMANCEA, Foruen plazan.

**19:30** Herritarrendako *Kaffka* ANTZEZLANA, Santa Anan. Sarrerak, bost euro.

### ELGETA

**16:30** TXOKOLATE-JANA eta umeendako JOLASAK, Mendizaleen plazan.

**18:30** MAHAI-INGURUA, Euskara Elgetan gaiari buruz, udaletxean.

### ARETXABALETA

**18:30** Elkarteko DEIA, kalejira hasteko.

**19:00** EKITALDI NAGUSIA, Herriko Plazan. Bukaeran, txokolate beroa.

### ANTZUOLA

**18:30** *Neska bat leku inposiblean* BAKARRIZKETA Xabier Amurizarekin, Olanan etxean.

### BERGARA

**19:00** Berexerka taldearen ANTZERKIA eta bideo ESKETXAK, Seminarixoan.

### ARRASATE

**19:00** HERRI EKITALDIA, Biteri plazan. Ostean, TROS taldearen dantza erakustaldia.

## ABENDUAK 4

### OÑATI

**20:00** AFARI TERTULIA Julio Soto bertsolariarekin, Makalena elkartean.

# ikerlan

TEKNOLOGIA,  
GURE  
IZAERA

**ausolan**

Zugandik gertu Bertakoak

Egoitzak

Ikastetxeak

Garbikuntza

Enpresak

Ospitaleak

Kongregazio erlijiosoak

Euskaraldiarekin bat!

# Ipuinek beti dute mezu bat, eta boteretsua sarri

Otsailean, bost urte beteko ditu 'Ipuinen ordua' ekimenak. Ordutik, 70 barikutan izan dira kontalari saioak liburutegian, eta, batez beste, 30 umek hartzen dute parte aldiro. Kontalari boluntarioek egiten dituzte saioak. Zortzi lagunek dihardute gaur egun

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Elgetako neska-mutikoeak gustuko dituzte ipuinak, eta adi-adi entzuten dituzte. Ondo dakite hori kontalari saioak egiten dituzten boluntarioek. Adin guztietako umeendako saioa bakarrik egiten hasi ziren. Kopuru handian eta batez ere adin aldetik alde nabarmenak zeudela ikusita saioa bi txanda egiten hasi ziren 2018ko ekainean. Gaur egun, saioa hiru txanda egiten dituzte; izan ere, adin tartea handitzen joan da.

**Boluntario taldea**

Urteotan guztietan boluntario talde batek egin ditu saioak. 2019an, sei lagun aritu dira kontatzen eta beste lau inaktibo egon dira. Orain, proba egingo duten bi pertsona berri daude taldean, eta gustura jardunez gero gehituko dira ekimenera. Guztiak dira emakumeak.

Ez dira kontalari profesionalak. Gehienak etxean eta etxekoendako hasi ziren ipuinak kontatzen, baina erronka onartu eta ipuinak aukeratzeko, prestatzeko eta kontatzeko lana hartzen dute txanda heltzen zaienean.

**Profesionalen gidaritzarekin**

"Kontalaritza komunikazio ariketa bat da. Trama bakarreko



Maria Mendazona neska-mutikoendako ipuin saioa egiten. ELGETAKO LIBURUTEGIA

## GAUR, BARIKUA, BESTE HIRU SAIO IZANGO DIRA LIBURUTEGIAN, 17:00ETAN HASITA

fikzioa da ipuina, eta pertsonaiak beldur edo desio batetik abiatzen dira beti", azaldu du Maider Galarza ipuin kontalariak egunotan Elgetako liburutegian. Bina orduko hiru formakuntza saio eman ditu, eta zazpi lagunek

hartu dute parte. "Ipuina transformazio baten bidaia da", azaldu du. "Eta beti dago mezu bat. Ipuin batzuk oso boteretsuak dira", ohartarazi du. "Aukeratu behar da zer esan nahi dugun eta nola esan nahi dugun, eta gero, eginean topatzen dira formula egokiak".

Hainbat argibide eman ditu Galarzak Elgetan; horien artean, ipuin bat ahoz kotasunera nola ekarri. "Zer dugu guk liburu batek ez duena? Bada, ahotsa eta gorputza, eta nork bere ahotsa bilatu behar du".

## Izaki Gardenak taldeko Jon Basaguren gaur Ozkarbin

Euskararen Eguneko ekintzei hasiera emateko emanaldia izango da, eta bakarlari arituko da hura

**Goiena komunitatea**

Goibeko / ELGETA

Jon Basaguren eta Izaki Gardenak taldea bor-bor daude azken denboraldian. Izaki Gardenak taldeak jo du Euskal Herriko hainbat gune erreferentzialetan eta lekua egin du euskal musikaren panoraman. Hori horrela, talde egokia da Ozkarbi moduko gune batean jotzeko. Hala ere, eta Ozkarbin formatu txikien aldeko apustua egin denez, bakarlari etorriko da Jon Basaguren.

Lehen aldiz izango da Basaguren Elgetan, eta Izaki Gardenak taldeak atera dituen disko guztietako kantuak joko ditu. "Disko bakoitzetik bat, gutxienez, eta azkenekotik nahikotxo", esan du. Ozkarbi elkartearekin elkarlanean formatu txikian antolatzen dugun hirugarren emanaldia da. Gaurkoa 19:30ean izango da, eta sarrera 4 euro da.



Jon Basaguren. IMANOL SORIANO

egitea gustatzen zait". Inprobisatzea, bertsioak egitea, kontzertua luzatzea edo moztea... Bakarkako formatua malguagoa da, eta gertuagokoa. "Eta Elgetan sor daitezke gauzak, nire ustez", aurreratzen du.

**Bakarlari formatuan, askeago**

Bakarkako kontzertuetan oso aske sentitzen da Basaguren. "Izaki Gardenak taldearen kantuen hezurdura nik sortzen dut. Gitarra akordeak, melodiak, hitzak... Gero, gehitzen dira taldekideen ekarpenak, produkzioa, eta abar... Bakarkako kontzertuetan erronka da kantuak sortu ziren moduan eskaintzea", esan du. Bakarrrik jotzea ere gustuko du. "Taldearekin martxa gaudenean saiatzen naiz askotan ez egiten, tarte handirik ere ez dudalako, baina noizbehinka

## Euskararen Eguna

**Abenduak 3**

• **16:30** Txokolate-jana eta umeendako jolasak. Eguraldi ona bada, plazan; bestela, frontoian.

• **18:30** *Euskara Elgetan belaunaldiz belaunaldi mahai ingurua, udaletxean.*

## Arituagoak direnengandik ikasten

Saroa Bikandi, Virginia Imaz, Bego Alabazan eta Eneko Haritza kontalariarekin egin dituzte urteotan formakuntza saioak Elgetan. Aurten, Maider Galarzaren gomendioak jaso dituzte; horrekin batera, bere egiteko moduak ezagutu dituzte.

Laster izango da berriz ere Elgetan Galarza; izan ere, neska-mutikoendako tailerra ere egingo du.



Maider Galarza, formakuntza saioa egiten, liburutegian. L.Z.L.

## PILOTA TXAPELKETA

**EMAITZAK**

Janire Lazkano-Uxue Larrea / Ainhoa Zeziaga-Maitena Mañarikua **18-11**  
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrera / Zigor Martin-Gorka Bolinaga **18-16**  
Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal / Andoni Elorza-Oskar Sarasua **09-18**  
Zigor Martin-Gorka Bolinaga / Iban Retolaza-Enrike Elkoro **07-18**

**PARTIDUAK, GAUR**

**19:00** Janire Lazkano-Maitena Mañarikua / Ainhoa Zeziaga-Uxue Larrea  
**22:20** Iker Valle-Etor Garate / Andoni Elorza-Oskar Sarasua

## OHARRAK

### Kirol Saria 2019

Gaur da azken eguna Elgetako Debagoiena Kirol Saria erabakitzeko. Interesatuek udaletxean eman behar dute botoa.

### EH Bildu: batzarra

Eguaztenean, abenduak 4, herri batzarra udaletxean, 19:00etan. Gaiak: 2020ko udal aurrekontua eta agintaldiko plangintza.



Miradorea egoera oso txarrean, 2019ko ekainaren 10ean. GOIENA



Begiratokia berreskuratzeko lanak, eguaztenean. J. BEREZIARTUA



Jose Mari Estonba, XIX. mendeko egurrezko erreplika egiteko lanetan. BIONA

## "Lan nekeza bezain polita izan da"

Egurrezko erreplika egingo zuen arutz bat topatzea izan da zailtasun handiena. Zumarragako Biona aroztegiko Jose Mari Estonbak egin du XIX. mendeko begiratokiaren erreplika, erabat artisauna izan den modu baten: "Lan handia izan da, nekeza bezain polita. Borobil formako tartekak eta beirak egokitzeko moldurak egitea izan da nekezena; hori guztia kolatu, fresatu... Oso lan teknikoa izan da". Sekula izan duen enkargurik bereziena izan dela dio: "Gaur egun ez da egiten halakorik apenas... Garai baten, askoz gehiago egiten omen ziren halakoak; lan egiteko modu honetan lehen enkargua izan da nirezat. Profesionalki erronka handia izan da; hori bai, oso egur ona izan dut lan egiteko". Emaizarekin pozik dagoen galdetuta, oso apal erantzun du Estonbak: "Hori beste batzuek esan beharko dute". Bergararrak izango dira azken epaileak, baina erreplikak itxura ederra duenik ezin da ukatu.

# 150 urte geroago, Unzeta etxeko miradoreak sortu zeneko itxura izango du

Garai bateko artisautza-lana egin dute Bidekurutzetako Unzeta etxearen XIX. mendeko begiratokia berreskuratzeko, egurrezko erreplika batekin. Etxearen jabeak arduratu dira obraz eta Bergararentzat dela diote; hurrengo astean ikusgai egongo da miradore berria

### Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur egungo Bidekurutzeta kalearen 46. zenbakian dago kokatuta Unzeta etxea eta eraikineko elementu ikusgarriena da begiratokia. Erdiguneko leku pribilegiatu baten dago, herriko guneko oso ikusgarri baten. Hori bai, denboraren poderioz egurra usteltzen joan eta oso egoera txarrean egon da azken urteetan.

### Lorategi erromantikora begira

Bergarako Unzeta etxea XVII. mendean eraiki zuten, baina gaur egungo itxura XIX. mendean bigarren erdian egin ziren birmoldaketa lanen ondorio da. Garai horretan etxearen jabea zen Juan Jose Unzeta Urkijok, eraikinaren barrualde guztia birgaitzeaz gain, baratza zena aldatu eta loretoki paisajistiko bihurtu zuen; 1870. urte inguruan eraiki zuten ber-

tan, lorategi erromantikoa begira, zurezko eta beirazko begiratoki dotorea. Begiratokiak kalera eta loretoak ematen zuen eta harrizko biribilkatutako eskailera batekin etxea eta lorategia lotzen zituen.

Orduko lorategiaren zati bat Ramon Maria Lili kalea da 2006az geroztik, eta 2001eko Udaleko bulego teknikoak jasotzen duen txosten baten zehazten da ondare aldetik balio handikoa dela begiratokia; XIX. mendeko arkitekturan aditua den Antonio Sama historia irakaslea 2001ean egindako txosten batek jasotzen

**BALIO HANDIKO ONDAREA DA: "KONTU ETA KALITATE HANDIZ EGINDAKOA, ETA DISEINU OSO ONEKOA"**

du begiratokia eta eskailera zaindu beharreko elementuak direla: "Oso originalak dira, kontu eta kalitate handiz egindakoak eta diseinu oso onekoak. XIX. mendean garrantzi handia izan zuen arkitektura mota berezi baten adibide oso onak dira".

### "Begararentzat egiten dugu"

Azken urteetan oso egoera txarrean egon da begiratoki berezia; miradorea berritzeko proposamena aspaldi egin zuen etxearen jabe den Francisco Pons Sorolla Ruiz de la Pradak. Kanpoan bizi arren gertutik jarraitu du prozesu osoa eta ia hilero etorri izan da Bergarara: "Korporazio ezberdinekin aritu gara lanean. Asko kostatu da, ondarea garrantzitsua denez ez delako bakarrik Udalaren eskumena, baina gaur egungo alkatearen bultzada txiki batekin lortu dugu;

eta pozik gaude horregatik. Bergararentzat egiten dugu, eta espero dugu bergararrei gustatuko zaiela. Azken finean, hori da inportanteena", esan dio GOIENARI Francisco Pons Sorolla. Haren seme Ignacio Pons Sorolla arkitektoa da, eta bere sinadura darama proiektuak.

### Jabeek ordaindu dute obra

Ramon Maria Lili kaleko errepeidea egiteko lorategia zatitu egin zen. Orduko desjabetzearen ondorioz bi milioi pezeta inguru -12.000 euro- jaso ziren, eta diru hori Udalak gorde eta berritzaile jabeari eman zion. Izan ere, gainontzeko gastu guztia jabeak ordaindu du; aipatzekoa da proiektuan parte hartu duten enpresa guztiak euskaldunak izan direla. Hala ere, Goitu enpresa izan da obraren arduradun nagusia. "Mira-

**DESMUNTATZEKO, ERREPLIKA EGITEKO ETA MUNTATZEKO LANEK ZAZPI HILABETE IRAUN DUTE**

dorea orduko material nobleekin egin dago, baina birgaitzea ezinezkoa zen material hori oso egoera eskasean zegoelako. Gaur egungo material nobleekin eta garai hartako artisautza-lana oinarri hartuta, XIX. mendeko lan berbera egin dugu", dio Goitu eraikuntzak enpresa arduradun tekniko Mikel Okarizek.

Gaur egungo ekarpen tekniko bakarra izan da tela asfaltikoa jartzea: "Mikro-kondentsazioak saihesteko, inpermeabilizatzeko eta iragazkorra izateko geruza urdin hori jarri diogu. Miradorearen teilatua zinkeko estalpe bat izango da eta azpian joango da geruza". Miradoreak 30 metro kubiko ditu, eta zazpi metroko luzera eta hiru metroko zabalerarekin, gutxi gorabehera. Iroko motakoa du egurra eta elementu metalikoen artean -beirendako babesak, besteak beste- zinka da nagusi. Erreplika muntatuta dago eta azken ukituak falta dira; desmuntatzea, erreplika egitea eta muntatze lanak aintzat hartuta, zazpi hilabeteko lana izan da. Hurrengo astean kenduko dute aldamia, bergarar guztien bistara gera dadin.

# Sudurpeko elkartasunari dirua batzea falta zaio

MovemBer Gara ekimenak bihar egingo duen azken festan biboteen enkantea egingo dute eguerdian Iralan, prostatako eta barrabiletako minbiziaren ikerketa begira dirua batzeko; Pol-Pol tabernako Dunixi Olabarriaren "bibote mitikoa" ere moztuko dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Barrabiletako eta prostatako minbiziari aurre egiteko elkartasun deialdiak geroago eta jarraitzaile gehiago ditu Bergaran. Hala adierazten du azarorako MovemBer Gara ekimenak antolatutako ekitaldiek izan duten arrakastak. Ekintza bereziak antolatu dituzte, eta horren adibide da hilaren 22an Agorrosinen egin zuten spinning saioa: Azkater Pelox Band taldearen zuzeneko musikarekin eta NovemBer Garako dinamizatzaile Joxu Aranaren gidaritzapean, bertaratu zirenei kostako zaie ordubeteko saio entretenigarriagoa egitea bizikleta gainean.



Hilaren 22an zuzeneko musikarekin Agorrosinen egindako spinning saioa. IBAI ZABALA

**Carracedoren eta Irizarren saioa**

Martitzenean, berriz, CIC Bioguneko ikertzaile Arkaitz Carracedok hitzaldia eman zuen, Arrasatekoekin batera iaz batutako dirua zentro horretara bideratu zutelako. Ikusmina piztu zuen Carracedok Seminaxioan eman zuen hitzaldia; 100 bat lagun elkartu ziren Carracedoren beraren eta barrabiletako minbiziaren izan zuten Markel Irizar txirindulari ohia- ren bizipenak entzuteko. Ekitaldi horretan ere ez zen zuzeneko musikarik falta izan, Azkater Pelox beste bi musikarekin igo zen-eta oholtzara.

Carracedok minbiziaren bueltako ikerketaren gaineko azalpenak eman zituen eta horiei aurre egiteko gaur egun dauden teknologiak azaldu zituen. "Hitzaldi oso zientifikoa izan zen, baina aldi berean denok ulertzeko moduko hizkuntza erabili zuen. Jendea oso pozik irten zen, oso saio orekatua izan zelako. Markel Irizarrek, minbiziarekin bizitakoak azaltzeaz gain, emoziotik ere egin zuen berba [aitak bere buruaz beste egin izana ere izan zuen-eta mintzagai] eta Carracedok arlo zientifikoa landu zuen gehiago. Hori guztia gutxi

balitz, gure helbururako diru asko lortu genuen kamisetak eta txapak saltzen. Mundiala izan zen", adierazi du Joxu Aranek.

**Azken helburua, dirua batzea**

Bihar, azaroko azken egunean, borobilduko dute hilabete osoko egitaraua. Ekitaldi bereziak 13:30ean hasiko den biboteen enkantea izango da, eta orduan ere salgai egongo dira txapak eta kamisetak. Ahalik eta diru gehien batzea delako azken helburua, prostatako eta barrabiletako minbiziaren aurka.

## MovemBer Gara: azken ekintzak

**Azaroak 30, zapatua**

- **10:00** Mendi buelta laburra egingo dute, Surra baserriaren eta San Martzialerako bidearen artean.
- **12:00** Musikaz girotutako kalejira egingo dute erdigunean zehar.
- **13:00** MovemBer Gara ekimenean parte hartu duten herritarrek talde argazkia aterako dute, udal pilotalekuan.
- **13:30etatik 14:00etara** Biboteak mozteko enkantea egingo dute Iralan. Enkantea aprobetxatuko dute "bibote mitiko bat" ere mozteko: "Tabernetan diru bilketa berezia dago horretarako; Pol-Poleko Dunixi Olabarriaren bibotea moztuko dugu".
- **14:00** Bazkaria egingo dute Umore Ona elkartearen. Bazkariaren ostean zuzeneko musika egongo da, elkartearen bertan.



Greban dauden langile bi, euren mozioa onartu izana txalotzen. JOKIN BEREZIARTUA

## Mizpirualdeko langileen greban, Diputazioari erantzukizun eske

EH Bilduren mozioak Aldundiari gatazkan ardura hartzeko eskatzen zion; EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten

**J.B. BERGARA**

Azaroaren 25eko bilkuran, indarkeria matxistaren kontrako adierazpena bera baino gehiago, emakumeak nagusi dituen sektore bat izan zen protagonista: erresidentzietako langileak. Bilkura ordu erdi atzeratu zen, Martxantere deitutako kale ekintza zela-eta (ikus 4. orria), eta Mizpirualdeko langile batzuen greba izan zen eztabaidagai nagusia; 120 egun daroatzate greban.

2018ko irailean hasi ziren mobilizazioekin, "lan hitzarmen duin bat" eskatzeko eta, helburu horretarako borrokan, mozio bat sartzeko eskatu zieten udalbatzako alderdi guztiei. Mizioan langileen eskaera nagusia zen Diputazioak ardura hartzea gatazkaren konponbidean. EH Bilduk mozio hori aurkeztu zuen udalbatzaren aurrean, baina EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen; EH Bilduren mozioak

egin zuen aurrera, EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu arren.

**Jarraipen batzorde eske**

EAJren mozioan Diputazioari ardura eskatzea faltan bota zuen EH Bilduk: "Aldundia denean zerbitzuaren arduraduna, ez da zuzena sindikatuaren eta patronalaren arteko gatazka huts moduan ulertzea". EAJk egoiliarren jartzen du arre- ta bereziki: "Sindikatuari eta patronalari akordio batera hel- tzeko eskatu nahi diegu; azken finean, gure egoiliarrek izango dira onuradun nagusiak". PSE-EEk salatu zuen EH Bilduk arre- ta Aldundiarengan jartzen duela gatazkan jarri beharrean.

EAJk jarraipen mahai bat eskatu zuen eta Gorka Artola alkateak gogora ekarri zuen hori bera eskatu zutela Mizpirualde egoitza Diputazioaren ardura izatera pasatu zenean.

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak - Koltxoiak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurri-  
Ateak - Eskailerak -  
Leihoak - Tarimak -  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Registrada N°90/625

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi 8. BERGARA**  
Tel.: 943 76 15 09

# "Bihotzez eskertu nahi diegu bergararrei saria"

**EDURNE GALLASTEGI ETA KRISTINA AGIRRE** ZUBIKUA DENDAKO JABEAK  
Zubikua arropa dendak Gipuzkoako merkataritzaren '10 bitxiak' saria jaso du Gipuzkoako Bazkundearen eskutik; sariagatik "oso eskertuta" agertu dira Zubikuan

**Jone Olabarria** BERGARA

Gipuzkoako Bazkundek antolatuta, Merkataritza Enpresa Sarien 27. edizioaren *10 bitxiak* izendapena jaso berri du Bergarako Zubikua arropa dendak. Gipuzkoako hamar merkataritza-entresa esanguratsuenen multzoan sartu dute denda, bailara bakoitzeke bat; Debagoieneko merkataritza, ostalaritza eta ostatu enpresen artean hautatu dute.

**Nola harrapatu zaituzte aitortza honek?**

Pozik eta hunkituta gaude sariarekin. Balio handia du errekonozimendu honek guretzat; are gehiago, gu bezalako merkatariek direnak aukeratu gaituztela jakinda. Era berean, ezin dugu ahaztu bezeroen papera; lan handia egin dugu, baina bezeroei esker iritsi gara honaino, beraiek mantentzen dituzte ateak zabalik eta dendak bizirik. **Herritarrek ere gerturatu zaizkizue zoriontzera...**

Herritar askok zoriondu gaituzte; kalean, dendara etorrita... Guregatik asko poztu direla esaten digute, eta guretzat oso berezia da, egiten dugun lana baloratzen dutela sentitzen dugu. **30 urtetik gora daramatzazue dendan, une asko bizi izan dituzue...**

Bizitza osoa daramagu Zubikua dendan lanean, eta, orain dela



Edurne Gallastegi eta Kristina Agirre eguztanean dendan. ZUBIKUA DENDA

**"MERKATARITZA-GUNE HANDIAK BAINO GEHIAGO, INTERNET BIDEZKO EROSKETAK DIRA ARRISKUA"**

zazpi urtetik, gu gara dendako jabeak; une latz asko igaro arren, aurre egin diegu beti, eta hala jarraitu nahi dugu.

**Egun, zein da erronka nagusia?**

Erronkak ugari, baina Internet da mehatxurik handiena, mer-

kataritza-gune handiak baino gehiago. Kalte egin ziguten gune handiek, baina, aurrera jarraitu genuen bezala, orain ere aurrera segiko dugu indartsu. Guk ere baditugu gure indarguneak. **Zeintzuk dira bereizgarri egiten zaituzten indarguneak?**

Tratua pertsonalizatua da gurean; Zuzena, kalitatezkoa eta gertukoa. Gure bezeroak ondo ezagutzen ditugu eta haien gustura lan egiten saiatzen gara. Asko estimatzen ditugu, eta bihotzez eskertu nahiko genioke Bergarako herriari sari hau.

## Txakurrendako espazioak aldarrikatzeko, elkarretaratzea

Txakurrendako espazioak "falta" direla diote, eta horien eskaera egin zuten egubakoitzean herritarrek plazan

**J.O. BERGARA**

Txakurrek "ariketa egin eta beste txakurrekin sozializatzeko" "espazio aproposak" eskatu zituzten hainbat herritarrek egubakoitzean, San Martin plazan elkartuta: "Herri barruan lotuta eraman behar ditugu, arauak horrela dioelako, eta aske egoteko eremu edo espazio batzuk behar ditugu herrian". Hala mintzo zen egubakoitzeko kale agerraldian parte hartu zuen Irene Martinezek.



Elkarretaratzearen irudi bat. IBAI ZABALA

**Udalarekin harremanetan**

Udal ordezkariekin ere hitz egin dute gai honen inguruan. "Uler-tzen dutela eta saiatuko direla irtenbidea bilatzen. Hori esan ziguten. Eta pozik gaude erantzunarekin. Bitartean, herrian dauden txakurrek kaka egiteko tokiak handitu edo egokituko dituzte".

**Sare sozial bidez**

Ekainean hasi zen Irene Martinez eskaera hau zabaltzen: "Sinadurak batzen hasi nintzen orduan, *Change.org* webgunean. Irailean, Bergaran Guau!! taldea sortu nuen, Facebooken halako ekintzat bultzatzeko".

## Hainbat obra txiki egingo dituzte herriko baserri auzoetan

Uberako eta Basalgoko pilotalekuetan margotze lan batzuk, Basalgoko Lesarri eta Gallastegi-Torre baserrietara doazen bide publikoak konpontzea eta San Juan auzoko Barrutixiki poligonoan edateko ur sarearen hoditeria berritzea. Horiek egingo dituzte, besteak beste.

Uberako eta Basalgoko udal pilotalekuak margotzeko lanak

esleitu dizkiote Bergara Margoa SL enpresari, 14.239 euroko aurrekontuarekin -BEZA barne-.

Basalgon, Lesarri eta Gallastegi-Torre baserrietarako bide publikoak konpontzeko lanak adjudikatu dizkiote Elurlan SL enpresari, 4.477 eurotan -BEZA barne-. Bukatzeko, San Juango Barrutixiki poligonoan edateko ur sarearen hoditeria berritzeko lanak Asfaltos y Construcciones Morga SL enpresak egingo ditu, 20.724 eurotan.

## XXI. mendera egokitzeagatik, 'bitxi'

*10 bitxiak* sariak XXI. mendeko beharretara egokitzen den merkataritza tradizionala saritzea du helburu. Irudia, izen ona eta balioak proiektatzen dituen eskualdeko merkataritzaren bereizgarri. Pasa den egubakoitzean Donostian egindako ekitaldian saritutako Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa esanguratsuetako bat da Bergarako Zubikua arropa denda.



Gallastegi eta Agirre sari banaketan. ZUBIKUA

## OHARRAK

### 'Klima aldaketa Euskadin' hitzaldia

EAJk antolatuta, hitzaldia izango da zapatuan, hilak 30, UNEDen. 10:00ean hasita, EEEko zuzendari nagusi Iñigo Ansolak eta ingurumen ekonomian aditu Alexander Botok hitzaldia eskainiko dute. Ondoren, mahai-ingurua egongo da.

### Merkatarientzat 2019ko erakusleho lehiaketa

Begarako merkataritza-establezimenduei zuzenduta, izena emateko epea abenduaren 2tik 10ra bitartean, 943 76 10 16 telefono-zenbakira deituta. Abenduaren 5etik aurrera erakusketarako prestatuta egon beharko dute erakuslehoek. Sariak ematerakoan, mezuaren imajinazioa, originaltasuna, argiztapena, berrikuntza eta kalitatea baloratuko dira.



# Mujika, onenen artean Donostiako maratoian

Bergararrak sasoi betean amaitu du denboraldia: domekan, Donostiako maratoian hamabigarren postuan sailkatu zen –Gipuzkoako maratoi txapelketan laugarren izan zen–. Mujikak hamaika minutu ondu zuen iazko maratoko marka (2.31.27)

**Xabier Urzelai** BERGARA

2020ko Hawaiiko ironman probarako sailkatzearekin konformatu ez, eta urriaren 27an Eivissan egindako Espainiako taldekako triatloi txapelketan –half kategorian– parte hartu ondoren, Mikel Mujikak denboraldia luzatzea erabaki zuen: "Iaz ere halaxe egin nuen, baina Eivissako lasterketa egin arte ez nuen erabaki hori hartzeko asmorik. Eivissan, baina, oso lasterketa txukuna egin genuen, ondo sentitu nintzen eta pena ematen zidan oraindik sasoiaren nengoela ikusita denboraldia amaitutzat emateak".

Hala, Bergarakoak Behobia-Donostia lasterketan esku hartu zuen, eta bertan erabaki zuen bi aste geroago egin behar zuten Donostiako maratoian esku hartzea: "Azken batean, etxerako lanak eginda nituen, kalitatezko entrenamendu saioak pilatuta nituen denboraldian zehar, eta azken bi aste horietan ahalegin du nintzen, bereziki, asteburuetan, korrikaldi luzeak egiten".

**Hamaika minutu hobeto**

Bergarakoak joan den urtean egin zuen lehenengoz maratoko distantzia, eta Donostiako proba aukeratu zuen horretarako: "Ironman proba egin aurretik,



Mikel Mujika, ahalegin betean; 3.35era egin zuen kilometroa. M.M.

## MARATOI ERDIA 1.16-AN EGIN ZUEN; BIGARREN ITZULIAN BI MINUTU ONDU ZUEN MARKA HORI

maratoki bat zer zen ikusi gura nuen, eta 2.42ko denbora egin nuen". Aurten, berriz, 11 minutu ondu du iazko marka (2.31.27): "Ez nuen halakorik espero, eta, entrenatzailearekin berba egin da, gure aurreikuspenetan ez

zegoen abiadura horretan lasterketa egitea –kilometroa 3.35era egin zuen–.

Lasterketa hastearekin batera, Mujika hamabi lagunek osatutako taldean sartu zen; lagun batekin hitzartuta zuten erbilanak egingo zituela 25. kilometroraino: "Ondoren, erreleboetan bikain konpondu ginen gure artean, eta azken hamar kilometroetan, ondo nengoela ikusita, erritmoa bizitu eta talde horretatik aurrera egin nuen. Gauza ederra izan zen 12. postuan helmugaratzea".

## Lagunak, proba barruan eta kanpoan

Mujikak dio berezia izan zela Bergarako ikusle asko egon zen lasterketan nabarmentzea. Erretratuan ezkerretik bigarren dagoenak –Imanol Gonzalez– egin zituen erbi-lanak 25. kilometroraino, eta hamabi laguneko taldean egon zen erdian dagoen Juanlu Gomez maratolaria. Eskumako biak entrenamendu saioetako lagun donostiarrak dira.



Mikel Mujika, ezkerrean, lasterketa amaitu ostean, lagunekin. M.M.

## Barberenak 'Afrikanerrak' liburua aurkeztuko du gaur

Angiolillo liburutegiaren 10. urteurrenaren barruko hitzordua egingo dute kartzela zaharrean, 18:30ean

**X.U. BERGARA**

Eneko Barberenak (Arrasate, 1983) *Afrikanerrak* izeneko azken lana erakutsiko du gaur, egubakoitza, kartzela zaharrean (18:30). Hitzordua Angiolillo liburutegiaren urteurrenaren bueltan antolatu dute.

Idazle arrasatearrak aurten argitaratu duen lana da *Afrikanerrak* (Elkar, 2019). Zuzenbidean lizentziaduna, *Gara* egunkarian hainbat ipuin labur argitaratu zituen. 2002an *Igogailuak*, *Dow Jones eta veste droga batzuk* (Apokalifin Elkarte) eta 2004an *Lurrunak ez du oraindik kristala estali idatzi zituen*. Hala, *Afrikanerrak* idatzi aurretik, 2017an, *Periko Solabarria*. *Conversaciones con la juventud* idatzi zuen.

**Etorkezuean kokatua**

Etorkezuean distopiko batean kokatua, Eneko Barberenaren



Eneko Barberena. GOIENA

esanetan, indiferentzien inguruko lana da *Afrikanerrak*.

Hala, eleberria etorkizunean kokatuta dago, non Europak Afrika iparraldea inbaditzen duen, eta Afrikara borrokatzera joan nahi duten bi arrasatearren bizipenak ditu oinarrian.

## Aristiren eta Erkiagaren arteko lasterketa bihar

Bihar, zapatua, egingo dute ikusmina piztu duen Mikel Aristiren eta Lanbro zaldiaren gainean joango den Bakene Erkiaga zaldunaren arteko desafioa; 330 metroko esprint laua izango da, eta Berriatua (Bizkaia) egingo dute lasterketa hori. Desafioaren baldintzak duela 66 urteko berberak izango dira. Eguerdian egingo dute lasterketa.

## 4kote abesbatzaren kontzertua zapatuan Seminarixoa

Laukote hau Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan sortu zuten ahots teknikako ikasle diren lau emakumek. Ibilbide emankorra egin dute orain arte, eta, dagoeneko boskote badira ere, ez diote izena aldatu emakumeen ahots zurien taldeari. Aspaldian, swing alorrean murgildu dira. 19:00etan da kontzertua (8 euro).

## Reyes Azkoitia Sariko pilota partiduak abenduaren 1ean

Oraingo asteburuan, ohiko pilota karteldegiko jardunaldiarekin batera Reyes Azkoitia Sariko partiduak ere jokatuko dituzte Bergaran. Domekan izango dira partiduak, eta Udal Pilotalekuan, Bolun, Angiozarren eta Osintxun jokatuko dituzte norgehiagoka horiek. Kategoria txikietakoko pilotarien partiduak izango dira.

## 'Ufadak' izeneko dantza emanaldia gaur, egubakoitza

Askoa Etxebarrieta zuzendari eta protagonista duen ikuskizun hau flamenko tradizional puruan oinarrituta dago, teknika oso zainduarekin eta sentsazio eta magia giroan. Ikusleek ezagutu ahal izango dute flamenkoa barrunetik, musika minarekin, deserriarekin, poztasunarekin... Emanaldia gaur, egubakoitza, izango da, Seminarixoa (22:00).

# Egin dena jaso, egiten segitzeko

Emakumeen arteko noka aztertu du Ingo Xonau! Oñatiko taldeak, eta horri jarraipena ematea da orain asmoa: erabiliz berreskuratzea. Abenduaren 14an aurkeztuko dute proiektua, Santa Ana aretoan, parte hartu duten emakumeekin batera

## Oihana Elortza OÑATI

Herritar talde baten kezkatik abiatutako proiektua da Ingo Xonau! Emakumeen artean hika, noka, berba egiteko ohitura galten ari dela konturatuta, hori berreskuratzeko eta indartzeko gogoia duen talde batetik. Duela urtebete pasa hasi ziren proiektua martxan jartzen eta datorren abenduaren 14an, Santa Anan, egindako lana eta jasotako emaitzak aurkeztuko dituzte.

## Landa-auzoetan

Udalaren laguntzarekin eta Aho-tsak egitasmoaren gidaritzapean aritu dira. Lehenengo lana diagnosia egitea izan da: egun Oñatiko zenbat emakumek dakiten eta egiten duten hika. "Noka ez da oso ikus-erraza. Herrigunean ikustea zaila da eta baserri-auzoetara joan gara datuak jasotzera. Herriko hamasei landa-auzoetan egon gara. Hamahiru bat herritar ibili dira auzoz auzo hika hitz egiten duten emakumeak lokalizatzen, eurekin harremanetan jartzen, eta horrela joan gara sarea osatzen. Batzuetan, jakintza eta erabilpena ez doaz elkarrekin, eta dakitenak jaso ditugu guk gure diagnosian; 370 emakume, guztira. Landa eremuetakoak dira gehienak; bederatzi dira kaletarrak", dio lanaren egileak, Idoia Etxeberriak.

## Elkarrizketak eta tertulia

Elkarrizketak eginda eta tertulia saioetan esandakoak jasota egin dute diagnosi lana. 54 herritar pasa dira kamera aurretik: 52 emakume eta bi gizon. "Tertulia saioetan, esaterako, gai baten inguruan jardun dute. Elkarrizketetan, berriz, beste ariketa batzuk ere egin ditugu; adibidez, inkesta moduko bat

ere egin diegu, aditzak jasotzeko. Guk zuka esaldi bat esan, eta beraiek noka erabiliz nola esaten duten jaso dugu", zehaztu du Etxeberriak. Hitanoarekin zer esperientzia duten, kanpotik zer jaso duten, ondorengoei erakutsi dieten edo ez edo animaliekin nola berba egiten duten ere, adibidez, galdetu diete.

## Belaunaldien etena

Noka zergatik galdu den edo emakumeen arteko hitanoak mutilen artekoak besteko erabilera eta ibilbidea ez duen izan ere jaso dute txostenean. Elkarrizketatu dituzten herritarrei eurei galdetuta jaso dituzte arrazoietak asko. "Ondorioztatu dugun datuetako bat da oso estigmatizatu egon dela emakumeen artean hika berba egitea. Generoak badu hemen bere presentzia; gizonezkoen artean ondo ikusia egon arren, hizkuntzaren erabilera zatar moduan zegoen ulertuta emakumeen artean, emakumeak "finagoak" izan behar zirela eta zuka erabili, hika erabili ordez. Bestetik, oso eremu intimoetan erabili izan dute hika emakumeek; senideen artean edo konfiantza handiko lagunaren artean. Elkarrizketatu ditugun batzuek esan digute, esaterako, etxekekin bakarrik egiten dutela, senideen artean. Beste batzuek, berriz, landa eremuan soilik erabili izan dute; kalean, ez. Hitanoa baserri giroarekin egonda beti lotuta eta desprestigiatuta ere

**NOKA DAKITEN  
HERRIKO  
EMAKUMEEN  
ARGAZKIA ATERAKO  
DUTE**

bai; are gehiago, emakumeen artean. Gizonezkoek izan dituzte beste eremu batzuk berba egiteko, kirola, soziedadeak eta fabrikak, esaterako, baina eremu horiek ez dira beti emakumeenak izan".

Belaunaldien artean egondako etena ere ikusi da jaso dituzten datuetan. "Auzoak husten joan dira, auzotarrak kalera joan dira. Eta kalera joan diren auzotar horien seme-alabek ez dute transmisio hori jaso. Belaunaldi horiek ez dute ikasi", dio Idoia Etxeberriak.

## Abenduaren 14ko aurkezpena

Filologoak, irakasleak eta feministak daude, esaterako, proiektua martxan jarri dutenen artean. Urtearen hasieran hasi ziren jendea identifikatzen eta jardun libreko saioak eta bakarkako elkarrizketak egiten. Jaso duten material hori abenduaren 14an aurkeztuko dute, Santa Anan, 11:30ean. "Ingo Xonau! proiektuaren nondik norakoak azalduko ditugu, eta egindako ikerketak emandako datuak komentatu. Horrekin batera, hogeitabi minutu irauten duen bideo bat ikusiko dugu, grabatu ditugun testigantzekin egindako ikusentzuzkoa. Parte hartu duten herritarrei euren grabazioaren kopia bana emango diegu USB batean eta txapak ere banatuko ditugu. Ekitaldia irekia izango da, herritar guztiei zuzenduta, denak daude gonbidatuta", dio Etxeberriak.

Ekitaldia Santa Anan izango da, 11:30ean. Aurretik, baina, noka dakiten edo egiten duten herriko emakumeen argazkia atera gura dute. 11:00etan izango da hori, Lazarraga lorategian. Ahalik eta emakume gehien batzea gura dute.



Zubillagako taldea. I.E.



Kanpantxokoak. I.E.



Aurreko mendikoak. I.E.



Arantzazukoak. I.E.



Murgikoak. I.E.



Araoztarrak. I.E.



Olabarrietako eta Arantzazuko herritarrak. I.E.

## "Aditz-taula atera eta ikastaroa antolatuko dugu, noka erabiltzeko"

IDOIA ETXEBERRIA LANAREN EGILEA

Emakumeen arteko noka erabileraren gaineko diagnosis eginda, noka berreskuratzea da herritar talde honen helburua.

### Zer egingo duzue noka bultzatzeko?

Ikerketa egiteko egin ditugun tertuliak eta elkarrizketak [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) webgunean daude jarrita; 400 grabazio inguru. Hori jasota dago, euren ardurapean gelditu da lana.

### Azaldu duzu aditzak jasotzeko ariketak ere egin dituzuela. Zer egiteko asmoa duzue horrekin?

Elkarrizketetan jasotako aditzekin, poltsikoan eramateko moduko aditz-taula edo liburuxka ateratzea da asmoa, erabiltzeko.

### Ikastarorik antolatuko duzue?

Bai, badugu asmoa. Datorren udazkenean, Udalak antolatzen duen Jabetze Eskolaren barruan, emakumeei zuzendutako ikastaroa egitea da asmoa. Egon daitezke gehiago, baina lehenena emakumeendako bakarrik izatea da asmoa.



O.E.

### Orain herritar batzuk elkartzen zarete, tarteka, noka berba egiteko, ezta?

Bai, hori da. Tarteka elkartzen gara eta denbora horretan noka hitz egiten dugu. Gura duena batu daiteke taldera. Abenduaren 14an egingo dugun ekitaldian *Ingo xonau!* dioten txapa batzuk banatuko ditugu, egitaspora batzera gura duten lagunek hartzeko.

### Zer-nolako harrera izan du orain arte egitasmoak?

Oso ona. Gure kezka berri eman genion Udalari eta berehala egin zuen bat ideiarekin. Lanerako ere prest egon dira herritarrak; auzoetan, jendea identifikatzen, esaterako, lan handia egin dute. Auzo guztietan oso ondo hartu gaituzte, baietz esan digute denek. Eskerrik beroenak parte hartu duten denei!

## Aldundiak ezezkoa eman dio Olapotoko zubiko bidegorriari

Teknikoki bideragarria eta egingarria bazen ere, Aldundiak ez du 25 metroko bidegorria ahalbidetu

M.R. OÑATI

Udalak jakinarazi duenez, saiak ez dute fruiturik eman, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez baitu Olapotoko zubian bidegorria egiteko egitasmoa onartu. Udalak hainbat bilera egin ditu Aldundiko Bide Azpiegiturarako ordezkariekin, Udanara doan bide zatia hari dagokiolako, baina ez du berau ahalbidetu.

### Bidegorria 25 metro luzatzea

Gaur egun, 775 metroko luzera du Olabartatik Olaportara doan bidegorriak eta Udalaren proposamena zen Olapotoko zubi gainak hartzen duen luzeran -25 metro- bidegorria egitea, "zubiaren egitura aldatu gabe".

Udalak Ginger Ingeniaritzak enpresari eman zion proiektuaren proposamena egiteko enkargua, eta honek "bidegorria bertatik pasatzea teknikoki bideragarria eta egingarria" zela baieztatu zuen. Proiektu hau aurrera eramateko ahalegin etengabe jarraitzen du Udalak, "bidegorriak zonako irisgarritasunari eta segurtasunari egingo lizkiokeen ekarpenak ikusirik". Aldundiak, gainera, egingo du hainbat bileraren ostean

onartu zuen proiektua "teknikoki egingarria" zela. Proiektu hau aurrera eramatearen gain kostua bere gain hartzeko prest zeuden Udala zein oposizioa.

### Udalaren "atsekabea"

Udaletik adierazi dute "atsekabetuta" daudela Aldundiaren erantzuna jakin dutenetik: "Proiektu honek eragindako buruhausteen artean aukera zegoen obra eta bide mozketak aprobeztatzeko herritarrentzako irisgarriago eta seguruago den bidea gauzatzeko, baina, zoritxarrez, Aldundiak ez du onartu".

### Aldundiaren argudioak

Aldundiko Mugikortasun Sailak, berriz, honela argudiatu du Udalak proposatutako proiektua ez onartu izana: "Kontuan izan behar da zubiaren aurretik eta ondoren bidegorria errepide plataformatik kanpo dagoela, eta, beraz, ez da aproposa zubiaren tarte horretan errepide plataforma elkarbanatzea. Gainera, gaur egungo ibilbidea eraikita dago eta, errepidetik zuzen proposatutako aukera baino 50 metro luzeagoa bada ere, beti izango da seguruagoa".



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

## Ehunº

Galtzontzilo zuluak jantzita dabilta biak eta horrela ibiltzeak ez dakar ezer onik.

Txaketa eta gorbata dotoreekin eta irribarretsu agertzen dira beraien hauteskunde kanpainetako karteletan, baina galtzontziloetan zuloa dute. Eta atzea izaten da aurrearen ispilu.

Aspalditik listurik dauden zuloak dituzte, etengabe tarrantzen direnak eta josi eta birjosi arren, berriz tarrantatu eta handitzen direnak.

Horrelakoxe zuloak dituzte estatu espainiarrak eta frantziarrak eta guk ez dizkiegu galtzontziloetan adabakiak ehunduko inondik inora, guk euskal errepublika ehundu nahi dugulako.

Sortu berria da dagoeneko, Ehun ekimena, auzo eta herri ezberdinetan, pedagogia independentistaren bidez, euskal errepublikaren beharra azaleratzeko helburuarekin.

Hasi da, jada, sukalde lanetan, eltzea sutan, irakiten, duela. Ehuna izateko sortu da, ehun gradura iristeko eta ehunka mila ehuntzeko.

## EAJ pozik, merkataritzaren eskaera onartu izanagatik

Merkataritza sustatzeko plan estrategikoa onartuta, diagnosis martxan jarriko da laster

M.R. OÑATI

Jeltzaleek azken urteotan egingo eskaria onartu du Sozio-ekonomia batzordeak: herriko merkataritza biziberritzeko plan estrategikoa egiteko diagnosis martxan jartzea, hain zuzen. Modu horretan, EAJ "pozik" agertu da: "Merkataritzan zer egin jakiteko ezinbestekoa da gaur egungo egoera ezagutzea".

Jeltzaleek, gainera, azaldu dute askorentzat berandu datorrela onarpena. "Azken urteetan, Oñatiko betiko hainbat denda nola itxi diren ikusi dugu, belaunaldi erreleborik gabe", adierazi du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak. Horregatik, honako hau eskatu du: "Lehenengo pauso honen ondoren eman beharreko guztiak denbora galdu gabea ematea".

Gaztetxoaren sentsibilizazioa ere kontuan hartuko du EAJk: "Ez dugu ahaztu behar gaurko haurrak direla biharko bezero potentzialak eta horiek gabe ezingo duela merkataritzak biziraun". Horregatik, jeltzaleen bozeramaileak zera adierazi du: "Lan asko dago oraindik egiteko eta gure eskuetan dagoen guztia egiten jarraituko dugu urrats horiek denborarik galdu gabe egiteko".

## Talde argazkia eta bibote mozte kolektiboa bihar

Azaroa amaitzean dago, eta, horrekin batera, hilabetez bibotea utzi duten gizonezkoek beratu izateko unea iritsi zaie. Modu horretan, Movember ekimenak azken jaia egingo du bihar, zapatua. Musika, talde argazkia eta afaria izango dira azken jaiko protagonistak, eta bibote mozte kolektiboa ere egingo dute jaiaren parte hartzen dutenek.



Mekalki Aloña Mendiren eta Bosteko Irailiren arteko partidua, Zubikoan. IMANOL SORIANO

## Denboraldiko lehen garaipena lortzeko gogoz

Denboraldian jokatuako partidu guztiak galdu ditu Mekalki Aloña Mendik. Bihar, Aitor Ugarteren mutilek lehen garaipena eskuratzeko aukera izango dute, 18:00etan hasita, Zubikoan. Oñatiarrek Askartza Klaret taldea izango dute aurrez aurre

**Maialen Regueiro** OÑATI

Urri hasieran, denboraldia abiatzeko zeuden Aitor Ugarteren mutilek, eta Mekalki Aloña Mendiko entrenatzailea honela mintzatu zen bigarren maila nazionalean hastear zegoen esperientziatz: "Taldea gogotsu dago maila berrian jokatzeko, baina kontzientzia gara ez dela iazko kategoria eta taldeen maila altuagoa izango dela". Gauzak horrela, eta denboraldian jokatuako sei partiduak galduta, honako hau adierazi du Ugarterek: "Taldea denboraldi hasierako ilusio berarekin dago. Egia da egin ditugun akatsetatik ikasi behar dugula eta mailari neurria hartu behar diogula, hainbat partidu detaile txikien eraginez galdu ditugulako". Modu horretan, Ugarteren mutilek bihar etxeko zaleen aurrean izango dute aukera denboraldiko lehen garaipena lortzeko. Izan ere, oñatiarrek Askartza Klaret taldearen bisita jasoko dute, 18:00etan, Zubikoa kiroldegian.

**Denboraldi-aurre "beltza"**

Ugarteren esanetan, denboraldi-aurrean izandako bizpahiru lesioek asko baldintzatu zuten taldearen denboraldi hasiera: "Denboraldi-aurrea beltza izan zen guretzat. Min hartutako jokalariek poliki-poliki ari dira errekuaratu eta taldea kontziente da %100ean egotera iristen garenean emaitza hobekak lortzen hasiko garela".

**Akatsetatik ikasi beharra**

Ugarterek aitortu du orain arte jokatu dituzten partidu askotan "irabazteko" egon direla: "Baina azkenengo momentuko akats txiki baten eraginez galdu izan dugu partidua eta horietatik ikasi beharra daukagu. Un-

**"TALDEA HASIERAKO ILUSIO BERAREKIN DAGO, BAINA MAILARI NEURRIA HARTU BEHAR DIOGU"**

muno taldearen aurka, esate baterako, aukera asko izan genituen partidua irabazteko, eta luzapenean bi baloi galdu genituen, eta, azkenean, lau puntuko aldeagatik galdu genuen".

**Bihar, zaleen aurrean**

Mekalki Aloña Mendik bihar du denboraldiko lehen garaipena eskuratzeko beste aukera bat. Ugarterek aitortu du taldearentzat "garrantzitsua" dela zapatu batean 18:00etan jokatzeko: "Zubikoan sortzen den giroagatik. Ez da berdina domeka batean 12:00etan jokatzeko edota zapatu batean 18:00etan. Izan ere, zaleen babesak beti laguntzen du partiduan aurrera egitera". Horrekin batera aipatu du taldea "gogotsu" dagoela talde on baten aurka jokatu eta aurrera egiteko, baina egoera honetan partidu bat irabazteak garrantzi bikoitza duela ere adierazi du: "Bolada txar baten ostean partidu bat irabazteak taldearen eboluzioan eragin dezake".

## Sailkapeneko lehen postuari eusteko gogoz dago Ingou Aloña

Ingou Aloñak ez du hutsik egin azken lau partiduetan eta bihar, Gamon taldearen bisita jasoko du Zubikoan

**M.R. OÑATI**

Azken jardunaldian Anoeta taldearen aurka lortutako garaipenarekin (3-4) Gipuzkoako txapelketako liderrak dira Aitor Sanchezen mutilek eta bihar, beste aukera bat izango dute sailkapeneko lehen postu horri eusteko. Izan ere, Ingou Aloñak Gamon Tanatorio Oarso taldearen bisita jasoko du Zubikoan, 19:45ean.

"Azken jardunaldian sailkapeneko lehen postuetan zeuden taldeen aurka irabaztea lortu dugu, entrenamendu saiotan

landutakoa praktikan jarriz eta bide horretan jarraitzea da taldearen asmoa", adierazi du Sanchezek. Horrekin batera, Ingou Aloñako entrenatzaileak taldearen jarrera azpimarratu du: "Taldeen jarrera oso ona izaten ari da denboraldi hasieratik, eta hori entrenamendu saiotan zein partidutan nabaritzen da".

Gamon Tanatorio Oarso taldea sailkapeneko bosgarren postuan dago, jokatuako bost partidatik bina irabazi eta galduta eta bakarra bananduta.

## 'Romantic Sound' kontzertua bihar, 25. urteurrena ospatzeko

Ganbara Abesbatzaren doako kontzertua bihar, zapatua, izango da, 19:15ean hasita, Bidaurretako monasterioan

**M.R. OÑATI**

Ganbara Abesbatza duela 25 urte sortu zuen gazte talde batek, eta, ordutik, entseguek, bidaiek, txapelketek, kontzertuek... bete dute abesbatza honen biografia. Gauzak horrela, eta 25. urteurrenaren azken ospakizun gisa, bihar, zapatua, Ganbara Abesbatzak *Romantic Sound* izeneko emanaldia eskainiko du, Bidaurretako monasterioan, 19:15ean hasita.

25 urte hauetan abesbatzatik pasa diren abeslari eta zuzendari ohien eta gaur egun par-

taide direnekin, 60 pertsonako abesbatza osatu du Ganbarak biharko emanaldirako. Hala, urte hauetan alboan izan dituzten horiei eskainitako kontzertua izango da, eta doakoa.

Biharko emanaldiaren izenak dioen bezala, Ganbara Abesbatzak musika erromantikoa oinarritutako programa prestatu du, eta bi zaitu izango ditu. Azken batean, biharko kontzertuan, azken 25 urte hauetan abestutako obra erromantikoa eta XIX. mendeko musika entzuteko aukera izango da.

## San Andres jaiak ospatuko dituzte Uribarri auzoan

Bihar eta etzi, San Andres jaiak ospatuko dituzte Uribarrin. Bihar, Mikel Alberdik idatzitako Uribarriri buruzko liburua-aren aurkezpena izango da auzoko eskolan. Ondoren, bazkaria, musika eta txokolate jai izango dira. Domekan, 12:00etan, meza egongo da, eta ondoren, Haizpea elkartean luntxa eta bertsolariak izango dira.

## Ipuin kontaketa eta eskulanak egiteko aukera Antixenean

Antixena gaztetxeak Sorgina Txirulinaren ipuin kontaketa antolatuko du domeka honetarako, abenduaren 1erako. 17:00etan Antixenean hasiko den emanaldian musikak ere izango du protagonismoa. Ipuin kontaketa amaitzean, gainera, bertaritutako eskulanak egiteko aukera izango dute, herriko gazte talde batek gidatuta.




## Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz



### Mugikorretarako!

Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!



### Gazteen gaiak

Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko gaiak



### 'IXA' websaila

Formatu bertikalean egin den euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakezu.




### Eta zure edukiak!

ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

# Deskargatu doan!

 APP Store

 Play Store



Lore Etxeandia, Mojategin, Touring taldeko jokalariek presionatzen. GOIENA

## Leintz Arizmendi menderaezin dabil

**FUTBOLA** Ohorezko erregional mailan lider dira, jokaturako bederatzita partiduetatik zortzi irabazi eta gero. "Oñatiarrak batu zaizkigu aurten taldera, eta sendotasuna eman digu horrek", dio Andoni Ezkurak. Bigarren dagoen Urolaren bisita izango dute

**Xabier Urzelai** ARRASATE Emakumezkoen ohorezko erregional mailan, Leintz Arizmendik, oraingoan, ez du kontrariorik: "Lehenengo itzulia amaitzeko hiru jardunaldi geratzen dira, baina geratzen zaizkigun partiduak kontrario gogorren kontra ditugu; hala, lehenengo itzulieren amaieran, Gabonetan, ikusiko dugu non dagoen talde

bakoitza", dio Andoni Ezkurak entrenatzaileak: "Iaz moduan, aurten ere aurrealdean ibiltzea da helburua. Lau onenen artean egon gura genuen liga hasieran, baina egia da iaz baino hobeto gabiltzala".

Izan ere, iaz, Realaren eta Eibarren atzetik egon ziren debagoiendarrak. "Bi talde horiek, baina, gora igo dira. Real zuzenean igo zen gora, liga irabazi zuelako. Eta Eibarrek, ligan bigarren sailkatu eta gero, bizkaitarren eta arabarren kontra hiruko torneo irabazi zuen eta eurak ere mailaz igo ziren. Hala, bi talde horiek hutsunearen ondoren, Leintzekoak kategoriari oilar bilakatu dira. "Tolosaren kontrako partiduan berdindu egin genuen, eta, egia

esan, gehiago merezi izan genuela uste dut, baina partidu bakoitza mundu bat da". Hala, debagoiendarrak zapatuan bigarren postuan dagoen Urolaren bisita izango dute: "Iaz sailkapenaren atzealdean egon ziren, baina taldea indartu dute eta aurten ondo dabilta. Kategoria honek hori du, urte batetik bestera taldeak asko alda daitezkeela, eta bizpahiru jokalarierabakigarriak izan daitezkeela".

**Bergara, atzetik aurrera** Liga makal hasi eta gero berdinketa bat eta bi porrot-, kategoria horretako ibarreko beste taldea, Bergara, oso ondo dabil. Azken zazpi partiduetatik sei irabazi dituzte, eta horri esker sailkapenean geroago eta aurrerago daude joan den astean 4-0 irabazi zieten Itxaudikoei. Asteburuan, berriz, Hernanin jokaturako dute, sailkapenean atzerago dagoen taldearen kontra.

Hala, datorren asteburuan, abenduak zuzian, debagoiendarraren arteko derbia izango da Ipintzan. Asteburu berezia denez, baina, oraindik ez dute ordutegia zehaztu.

### Mondrak eta Bergarak, etxean

Ohorezko erregionalen, etxekoan intereserako asteburu txarra izan zen aurrekoa; hirurek galdu zituzten partiduak.


Oraingo asteburuan, Bergarak (9 puntu) eta Mondrak (9 puntu) jokaturako dute etxean. Arrasatearrek 12. postuan dauden Elgoibarkoak hartuko dituzte Mojategin (zapatua, 16:30), eta bergararrek puntu kopuru berbera (12) duen Oiartzun hartuko dute bihar Agorrosinen (15:30). Berez, ez dira ligako kontrariorik gogorrenak; etxekoek baino garaipen bat gehiago eskuratu duten taldeak dira. Aretxabaletak, berriz, laugarren dagoen Añorgaren (21 puntu) zelaian jokaturako du zapatuan, 16:30ean.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

### ESKUBALOIA Parean dagoen Escolapios bihar Zubikoan

Fagor Industrial taldeak sailkapenean bi postu gorago dagoen Escolapiosen kontra jokaturako du zapatuan Zubikoan (20:00). Oñatiarrek sendotasuna erakutsi dute orain arte etxean, baina etxetik kanpora ez dituzte emaitza onak batu partidu bakar irabazi dute. Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Urdanetaren kantxan jokaturako du zapatuan (19:30, Bilbo).



Linazisoro da hautagaietako bat. GOIENA

### Aloña Mendik liderra hartuko du etzi

Erregional preferentean, ligan bigarren postuan dagoen Aloña Mendik (25 puntu) lider dagoen Beasain (28 puntu) hartuko du domekan Azkoagainen (16:30). Oñatiarrek jardunaldiko ezustekoetako bat eman zuten joan den astean, azken postuan zegoen Oriokoren zelaian galdu eta gero (2-1). Beasainek lortutako hiru puntuko aldea txikitzeko aukera dute orain.



Aloña Mendik Lagun Onaken kontra jokaturako partiduko irudia. GOIENA

### KIROL SARIAK Ibarreko hainbat hautagai Diputazioaren sarietan

Gipuzkoako urteko kirolari onena erabakitzeke sariketara jarri du abian Gipuzkoako Diputazioko Kirol Sailak, eta *Gipuzkoa.eus* atarian klikagarri egon dira hautagai horiek astehena izan zen botoa emateko azken eguna. Tartean, Debagoieneko hainbat kirolari daude, Beñat Rezusta eta Mikel Linazisoro, eta baita Aloña Mendiko mendi saila ere.

# Agurra baino gehiago, ospakizuna izango da

**PILOTA** Zortzi urtez Aspeko pilotaria izan denak herrikideen babesa izango du bihar agur partiduan, Eibarko Astelenan (17:00). Ehun sarrera gorde dituzte herritik joango diren zaleendako. Astelehenean, 'Harmailatik' saioan egongo da antzularra

**Xabier Urzelai** ANTZUOLA

Asteburu berezia izango da Aitor Mendizabalendako (Antzuola, 1983). Berezia eta emozioz betetakoa, zortzi urtez Aspeko pilotaria izan eta gero Eibarko enpresarekin azken partidua jokatu du eta. Xabier Tolosarekin batera osatu du bikotea, eta Julen Retegi eta Iñigo Bikuña izango ditu aurrean.

Eta partidu berezi horretan ondoan izango ditu gertukoak, Antzuolako zale asko izango dira eta harmailatan: "Enpresak hiruzpalau egun ezberdinen artean aukeratzeko esan zidan, eta gauza asko izan nituen kontuan; zapatuan San Andres eguna da Eibarren eta giro polita izango da, Astelena frontoi berezia da, jokaleku ederra; gainera, Antzuolatik gertu dago Eibar, eta urte hauetan jarraitu nauten zaleak pilotalekuan izango dira".

Aspe enpresaren erabakiaren aurrean, Antzuolako aitortu du lehenbailehen agurtu gura zuela: "Ez nuen denbora asko jokatu barik egon nahi".

**Ospakizun moduan hartuko du**

Albiste txarra barneratu eta gero, Mendizabal III.ak ospakizun moduan hartuko du eguna: "Mentalizatuta nago zapaturako, baina momentu berezia izango



Aitor Mendizabal aste barruan herriko pilotalekuan. MIREIA BIKUÑA

da, zalantza barik. Jende asko joango da Antzuolatik eta ospakizun modura hartuko dut eguna; gozatzea, hori da asmoa".

Eibarko agurra ez du berehalakoan ahaztuko, baina ondoren Antzuolan izango du jarraipena: "Elkarte batera joango gara lagunartean, elkarrekin afalduko dugu eta horrela emango diogu amaiera egunari". Bada, pilotari antzularra Goiena Telebistako *Harmailatik* saioan izango da astelehenean (21:30), eta *Puntua*-n elkarrizketa egingo diote datorren astean.

## Eta ondoren... eskuz binakoa

Jaialdiko bigarren partidua eskuz binako txapelketakoa izango da, eta hor, Irribarriak eta Rezustak Ezkurdiaren eta Martijaren kontra jokatu dute. Joan den astean, Aramako eta Bergarako pilotariak oso pattal hasi zuten txapelketa (5-22).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

**Añorga-Aretxabaleta**

Zapatua. 17:30. Rezola.

**Mondra-Elgoibar**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Bergara-Oiartzun**

Zapatua. 15:30. Agorrosin

ERREGIONAL PREFERE.

**Getariako-Mondra**

Zapatua. 16:00. Orio.

**Aretxabaleta-Idiazabal**

Domeka. 16:30. Ibarra.

**Zumaiako-Antzuola**

Domeka. 17:00. Zumaia.

**Aloña Mendi-Beasain**

Domeka. 16:30. Oñati.

LEHEN ERREGIONALA

**Aloña Mendi-Eibartar.**

Zapatua. 17:45. Azkoaga.

**Aretxabaleta-Bergara**

Zapatua. 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

**Aretxabaleta-Urola**

Zapatua. 16:00. Ibarra.

**Mondra-Beasain**

Domeka. 16:30. Mojategi.

**Lagun Onak-Aloña Me.**

Zapatua. 16:00. Garmen.

**Ilintxa-Bergara**

Zapatua. 16:00. Legazpi.

EMAKUMEZKO OHOREZ.

**Leintz Arizmendi-Urola**

Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Hernani-Bergara**

Domeka. 12:00. Hernani.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

**Gernikako-Eskoriatza**

Zapatua. 16:45. Gernika.

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Aretxabaleta-Soloarte**

Zapatua. 17:00. Ibarra.

**Jarrilleros-Mondrate**

Zapatua. 19:30. Portugale.

SENIOR NESKAK

**Laskorain-Eskoriatza**

Zapatua. 20:30. Tolosa.

### ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Fagor Indu.-Eskolapios**

Zapatua. 20:00. Zubikoa.

**Urdaneta-Ford Mugarri**

Zapatua. 19:30. Bilbao.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

**Const. Aloña-Irauli**

Domeka. 12:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIOR.

**Urola-Soraluce BKE**

Zapatua. 17:30. Zumarra.

### SASKIBALOIA

EBA

**MU-Ulacia Grupo ZKE**

Domeka. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA

**H. Bilbao-Alkide. Ointxe**

Domeka. 18:00. Bilbao.

**Mekal. Aloña-Askartza**

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIORRAK

**Bergara Sora.-Antigua**

Zapatua. 16:00. Labegara.

### ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

**Funes-ART Kanpanzar**

Zapatua. 16:00. Funes.

## Gipuzkoarren arteko derbia

**SASKIBALOIA** Joan den astean Baskoniaren kantxan irabazita, (72-79) Mondragon Unibertsitatea hirugarren postuan dago. Domekan, berriz, sailkapenaren erdialdean dagoen Ulacia Grupo ZKE taldearen kontra jokatu dute; gipuzkoarren arteko derbia, beraz (Iturripe, 18:30). Argazkian, MUko Simion baloiarekin, Filipenses taldearen kontrako partiduan.



GOIENA

## HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90. HAMARKADAKO GATAZKAK (3.ATALA)

AZAROAREN 29AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

AZAROAREN 30EAN, ZAPATUAN, 18:30EAN ETA 21:30EAN

GATAZKAK ARRASATEKO AZOKAN, TRAFIKO ARAZOAK, OKUPAZIOA,...

goiena  
Zu hemen zaude.





Alberto Arrabal baritonoa, Arkaitz Mendoza piano-jolea, David Baños tenorea eta Elisa Di Pietro sopranoa. OZENKI ELKARTEA

## Gala lirikoa, opera eta zarzuela zaleentzako

Ozenki Elkartearen eskutik, Alberto Arrabal baritonoa, Arkaitz Mendoza piano-jolea, David Baños tenorea eta Elisa Di Pietro sopranoa izango dira abenduaren 17an, martitzena, 20:00etan, Amaia antzokian; sarrerak –18 eurotan–, online eta antzokian

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari lekukoa hartuta, opera eta zarzuela pieza ezagunekin osatutako gala lirikoa antolatu du Arrasateko Ozenki Elkarteak Amaia antzokian. "Kontzertu formatuan izango da; ia bi ordu iraungo du. Normalean, ez dute elkarrekin abesten, baina errepertorio bat proposatu diegu, eta bakarlari eta duo formatuan abestuko dute", azaldu du elkarreko kide Manu Gallardok.

Udalaren *Arrasate.eus* atarian eta Amaia antzokiko leihatilan eros daitezke sarrerak, 18 eurotan; elkartera idatzita ere –*ozenkielkartea@hotmail.com*– sarre-  
rak gordetzea eska daiteke.

**Emanaldia, bi zatitan banatuta** Publikoak gozatzea dutela helburu nagusi azaldu du Gallardok, eta horretarako kantu ezagunekin osatu dutela kontzertuaren kantu-zerrenda: "Guztiak ez badira, ia guztiak, ezagutuko dituzue gehienok, eta askok kantatu ere egingo duzue, seguru".

Errezitaldi lirikoa bi zatitan banatu dutela gaineratu du: "Lehenengoan, operari eta *napolitanei*, hau da, Italiako kantu herrikoiei, egin diegu lekua, bereziki; eta atal horretan abestuko dituzte, besteak beste –batzuetan bakarka eta beste batzuetan binaka–, *La Bohème*, *La Traviata*, *Turandot* eta *Car-*

*men* operetako aria garrantzitsuenak. Bigarren zatian, zarzuela izango da protagonista. Ikaragarri gustatzen zaigu zarzuela eta eskualdean, orokorrean, zale asko daude, eta horregatik lekua egin gura izan diegu gala lirikoan. Atal horretarako ere kantu ezagunak aukeratu ditugu; horien artean, *Soto del Parral*, *Luisa Fernanda*

### "ERRAZ ENTZUTEN KANTU EZAGUNEKIN OSATU DUGU GALAKO ERREPERTORIA"

MANU GALLARDO, OZENKI ELKARTEA

eta *La tabernera del puerto* obretakoak".

### "Puntako abeslariak"

Horrelako ekitaldietan ohikoa den moduan, Amaia antzokian hiru ahots nagusiak – tenorea, baritonoa eta sopranoa – izatea gura zuten antolatzaileek, eta goi mailako abeslariari proposatu zieten: "Batzuk aurrez Amaian izandakoak dira eta beste batzuk gurera ekartzeko aspaldiko nahia genuen. Agenda konplikatuak dituzten arren, lortu dugu guztienak bateratzea; hortaz, oso eskertuta gaude eurekin".

### Aurrera begirako asmoak

Gabonetako galaz gainera, beste ekitaldi batzuk ere antolatzen ari direla aurreratu du Gallardok: "Oraindik ez dago guztiz lotuta, baina gure asmoa da *Cavalleria Rusticana* opera ekartzea Arrasatera otsail edo martxo inguruan. Era berean, Debagoieneko beste elkarte batzuekin elkarlanean ari gara; besteak beste, Bergarako Musika Eskolarekin, ea sortzen ari diren azken musikala ere gurera ekartzea lortzen dugun".

## Parisko Lion's Law oi! taldea bihar Oñatiko gaztelekuan

Yugular eta Tilikum ere oholtza gainean izango dira; bukatutakoan, Itturri tabernan DJ Motherfucker

### A. Aranburuzabala OÑATI

Frantziako taldea oso estimatua da punk-oi! estiloa gustuko duten zaleen artean. Europan eta munduko herrialde askotan izen handia dauka. Zortzi urteko ibilbidean, hiru disko dituzte kalean; horrez gainera, orain dela gutxi argitaratu duten EP bat ere bai. Oñatiko gaztelekuan izango dira bihar, zapatua, 22:00etan hasita.

### Talde berria, eskarmentuarekin

Hodei Beitia –Arkada Social eta Des-kontrol– abeslariak, Ibi –Non Servium– gitarra-joleak eta Xabik –Kaotiko– osatzen dute Yugular hirukotea. Orain dela urtebete eskas sortu zuten eta punk, hardcore eta oi! estiloak dituzte oinarrian. Disko labur bat eta orain dela gutxi argitaratutako *Verdugo de verdugos* lan luzea dituzte.

Taularen gaineko hirukoa bo-robiltzeko, herriko Tilikum taldea gonbidatuko dute gaztelekura; eta bukatutakoan, Itturri tabernan jarraituko dute jaia, DJ Motherfuckerrekin.

### Sarrerak aurrez salgai

8 eurotan eros daitezke aurrez, *Oñati.eus* atarian, eta 10 eurotan, leihatilan erosiz gero.

## AZOKAN GAUR

DURANGOKO AZOKA TELEBISTAK EKOIZTUTAKO SAIOA  
ABENDUAREN 5ETIK 8RA, 21:30EAN ETA 22:45EAN  
EGUNEZ-EGUN DURANGOKO AZOKAREN BERRI

goiena  
Zu hemen zaude.





# Katalunia eta Euskal Herria batzeko ekimena

'Escamot català' izena duen ekimena laugarrenez helduko da Elgetara, abenduaren 7an; ohiko dantza saioaz gain, hitzaldi-tertulia eta bestelakoak izango dira, Herrixa Dantzan-ek, Elgetako Udalak eta Elgetako Gure Esku ekimenak elkarlanean prestatuta

**Aitziber Aranburuzabala** ELGETA  
Kataluniako dantzazale talde batek orain dela bost urte sortutako ekimena da *Escamot català*; euren helburua abenduko zubian Euskal Herrira musika-riak eta dantzariak bisitan etortzea da, eta herri horietan dantzaldiak sortzea. Antolatzaileen esanetan, urtetik urtera arrakasta handiagoa dute Kataluniako eta Euskal Herriko dantzazaleen artean, saioetan sortzen duten dantza-giro ederragatik. Hogeita hamasei lagun etorriko dira aurten *Escamot català* irteeran Euskal Herrira, eta hiru geltoki izango dituzte: Iruñean abenduaren 6an lehenengoa, Elgetan hurrengo egunean eta Nafarroako Lakabe herrian abenduaren 8an.

**Dimentsio politikoa, aurten**  
Ohiko dantza-giroaz gain, dimentsio politikoa ere eman nahi izan diote aurtengo topaketari; hori horrela, Katalunian bizitzen ari den egoerari buruzko hitzaldi-tertulia prestatu dute udal-txean, 13:00etarako, eta, ondoren, Mendizaleen Plazan *L'estaca* kantua elkarrekin abesteko proposamena egin dute. Arratsaldean, berriz, dantza izango da egitarauko protagonista nagusia: "Kataluniako dantzei buruzko



*Escamot català* taldeko kideak Espaloia antzokian. GOIENA

## DANTZA TAILERREAN PARTE HARTZEKO IZENA EMAN BEHAR DA; BESTE EKITALDIAK IREKIAK DIRA

ikastaroa jasoko dugu Espaloia antzokian, Joan Codina Vilaren eskutik. Tailerrean parte hartu gura dutenek *Elgeta.eus* atarian eta Elgetako udaletxean eman beharko dute aurrez izena, eta 5 euro dira ordaindu beharre-

koak. 20:00etan, dantza saio irekia eta doakoa egingo dugu, hiru hilean behin egiten dugun moduan; zuzeneko musikarekin, oraingoan. Europako mendebaldeko folk dantzaldietan eta gurean ohikoak diren dantzak – borobila, *chapellose*-a, kontradantzak, pasodoblea...-, Okzitaniko sokak eta korro-dantzak eta Kataluniako askotariko dantzak egiteko asmoa dugu".

Dantzatzeko aukeraz gainera, jateko eta edatekoak ere izango dira Espaloian; besteak beste, talo ekologikoak.

## Koultur Ostegunak kontzerturik ez da izango datorren astean

The Capaces, Sua eta Brahman musika taldeak izango dira, hurrenez hurren, Arrasateko gaztetxean abenduan

**A. Aranburuzabala** ARRASATE  
Datorren eguna jai bezpera izanik, Kultura Ekintzak ekimena ez du saiorik antolatuko; hori horrela, abenduaren 12an izango da lehenengoa, The Capaces taldearen eskutik.

Antolatzaile taldeko Iker Barandiaranek dio hirugarren aldiz gonbidatu dutela aurten hogeigarren urteurrena ospatzen ari den Katalunako The Capaces taldea: "Euskal Herrian bira egingo dute eta argi zuten Arra-

satera etorri nahi zutela. Martillo izeneko *frontwoman* indartsuaren taldeak punk-rock oso azkarra egiten du, eta hardcorretik ere hurbil dago".

**Bizkaikoa eta Japoniakoa**  
Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketako irabazle Sua taldea izango da hurrengoa: "Euskal musika eszenan sorpresa izan da talde hori, post-rockaren eraginak ditu, elektronikoak ere bai... Urtea borobiltzeko, Japoniako Brahman taldea etorriko da".

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko azaroko sariak!

#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia  
Parte hartzeko azken eguna: abenduaren 5era arte



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

**ARRIKRUZ**  
SARRERAK



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremanak.org](http://www.harremanak.org)  
Eskatu Merkataritza produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LFPD 15/1300 legearen arabera, jakingarria dugu gure datu pertsonali Goiena Foruaketa Zentruaren itzazki automatizatu bidez sartuko direla. Datu-bilera horien helburua da indarrez dagoen sustapena gertatzea. Eskudatu gogodatu datu erabiltzeko, hain zuzeneko edo ez zuzeneko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

### Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER  
Begiartu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

📍 KLUBA Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaitetz 2019ko abendutik aurrera: 10€  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



HILDAKOAK

**Maria Luisa Larrabe Irusta.** Arrasaten, azaroaren 1ean. 91 urte.  
**Lucia Rus Cejudo.** Aretxabaletan, azaroaren 1ean. 93 urte.  
**Luis Maria Fernandez de Gamboa Grajales.** Arrasaten, azaroaren 1ean. 79 urte.  
**Kristina Landaluze Untzueta.** Arrasaten, azaroaren 2an. 89 urte.  
**Blanka Perea Ortueta.** Aretxabaletan, azaroaren 3an. 82 urte.  
**Mertxe Zubia Elorza.** Oñatin, azaroaren 3an. 66 urte.  
**Julio Bikuña Igartua.** Oñatin, azaroaren 4an. 73 urte.  
**Santiago Larrea Zubia.** Oñatin, azaroaren 5ean. 87 urte.  
**Txomin Ciarso Alberdi.** Bergaran, azaroaren 5ean. 81 urte.  
**Pedro Altuna Ondarza.** Oñatin, azaroaren 6an. 95 urte.  
**Jose Mari Galdos Aramburuzabala.** Eskoriatzan, hilaren 7an. 90 urte.  
**Asun Mendizabal Elgarresta.** Arrasaten, azaroaren 8an. 85 urte.  
**Luisa Aizkorralde Agirreolea.** Oñatin, azaroaren 8an. 84 urte.  
**Bizente Elkororibe Arriaran.** Oñatin, azaroaren 8an. 89 urte.  
**Josefa Alonso Dominguez.** Arrasaten, azaroaren 8an. 83 urte.  
**Mercedes Rubio Frechoso.** Arrasaten, azaroaren 9an. 84 urte.  
**Matilde Arrese Aranburuzabala.** Leintz Gatzagan, hilaren 11n. 102 urte.  
**Markos Balentziaga Larrañaga.** Bergaran, azaroaren 11n.  
**Regina Kortabarria Zulueta.** Oñatin, azaroaren 12an. 94 urte.  
**Jose Luis Ochandiano Barañano.** Aramaion, hilaren 13an. 56 urte.  
**Sarwar Ghulam.** Arrasaten, azaroaren 14an. 66 urte.  
**Jose Mari Escobar Miranda.** Bergaran, hilaren 15ean. 61 urte.  
**Patxi Etxarri Araña.** Bergaran, azaroaren 15ean. 84 urte.  
**Jose Miguel Alonso Ibeas.** Arrasaten, azaroaren 15ean. 78 urte.  
**Elena Ecenarro Arregui.** Bergaran, azaroaren 15ean. 71 urte.  
**Jose Ignacio Ezkibel Urtaza.** Arrasaten, hilaren 16an. 76 urte.  
**Justina Gisasola Araiztegi.** Arrasaten, azaroaren 16an. 94 urte.  
**Valentin Cabeza Saz.** Arrasaten, azaroaren 16an. 71 urte.  
**Antonio Davila Alvarez.** Arrasaten, azaroaren 16an. 65 urte.  
**Rosalía Garitano Askasibar.** Bergaran, azaroaren 17an. 68 urte.  
**Oliver Hernandez Estrella.** Arrasaten, azaroaren 17an. 39 urte.  
**Pedro Salaberri Telleria.** Arrasaten, azaroaren 17an. 88 urte.  
**Pedro Andrinua Basterretxea.** Bergaran, hilaren 17an. 87 urte.  
**Jose Luis Manterola Egaña.** Bergaran, hilaren 19an. 72 urte.  
**Flora Izuskitza Zubizarreta.** Bergaran, hilaren 21ean. 92 urte.  
**Maria Luisa Zangitu Larrea.** Bergaran, hilaren 21ean. 91 urte.  
**Lucia Agirre Zubizarreta.** Oñatin, azaroaren 21ean. 91 urte.  
**Loli Fernandez Vitoria.** Arrasaten, azaroaren 22an. 91 urte.  
**Maria Dolores Fernandez Vitoria.** Aretxabaletan, hilaren 22an. 91 urte.  
**Mariano Urrutia Ochoa.** Arrasaten, azaroaren 23an. 86 urte.  
**Rosario Laspiur Larrañaga.** Arrasaten, azaroaren 23an. 88 urte.  
**Maxima Barrena Otxoa.** Oñatin, azaroaren 23an. 87 urte.  
**Jose Luis Bengoa Etxebarria.** Aretxabaletan, hilaren 24an. 88 urte.  
**Narciso Andres Sanchez.** Arrasaten, azaroaren 25ean. 88 urte.  
**Apolonia Garcia Etxabe.** Aretxabaletan, azaroaren 25ean. 94 urte.  
**Jose Antonio Gonzalez Escudero.** Arrasaten, azaroaren 26an. 88 urte.  
**Casimira Mujika Mujika.** Bergaran, azaroaren 26an. 75 urte.  
**Margarita Elkoro Unamuno.** Elgetan, azaroaren 26an. 95 urte.  
**Mertxe Idigoras Arregi.** Aretxabaletan, azaroaren 27an.  
**Alfredo Najera Ciaran.** Bergaran, azaroaren 27an. 59 urte.  
**Julia Arruti Mazmela.** Bergaran, azaroaren 27an. 92 urte.  
**Mari Carmen Alcalde Valmori.** Bergaran, azaroaren 27an. 75 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 30	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 1	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 2	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 3	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztena, 4	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 5	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 30	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 1	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 2	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 3	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 4	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 5	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 29	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 30	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 1	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 2	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 3	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 4	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 5
Eguena, 5	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 5

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019ko abenduaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 /	943 79 14 09
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 /	943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

**Pedro Mari Osa Unamuno**  
 'Sakone'

2018ko azaroaren 30ean hil zen, 84 urte zituela.

*Aizkorak egurra, egurra zuhaitza, zuhaitzak basoa, basoak lurra, lurra zerrua. Zeruan atsedean.*

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Emazte eta etxeokak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

**Flora Izuskitza Zubizarreta**  
 Manuel Arregiren alarguna

2019ko azaroaren 21ean hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

*Ama, amama, emakume eredugarria izan zara guretzat. Ez zaitugu inoiz ahaztuko eta bihotzean eramango zaitugu beti.*

Bergaran, 2019ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

**Mariano Urrutia Ochoa**

2019ko azaroaren 23an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko azaroaren 29an.

URTEURRENA

**Javier Ayastuy Agirre**

2018ko azaroaren 23an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 30ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

*Beti izango zaitugu gure bihotzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko azaroaren 29an.

ESKER ONA

**Maria Luisa Zangitu Larrea**  
 Felix Goenaga Goenagaren alarguna

2019ko azaroaren 21ean hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko azaroaren 29an.

OROIGARRIA

**Julia Arruti Mazmela**

2019ko azaroaren 27an hil zen, 92 urte zituela.

*Zure irrifarrak eta alaitasunak beti iraungo du gure artean.*

Zure familia.  
 Bergaran, 2019ko azaroaren 29an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienan.**

**OROILORE**  
 Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Patinatzerak joan ziren**

Bergarako Txapliguko kideak Baskonia Kirol Hirian egon ziren zapatuan, hango izotz-pistan patinatzen. Domekan, zirku eguna ospatu zuten Oxirondon.

**2. 1973ko kintoak**

40 bat arrasatear elkartu ziren aurreko zapatuan bazkaltzeko. Bakarriketak, jolasak eta dantzaldia egin zituzten. Goizeko poteoa eta gaueko parranda ez ziren falta izan.

**3. Enrike eta Idoia Elkoro txapeldun**

Aretxabaletako frontenis txapelketan irabazi zioten Xabier Garciak eta Alaine Roak osatutako bikoteari, 25-17. Guztira, hamabi bikotek jardun dute txapelketan.

**4. Mondrako jokalarizandakoak**

Argazkiko horiek elastiko zuri-morea jantzi zuten hainbat urtez, eta 1967-1968 denboraldia Hirugarren Mailan jokatu zuten. Bazkaltzeko elkartu ziren, Kasino elkartean.

**5. Realaren etorkizuneko jokalaria?**

Batek daki horrela izango den. Oraingo, entrenamenduak egiten dihardute Leintz Arizmendiko, Bergarako eta Aloñako infantil mailetakoko neska futbolariak.

**6. 60 urte ezkontuta**

Antonio Bolinaga eta Frantziska Erostarbe 1959ko azaroaren 21ean ezkondu ziren. "Patxo potolo bat Aneren, Gorkaren, Uxueren, Ikerren, Amaiurren, Iratiren eta Mikelen partetik".

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak


Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI  
**Enara Arrazola Aranburu**  
Abenduaren 3an, 5 urte. Zorionak, politt hori! Disfrutatu hainbeste desio izan dozun eguna. Alkarrekin ospatuko dogu familixan.



BERGARA / BAÑARES  
**Ander Aparicio Aranzabal**  
Abenduaren 2an, 5 urte. Zorionak, txapeldun. Egun ederra pasatu eta muxu handi-handi bat, etxekoan partetik.




OÑATI  
**Iraia Marquez Gomez**  
Abenduaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Iraia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Ainara Revilla Urrutia**  
Abenduaren 1ean, 10 urte. Zorionak, Ainara! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo pilo bat, etxeko guztion partetik.




BERGARA  
**Oier Fernandez Lopez**  
Azaroaren 30ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Edarto ospatu zure eguna familia eta lagun artean. Mua!



OÑATI  
**Markel Zabaleta Legaristi**  
Azaroaren 30ean, Markelek 4 urtetxo beteten dau. Zorionak, politt hori eta ondo pasatu zure egunian. Patxo handi-handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA  
**Eñaut Arkauz Vitoriano**  
Azaroaren 30ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat, danon partetik!



BERGARA  
**Urko Alberdi Gallastegi**  
Azaroaren 28an, 7 urte. Zorionak, Urko! Ederki pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu erraldoi bat, etxekoan partetik.




ARRASATE  
**Ibai Jimenez Aldama**  
Azaroaren 28an, Urtebetetzea. Zorionak, txapeldun. Jaso etxekoan partetik milioi bat muxu eta jarraitu orain arte moduan, dibertigarri eta formala izaten.



BERGARA  
**Asier Sanchez Gonzalez**  
Azaroaren 27an, 3 urte. Zorionak, laztana! Hiru urte. Ze handi egin zaren! Etxekoan partetik, asko maite zaitugu!




OÑATI  
**Hodei Benito Alzelai**  
Azaroaren 27an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu! Unax, aita eta ama.




ARRASATE  
**Xabier Agorria Lumberras**  
Azaroaren 26an, 4 urte. Zorionak, Xabi! Heldu da eguna! Lau urtetxo! Egun zoragarria pasa ezazu! Patxo handi bat, politt hori!



ARAMAIO  
**Nora Kortabarria**  
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak, Nora! Segi gure bizitza alaitzen! Muxu potolo etxekoan partetik.



ELGETA  
**Inhar Zabala Sarasketa**  
Azaroaren 24an, 3 urte. Zorionak etxeko danon, eta bereziki, Xareren partetik. Egun ona euki eta merendola eder batekin ospatuko dogu.



OÑATI  
**Naroa Iñarra Agirre**  
Azaroaren 24an, 4 urte. Zorionak, Naroa! Etxeko danon partetik, primeran pasatu. Muxu potolo bat.



BERGARA  
**Julen Burgaña Ernabide**  
Azaroaren 22an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Muxu handi bat, familixa danaren partetik!



OÑATI  
**Antton Oleaga Mugarza**  
Azaroaren 21ean, 13 urte. Zorionak, Antton! Egun politta pasatu eta patxo handi bat, etxeko danan partetik.



BERGARA  
**Maju Uriarte Sebal**  
Azaroaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Maju! Ondo ospatu zure eguna eta oso ondo pasatu! Patxo asko, familia danaren partetik.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 29

### ELGETA Ipuinen ordua

Boluntario taldearen eskutik hiru saio: 17:00etan, LH-3tik aurrerakoak; 17:30etan, 5 urteko gelatik gorakoak; eta, 18:00etan, 2-3 urtetik aurrerako umeak. *Liburutegian.*

### ARETXABAETA Jostailu erakusketa

Trebetasun jolasak eta jostailuak, kooperatiboak eta hizkuntza lantzekoak. *Mojen komentuan, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Where do you live' ipuin kontaketa ingelesez

1 eta 3 urte arteko umeendako. *Kids & Us akademian, 17:30etan.*

### ARAMAIO 'Arnasa gara' ekitaldia

Arnasguneek euskararentzat duten garrantzia nabarmenduko dute. *Kultura etxean, 18:00etan.*

### ARETXABAETA 'Munduko musika tresnak' erakusketa

Bihar da bilduma ikusteko azken eguna. *Arkupan, 18:00etan.*

### OÑATI 'El sentido de la vida' hitzaldia

Javier Azipiri *Kalki*-k egingo du berba, Oñatiko yoga eskolaren 30. urteurrenean. *Kultura etxean, 19:00etan.*

### OÑATI San Andres jaiak Uribarrin

21:00etan, etxafuego jaurtiketa; eta 22:00etan, mus txapelketa. *Uribarri auzoan.*

### BERGARA 'Ufadak' dantza emanaldia

*La Pulga*-ren flamenko ikuskizuna. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 30

### ANTZUOLA Antzuolako arbasoen historia, gertutik

Antzuola eta Soraluze arteko ibilbidean dauden monumentu

megalitikoak ezagutzeko aukera, Arrolakoekin.

*Herriko plazan, 08:30etan.*

### OÑATI 25. xake txapelketa

Suitzar erara jokatu dute, eta sei itzulitara. *Gaztelekuan, 09:00etan.*

### BERGARA 'MovemBer Gara' eguna

Mendi buelta, zuzeneko musikaz girotutako poteoa, biboteen enkantea, bazkaria eta kontzertua. *Bergaran, 10:00etan.*

### BERGARA 'Klima aldaketa Euskadin' hitzaldia

EEEko zuzendari nagusi Iñigo Ansolak eta ingurumen ekonomian aditu Alexander Botok egingo dute berba, EAJK gonbidatuta. *UNEDen, 10:00etan.*

### OÑATI 'Gorputz eta ahots entrenamendua antzerkian' ikastaroa

Raffaella Menchetti italiarra izango da irakaslea. Irazanek antolatuta. *Eltzian, 10:00etan.*

### OÑATI Okupazio jardunaldiak gaztetxean

11:00etan, erresistentzia; 13:00etan, desjabetze tailerra; 14:00etan, bertso-bazkaria; 17:00etan, desjabetze tailerra; 19:00etan, *Nola jokatu poliziarekin*; eta ostean, pintxo-poteo musikatua. *Antixenean.*

### OÑATI San Andres jaiak Uribarrin

12:30etan, *Uribarri* liburuaren aurkezpena; 14:00etan, auzo-bazkaria; 16:00etan, Izer eta Alaiber taldea; eta 18:00etan, txokolate-jana eta goxokiak. *Uribarri auzoan.*

### ESKORIATZA Mus txapelketa

Dorleta Elkarrekin antolatutakoa. 40 euro, bikote bakoitzak. *Dorleta elkartean, 16:00etan.*

### ARRASATEKO Gabonetarako proposamen zaparrada

Gaztetxoendako. *Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

### ANTZUOLA Preso gaixoen eskubideen aldeko ekimenak

Debagoieneko Sareren eta Antzuolako Ez Dot Moztuko Bizarra taldearen eskutik. *Antzuolan, 18:00etan.*

### BERGARA 4kote abesbatza

Durangoko musika eskolan sortu zen ahots zurien abesbatza. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 19:00etan.*

### ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra eta aforia

Gaztetxoendako ekintza. Pizzak prestatuko dituzte. *Gaztelekuan, 19:00etan.*

### OÑATI Ganbara Abesbatzaren 25. urteurrenoko kontzertua

Musika erromantikoa oinarri hartuta, 60 pertsona igoko dira oholtzara: egungo kideak batzuk eta abeslari eta zuzendari izandakoak besteak. *Bidaurretan, 19:15etan.*

### OÑATI Movember jaiak

Talde argazkia, bibote mozte kolektiboa, kale animazioa eta aforia egingo dituzte. *Foruen plazan, 19:30etan.*

### ARAMAIO 'Custodia compartida' filma

*Giza eskubideak eta zinema* zikloaren baitan emango dute Xavier Legranden pelikula. *Kultura etxean, 21:00etan.*

### OÑATI Lion's Lau, Yugular, Tilikum eta Motherfucker taldeak

Sarrerak, zortzi euro. *Gaztelekuan, 22:00etan.*

## DOMEKA 1

### BERGARA Reyes Azkoitia Gabonetako pilota txapelketa

Txapelketako lehen partiduak jokatu dituzte. *Pilotalekuan, 10:30etan.*

### ARRASATE 'Arrasate monumentala'

Arrasate historikoaren inguruko bisita gidatua. *Herriko Plazan, 11:00etan.*



MARIMUNDUKO

### OÑATI Marimundukoren ipuin kontaketa saioa

Joxe Miel Barandiaranek bildutako hainbat kondaira eta kontakizun harrigarri kontatuko ditu Maitane Aizpuruak. Emanaldi bikoitza egingo du, baina aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94. *Domekan, Parketxean, 11:00etan eta 12:30etan.*

### OÑATI San Andres jaiak Uribarrin

12:00etan, meza; eta ostean, luntxa eta bertsolarien saioa. *Uribarri auzoan.*

### BERGARA Kirol argazkien erakusketa

Gaur da azken eguna. *Aroztegin, 12:00etan.*

### OÑATI Txistularien emanaldia

Aita Madina bandarekin. *Kontzejupean, 12:30etan.*

### OÑATI Ipuin kontaketa eta eskulanak

Sorgina Txirulinak kontatuko ditu ipuinak. Ostean, herriko gazte talde batek gidatuta, eskulanak. *Gaztetxean, 17:00etan.*

### ARRASATEKO Gabonetarako proposamen zaparrada

Gaztetxoendako. *Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

### ANTZUOLA Ipuin kontaketa

Joxe Mari Carrereren saioa. *Olaranen, 18:00etan.*

### OÑATI Murgi eta Horeba taldeak

Pey Etura argentinarraren laguntza izan dute lau kantutan. Debalde. *Pako tabernan, 19:00etan.*

### OÑATI 'Remendando males de amores' antzezlanak

Pake Lekuko Ikusi Makusi taldearen lan berriena. Sarrerak, bost euro. *Santa Anan, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 2

### OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

### ARRASATE Margo taldekoen erakusketa

Taldeko kideen 20 bat lan ikusteko aukera, hilaren 20ra arte. Akrilikoak, akuarelak, olioak... daude. *Kulturaten, 17:00etan.*

## MARTITZENA 3

### ARRASATE Odol ematea

Abenduko lehen deialdia. *Anbulatorioan, 16:30etan.*

### OÑATI Haurren eta gurasoen irakurketa kluba

Bigarren saioa egingo dute Lur Kortak gidatuta. *Haur liburategian, 17:30etan.*

### OÑATI Psikologia irakurle taldea

Silvia Fondra psikologoak gidatutako saioa. *Liburutegian, 18:30etan.*

### BERGARA 'Maitasun erromantikoa suntsitza' tailerra

Jabekuntza Eskolaren baitan. Hurrengo saioak hilaren 10ean eta 17an egingo dituzte. Izena emateko: *berdintasuna@bergara.eus. Irizar jauregian, 18:00etan.*



IMANOL SORIANO

**ARRASATE 'El dúo de La Africana' zarzuela**  
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik, aurtengo azken bi emanaldiak. Hiru koadrotan banatutako lana da Miguel Echegarayren libretoa, Manuel Fernandez Caballeroren musika duena.  
**Amaia antzokian, egubakoitzean 19:30ean eta zapatuan 20:00etan.**

**ARRASATE 'Dzirt-dzart' marrazketa saioa**  
Gazteendako eta helduendako, Alazne Zubizarretarekin eta Julen Ribasekin.  
**Liburutegian, 18:30ean.**

**EGUAZTENA 4**

**ARETXABALETA 'Atxabaltea anitza' erakusketa**  
Auzokok eta Loramendik egindako bilduma ikusgai, gaurtik hilaren 27ra arte.  
**Arkupen, 11:00etan.**

**OÑATI Partaidetza araudiaren kontraste saioa**  
Herriko eragile guztiei zuzendutako saioa.  
**Udaletxean, 18:00etan.**

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
**Oxirondon, 18:00etan.**

**BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketa**  
Unibertsoa osatzen duten elementuen gaineko bilduma ikusgai, 2020ko martxoaren 15era arte. Hiru aretotan banatuta dago.  
**Laboratoriumen, 18:00etan.**

**ARRASATE 'No os importe matar' liburuaren aurkezpena**  
1978ko San Fermin jaietan gertatutako sarraskiaren gaineko liburua idatzi du Sabino Cuadrak.  
**Kulturatan, 18:30ean.**

**EGUENA 5**

**OÑATI Ohitura osasuntsuen sentsibilizazio kanpaina**  
Markel Irizarrekin eta Amaia Diaz de Monasteriogurenekin: 09:30ean, DBH-1ekoak; 11:00etan, DBH-2koak, eta 15:00etan, LH-6koak.  
**Kultura etxean.**

**OÑATI Garbigune ibiltaria**  
14:00ak arte.  
**Azokan, 10:30ean.**

**ESKORIATZA Gabonetako argien piztuera**  
16:45etan, umeendako eskulanak; 18:00etan, txokolate-jana; eta 18:30ean, musika saioa.  
**Fernando Eskoriatza plazan, 16:45ean.**

**OÑATI Bera Bera-Zuazo, eskubaloitardua**  
Sarrerak: nagusiak, 5 euro, eta 15 urtetik beherakoak, 2,5 euro.  
**Zubikoan, 19:00etan.**

**ARETXABALETA Samuel Telari akordeoilariaren kontzertua**  
Italiarrak iazko Arrasate Hiria irabazi zuen.  
**Zaraia aretoan, 19:30ean.**

**EGUBAKOITZA 6**

**ARRASATE San Nikolas boloa**  
Umeak goxokiak eta litxarriak batuko dituzte, kantuan eginez.  
**Herriko Plazan, 12:30ean.**

**ZINEMA**

**BERGARA**

**SEMINARIKOA**

**Joker**  
Domeka, 19:30.  
Astelehena: 20:30.  
**Asto erregea**  
Domeka: 17:30.

**OÑATI**

**KULTURA ETXEA**

**Secretos de estado**  
Egubakoitzea eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Aste erregea**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

**ARKUPE**

**El silencio de la ciudad blanca**  
Egubakoitzea: 22:00.  
Zapatua eta domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.  
**El rey leon**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**

**COLISEO**

**Puñales por la espalda**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00.

**Pequeñas mentiras**  
Domeka: 20:00, 20:30.

**Frozen**  
Zapatua: 17:00, 19:45.

**Los miserables**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

**GORBEIA**

**Joker**  
Egubakoitzea eta zapatua: 21:40.  
Domeka: 19:35.  
Astelehenean eguaztenera: 20:00.  
**Abominable**  
Egubakoitzea eta zapatua: 17:20.  
Domeka: 12:00, 17:20.  
**Malefica**  
Egubakoitzea eta

zapatua: 16:50.  
Domeka: 12:00; 16:50.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30.  
**El silencio de la ciudad blanca**  
Egubakoitzea eta zapatua: 18:10, 20:20, 22:30.  
Domeka: 12:00, 18:10, 20:20.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30, 20:00.

**La familia Addams**  
Egubakoitzea eta zapatua: 16:50.  
Domeka: 12:15, 16:50.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30.

**La oveja Shaun**  
Egubakoitzea eta zapatua: 16:25.  
Domeka: 12:15, 16:25.

**La trinchera infinita**  
Egubakoitzea eta zapatua: 18:40, 21:30.  
Domeka: 18:40.  
Astelehenean eguaztenera: 19:30.

**Los Rodriguez y el mas alla**  
Egubakoitzea eta zapatua: 19:20.  
Domeka: 11:45, 18:50.  
Astelehenean eguaztenera: 20:00.

**Si yo fuera rico**  
Egubakoitzea eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.  
Domeka: 11:45, 16:30, 18:30, 20:30.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30, 20:00.

**Le Mans 66**  
Egubakoitzea eta zapatua: 19:10, 22:05.  
Domeka: 19:10.  
Astelehenean eguaztenera: 19:30.

**Frozen II**  
Egubakoitzea eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.  
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20, 20:25.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30, 20:00.

**FLORIDA**

**Abominable**  
Zapatua eta domeka: 12:00.  
**Malefica**  
Zapatua eta domeka: 12:00.  
**El silencio de la ciudad blanca**  
Egubakoitzea: 18:00, 22:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:00, 20:20, 22:35.  
Astelehena eta eguaztenera: 17:30, 20:00, 21:00.  
**La familia Addams**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Si yo fuera rico**  
Egubakoitzea eta zapatua: 16:00, 20:20.  
Domeka: 12:00, 16:00, 20:20.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30, 22:30.

**Frozen II**  
Egubakoitzea: 16:40, 19:15.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 18:10.  
Astelehenean eguaztenera:

17:00.  
**Adios**  
Egubakoitzean domekara: 18:05.  
Astelehenean eguaztenera: 20:00.  
**Intemperie**  
Egubakoitzean domekara: 16:05, 18:10, 22:35.  
Astelehenean eguaztenera: 17:30, 22:30.  
**Los miserables**  
Egubakoitzea: 17:00, 20:20, 21:30.  
Zapatua: 20:20, 21:00.  
Domeka: 19:25, 20:20, 21:40.  
Astelehenean eguaztenera: 19:15, 21:30.  
**La vida invisible de Euridice Gusmao**  
Egubakoitzean domekara: 22:35.  
Astelehenean eguaztenera: 19:30.  
**La odisea de los giles**  
Egubakoitzea: 17:30, 20:00, 22:35.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:35.

**KRITIKA**

**Los miserables** ★★★★★  
**Zuz.:** Ladj Ly. **Herr.:** Frantzia (2019). **Aktoreak:** Damien Bonard, Alexis Manenti, Djibril Zonga.

**Auzoko giro eztandagarria**

**ANTONIO ZABALA**

Ladj Lyren *Los miserables*-ek epaimahaiaren saria lortu zuen Cannesko Zinemaldian. Oso film indartsua eta interesgarria da. Filmaren lehen eszenan, Frantziako Selekzioak munduko txapelketa irabazi izanagatik jendeak nola ospatzen duen ikusten da. Hori da jai momentu bakarra. Hortik aurrera, istorioa Parisko auzo galdu batean murgiltzen da. Auzoan badago harrokeriaz eta modu txarrez mugitzen den polizia patruila bat –bikote bat eta polizia berri bat–. Horiekin batera, badaude auzo zuzentzen duten beste talde batzuk. Elkar ondo ulertzen dute auzoko martxa kontrolpean izateko. Eta egoera horretan ere mugitzen dira auzoko gazteak. Filmeko lehen zatian, auzoko eguneroko bizitza ikusten da. Zuzendariak kamera asko mugitzen du auzoko giroa



FOTOGRAMAS

harrapatzeko. Irudiak eta istorioaren giroa oso sinesgarriak egiten zaizkigu. Deskribapen horrek sua hartzen du istorioan ezusteko gertakizun bat ematen denean. Hortik aurrera, dena hankaz gora jartzen da, erritmoa frenetiko bihurtzen da eta intentsitateak gora egiten du.

Zuzendariak lortzen du ikuslea istorioan sartzea. Ikuslea harrapatzea. Oso ondo heltzen zaigu auzoko giro eztandagarria. Mandatariek ahaztu egin dituzte jendearen beharrak eta nahiak, eta *Los miserables* filmak ohartarazpen bat egiten digu horrela jarraitzeak ekar ditzakeen ondorioei buruz.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

## Debagoiena 2030

Eskualdearen muga bizkaitarrean bizi naiz, Elorrioren. Eta Debagoienaz entzuten ditudan ez dira onak. Nire ingurukoek estimatzen diote lan-dinamika industrial, ospitalearen kalitatea eta beste kontu pare bat; baina irudipena dute ekimen gutxi dagoela eta debagoiendarrak gero eta gehiago dabiltzala eskualdetik kanpo, agian ez dutelako bertan aurkitzen desio duten hori, eta seguruenik oharatu gabe kanpora joatearekin areagotzen ari direla eskualdearen ahulezia.

Ez da kanpokoaren inpresio hutsa, eskualdean ere badira kezka bera adierazten duten zantzuak. Horietan nagusia da Debagoiena 2030 ekimena, eragile sozial, ekonomiko eta politiko asko lankidetzan jartzen ari den koalizio indartsua, etorkizuneko erronkei tokiko erantzun egokiena elkarrekin bilatzeko. Ez dut barrutik ezagutzen prozesua, baina txalotzekoa da lankidetzazko gobernantzaren marko berritzailea hobetsi izana, ekimena sortzeko eta garatzeko eragile eta interes-talde guztien artean. Euskaldunok herri gisa etorkizun onik izango badugu, hori soilik gizarte ekimena eta erakundearen ahalmena uztartuta lortuko dugu, bestela ez. Bejondeiola, beraz, ekimen berri honi.

## BUKATZEKO



Izaskun Arriaran aramaiarra, asteen erreskatatu dituzten migratzaileetako batzuekin hizketan. AITA MARI ONTZIA

# 'Aita Mari' itsasontzian migratzaileei laguntzen

Joan den egunean, 79 migratzaile erreskatatu zituen 'Aita Mari' ontziak; halere, martitzen honetara arte ez dute lortu Europara iristea. Izaskun Arriaran aramaiarra ontzian izan da, migratzaileak erreskatatu eta horiei laguntza humanitaria ematen

**Maialen Santos ARAMAI**  
Sizilia uharterako Pozallon lehorreratu da asteen *Aita Mari* ontzia, 79 migratzaileekin. Joan den egunean erreskatatu zituzten itsasoan, Libiatik gertu, baina martitzen honetara arte ezin izan dira lehorreratu, baldintza meteorologiko txarrenatik. *Aita Mari* ontzian migratzaileak artatzen izan da Izaskun

Arriaran aramaiarra –ofizioz erizaina da–, eta, berak GOIE-Nari azaldu dionez, ahaztuko ez dituen uneak bizi izan ditu egun hauetan: "Oso erreskate gogorra izan da, bereziki, itsasoan aritzeko oso eguraldi txarra izan dugulako". Oro har, "pozik" eta "hunkituta" sentitzen dela aitortu du, egindako ahalegin guztiak migratzaileek lur har-

tzeko balio izan dutelako. Halere, ez du berak nahi beste laguntzeko aukerarik izan: "Bost abisu jaso ditugu, guztira, baina horietako batera besterik ez gara iritsi. Izugarriko pena da asko itota hil direla pentsatzea", azaldu du, hunkituta. Hain zuzen, abisu horiek jaso bezain pronto abiatu da *Aita Mari* esandako lekura, baina, azkenean, ez dute

paterarik aurkitu. Arriaranek azaldu duenez, *Open Arms* ontzia ere izan dute lagun: "Patera baten bila ari ginela abisu berri bat jaso genuen. Ondorioz, *Open Arms* ontziaren laguntza jaso genuen bilaketa lanekin jarraitzeko, baina migratzaileen arrastorik ez zuten aurkitu".

### Adin txikikoak, hamabi

Erreskatatu dituzten migratzaileen batez besteko adina 22 urtekoa dela azaldu du erizainak, eta, beraz, gehienak "oso gazteak" dira. Horien artean hamabi adin txikiko daude –gazteenak 11 urte ditu–, eta zazpi hilabeteko haurdunaldia duen emakume bat ere erreskatatu dute. Osasunez "ahul baina ongi" daude guztiak, baina psikologikoki ez daude ondo: "Begirada triste eta galduak ikusi ditugu egunotan. Asko dagoeneko behin baino gehiagotan saiatu dira Europara heltzen, baina ez dute lortu". Halere, aitortu duenez, lehorreratze-za ziohoazenean ikusi ahal izan zituen lehen irribarreak Arriaranek: "Erreskatatu genituen, ez ziren gutaz fio, eta izututa zeuden, baina, portura iristen ari ginela ikustean, oihaiek eta txaloak izan ziren nagusi".

Pozallon lehorreratu direnetik, zenbait osasun azterketa pasatu behar izan dituzte erreskatatuek, eta, gutxinaka, euren osasun egoera "hobetzen" ari da. Datozen egunetan erabakiko dute zein izango den migratzaile bakoitzaren patua; ziur aski, toki ezberdinetara bidaliko dituzte eta *Aita Mari* ontzia, bere aldetik, Greziara itzuliko da eta bertan hilabete igaroko du, datorren urtarrilean berriz erreskate lanetara itzuli aurretik.

**OSORIK DA!** **54. DURANGOKO AZOKA**  
2019ko abenduaren 5etik 8ra

**ANTOLATZAILEA**  
Durango

**BABESLE NAGUSIAK**  
Bizkaia

**ERAKUNDE PUBLIKOAK**  
Durango  
Gobierno Vasco

**BABESLE PRIVATUAK**  
Bilbao

**P+ DOAN**  
www.durangokoazoka.eus